

Jakin197

uztaila-abuztua
2013



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutako aldizkaria



ZENBAKI HONETAN

7

GAIAK

- 11** Jarduera armatuaren amaiera.
ETAren erabakirako arrazoiak
MIKEL SARATXO
JULEN ZABALO
- 33** Postmodernitatea erlijiosoa ote da?
José María Mardonesen ikuspuntua
LUZIO URIARTE
- 73** *Aulki-jokoa*, Uxue Alberdik zahartzaroko
xarma erakutsi zigunekoa
IRAITZ URKULO

EGUNEN GURPILEAN

- 95** **HAIZEA BARCENILLA**
INAKI IRAZABALBEITIA
GOIZALDE LANDABASO
LIONEL JOLY
JOSU LARRINAGA

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

Jakin

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07
jakin@jakingunea.com
www.jakingunea.com

2013ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	55 €	—
Ale arrunta	9,20 €	12 €
EUROPAN		
Harpidetza	70 €	—
Ale arrunta	11,70 €	15,50 €
EUROPATIK KANPO		
Harpidetza	85 €	—
Ale arrunta	15 €	18 €

SUMMARY



THE END OF ARMED ACTIVITY: THE REASONS BEHIND ETA'S DECISION

Mikel Saratxo, a graduate in Sociology, and the professor of Sociology Julen Zabalo, analyse the reasons behind the decision announced by ETA in October 2011 to cease its armed activity. The authors explain on the one hand the internal reasons behind the decision —placing special emphasis in the study on the two bargaining channels tested by ETA— and, subsequently, the organisation's thoughts about these strategies in recent years. **MIKEL SARATXO / JULEN ZABALO**

IS POST-MODERNISM RELIGIOUS? THE VIEW OF JOSÉ MARÍA MARDONES

The professor of Theology Luzio Uriarte focuses on an analysis of the relationship existing between post-modernism and religion from the standpoint of studies carried out by the sociologist and theologian, José María Mardones (1943-2006), a well-known researcher of modern and religious thought. The author analyses the view developed by Mardones about the main theses and authors within the post-modern trend, as well as their conflictive relationship with religion. **LUZIO URIARTE**

AULKI-JOKOA, THE CHARM OF OLD AGE ACCORDING TO UXUE ALBERDI

Iraitz Urkulo, a graduate in Basque Philology, introduces us to the novel *Aulki-jokoa* by Uxue Alberdi (Elkar, 2009), focusing on an analysis of the different themes it featured: the individual memory and the collective memory, echoes of childhood, the open wound left by the Civil War, relationships between men and women, and old age. The author of the article considers Uxue Alberdi to be one of the main representatives of the new wave of writers at the beginning of this new millennium. **IRAITZ URKULO**

NEWS TODAY

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Haizea Barceñilla, Inaki Irazabalbeitia, Goizalde Landabaso, Lionel Joly, and Josu Larrinaga. **VARIOUS AUTHORS**

ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 197. zenbakia da eta 2013. urteko laugarrena.

Zenbaki honetan ez da gai nagusirik lantzen. Horren ordeztan, *Gaiak* saillean, elkarren artean lotura zuzenik ez duten hiru artikulua aurkezten dizkizugu. Honako gaiak lantzen dira, hain zuzen, artikulua horietan: jardueraren armatua amaitzeko ETAK hartutako erabakiaren arrazoiak; postmodernitatearen eta erlijioaren arteko harremanak; Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* eleberria.

Lehenengo artikuluan, bada, 2011ko urriaren 20an jardueraren armatua behin betiko amaitzeko ETAK iragarritako erabakiaren arrazoiak aztertzen dituzte Mikel Saratxok eta Julen Zabalo. Batetik, erabakia hartzeko aipa daitezkeen kanpoko eta barruko arrazoiak aurkezten dituzte; barrukoaren artean, garrantzi berezia ematen diote nazio askapenaren bidean ETAK jorratutako bi negoziozko ildoak azaltzeari. Bestetik, azkeneko urteotan estrategia horien inguruan ETAK eginiko gogoetak agertzen dituzte. Amaitzeko, gertatutako aldaketei buruzko azken gogoeta eta balorazioa egiten dute.

Luzio Uriartek, bigarren artikuluan, postmodernitatearen eta erlijioaren arteko loturaren analisiari heltzen dio, José María Mardones (1943-2006) soziologo eta teologoak, egungo pentsamenduari eta erlijioari buruzko gogoetan aditu ezagun eta onartuak, egindako ikerketen ikuspuntutik abiatuta. Artikulu honetan, Mardonesek postmodernitateko pentsalari nagusien planteamenduekin izandako elkarrizketaren emaitzak eskaintzen dira: lehenik, elkarrizketa horren testuinguruko zenbait zehaztapen aurkezten dira; bigarrenik, Mardonesek azpimarratzen dituen ideiak edo puntuak identifikatzen dira; hirugarrenik, haren ikuspuntu kritikoa jasotzen da; eta, azkenik, egileak gogoeta horien ibilbidearen balorazioa egiten du.

Hirugarren artikuluan, azkenik, Iraitz Urkulok Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* (Elkar, 2009) eleberria aztertzen du, liburu horretan garatzen diren hainbat gairen analisisan sakonduz: norbanakoaren memoria eta historia kolektiboa, haurtzaroko oihartzunak, Gerra Zibilaren zauri irekia, gizon eta emakumeen arteko harremanak, zahartzaroa... Egilearen iritziz, eleberri honek narratibaren arloan sorkuntza sendoenetakoa duten XXI. mendeko euskal idazle gazteen artean kokatzen du Uxue Alberdi.

Egunen gurgilean saileko idazlanak datoz azken orrialdeetan. Azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta biziak egin dituzte Haizea Barcenillak Arteari buruzko atalean, Inaki Irazabalbeitiak Teknozientzian, Goizalde Landabasok Literaturan, Lionel Jolyk Soziolinguistikan eta Josu Larrinagak Glokalian. ¶



11 MIKEL SARATXO

JULEN ZABALO

Jarduera armatuaren amaiera.
ETAren erabakirako arrazoiak

33 LUZIO URIARTE

Postmodernitatea erlijiosoa ote da?
José María Mardonesen ikuspuntua

73 IRAITZ URKULO

Aulki-jokoa, Uxue Alberdik zahartzaroko
xarma erakutsi zigunekoa

Jarduera armatuaren amaiera. ETaren erabakirako arrazoiak

MIKEL SARATXO
JULEN ZABALO

Soziologian lizentziaduna eta EHUko Soziologia eta
Gizarte Langintza Saileko doktoregaia
EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea

2011ko urriaren 20an ETAk jarduera armatua behin betiko amaitzen zuela iragarri zuen komunikabideetara bidalitako agiri batean. Berriak era guztietako interpretazioak izan zituen, oso politizatuak gehienetan, eta arrazoi, edo arrazoi ildo, bakarrari loturik normalean. Artikulu honetan arrazoi horiek guztiak, eta gehiago, agertu nahi ditugu, sailkatu, aurkeztu, eta amaieran, euren arteko erlazioa bilatuz, azken balorazioa egingo dugu.

Sailkatzea, ordea, ez da erraza, eta arrazoiak ahalik eta modurik argienean aurkezteko, zientzian oso erabilia den AMIA (hau da, Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahulguneak) izeneko matrizea erabiliko dugu. Lau 'kutzako' matrize honetan *kanpoko aldetik* datozen arrazoiak (positiboak batzuk, *Aukerak*, eta negatiboak besteak, *Mehatxuak*) eta *barruko aldetik* sortu direnak (berriro positiboak batzuk, *Indarguneak*, eta negatiboak besteak, *Ahulguneak*) aztertuko ditugu. Oro har, kanpoko arrazoiak erabiliagoak eta aztertutagoak izan dira barruko arrazoiak baino, azken horiek zailagoak baitira nabaritzeko eta zehazteko. Hala ere, gure

Indarguneak

Justifikazio ideologikoan

- Abertzaleen eskaerak (autodeterminazioa, euskararen garapena, Euskal Herria batua) logikotzat eta naturalizat hartzen dituzte abertzale askok.
- Abertzaleen arteko batasuna gauza desiragarria da abertzale askoren artean.
- Ezker Abertzalearen inguruko erakundeek, EPPK-k barne, borroka armaturik gabeko estrategiaren aldeko jarrera adieraztea.

Bitartekoetan

- Ezker Abertzaleak mobilizatorako ahalmen handia dauka; oso militantzia aktiboa.
- Militanteak lortzeko ahalmena.

Emaitzetan

- Harreman ona hurbileko beste alderdi edo erakundeekin, eta horiekin lankidetzarako edo aliantzak ezartzeko aukera onak.

Aukerak

Nazioartean

- Testuinguru berria: gehiago onartzen da estatuen barne arazoetan esku-hartzea.
- Autodeterminazio esperientzia berriak Europan.
- Irlandako eredua.

Euskal Herrian

- Euskal Herriko iritzi publikoak ez die kontrako jarrera itxirik erakusten abertzaleen eskaerei.
- Beste indar politiko, sindikal eta sozialen jarrera ona lankidetzan aritzeko.

Ahulguneak

Justifikazio ideologikoan

- Jarduera armatua justifikatzeko zailtasunak demokraziaren diskurtsoa nagusi den unean.

Bitartekoetan

- Jarduera armatua justifikatzeko zailtasunak, presio poliziala dela eta.
- Ilegalizazioa dela eta, herri mobilizazioa garatzeko ere zailtasuna.

Emaitzetan

- Emaitza positibo nahikorik ez nazio askapen estrategietan: Nazio Frontea eta negoziazio prozesua Espainiarekin.

Mehatxuak

Nazioartean

- Espainiak presioa egiten du nazioartean ETA eta Ezker Abertzalea bakartzeko.
- Estrasburgoko auzitegiak Alderdien Legea berretsi zuen.

Espainian

- Espainiako Estatuaren jazarpen orokor eta bortitza: detentzioak, ilegalizazioak, jardueren debekua, sumarioak..., baina ez ETArene bakarrik, Ezker Abertzalearen erakunde guztiena baizik.
- Espainiako iritzi publikoak kontrako jarrera itxia erakusten du abertzaleen eskaeren aurrean.

Euskal Herrian

- Hurbileko indarrek uko egiten diote lankidetzara politikoari jarduera armatua dagoen bitartean.

ustez, paper erabakigarria jokatu dute barruko arrazoi horiek, ikusiko dugunez. Horregatik, horien azterketari tarte berezia emango diogu.

Gure azterketan arreta berezia eskaini diogu ETAk, edo Ezker Abertzaleak batzuetan, sortutako material idatziari. Izan ere, *barruko* arrazoi horiek aztertzeke, ezinbesteko materiala dugu eragileek eurek sortutakoa, baina azterketa hori gutxitan egin da, gure ustez. Halaber, ETAk barne gogoeta abiatu zuen ordura arteko estrategiekin lortutako emaitzei begira; eta gure ustetan, gogoeta hura garrantzi handikoa izan zen gerora hartu zuen erabakia ulertzeko. Ezinbestekoa da, hortaz, barne gogoeta horiek behar bezala aztertzea.

Artikuluau lau atal bereiziko ditugu. Lehenengo bietan, erabakia hartzeko aipa daitezkeen kanpoko eta barruko arrazoiak aurkeztuko dira, eta barrukoaren artean, garrantzi berezia emango zaio nazio askapenaren bidean ETAk jorratutako bi negoziazio ildoak azaltzeari. Hirugarren atalean, azkeneko urteotan estrategia horien inguruan ETAk eginiko gogoetak agerrarazi nahi dira. Eta amaitzeko, gertatutako aldaketei buruzko azken gogoeta eta balorazioa egingo da.

Erabaki baterako kanpoko arrazoiak

Eragile baten jarduera ez da nahikoa eragile horren arrakastaz edo aurrera egiteko aukeraz balorazioa egiteko. Aitzitik, posible izan liteke eragile horrek oso jarduera egoki eta arduratsua garatzea, baina berak kontrolatu ezin dituen arrazoiak bertan behera uztea bere ahalegin guztia, eta alderantziz. Izan ere, etengabe agertzen ari dira faktore berriak, norberaren esku ez daudenak, eta horiek ulertzea, eta ahal den moduan egokitzea, izaten da erronka. Horiek dira aipatuko ditugun *kanpoko* arrazoiak. Gustatu edo ez, kanpoko arrazoiak eragin egiten dute eguneroko jardueran, batzuetan laguntzeko, eta besteetan traba egiteko. Izaera negatiboa dutenak *mehatxu* bihurtzen dira gure zereginerako, eta izaera positiboa dutenak *aukera* aurrera egiteko.

Mehatxuak

Gerra Hotzaren amaieraz geroztik, biolentzia politikoaren erabilpena (batez ere estatutik ez datorrena) aldekotasuna galduz joan da munduan, batik bat mendebaldean. 2001eko New Yorkeko gertakariak erabakigarriak izan ziren aldaketa horretan, eta erabat aldatu zituzten erakunde armatuen aurkako estrategiak, terrorismo globalaren aitzakiaz.

Euskal Herrian ere, zalantzarik gabe, Aznarren gobernuak abiatutako eta PSOEek bere egindako aldaera hori nabaritu ahal izan zen argitasunez. Orduan, Ezker Abertzalearen antolakundearen ilegalizazioak eta bere militanteen atxiloketak hasi eta ugaldtu ziren. Gainera, Espainiako Gobernuaren jarrera hori nazioarte mailan ere legitimatua izan zen, Batasuna, Segi, Askatasuna eta bestelako antolakunde politikoak nazioarteko erakunde terroristen zerrendetara gehituz.

Errepresioak zirrikitu guztiak itxi nahi zituen, eta horretarako helburu berezia ipini zuen gazterian. Espainiako Auzitegi Gorenak Segi gazte erakundea terroristatzat hartzeak inflexio puntua ezarri zuen gazteen kontrako jazarpenean. Orditik aurrera, Segiko militante edo jarraitzaile izatea delitu generiko eta aitzakia erabilia bihurtu zen Estatuarentzat euskal gazte mugimendua erasotzeko; eta ehunka gazte atxilotu, inkomunikatu eta kartzelaratu zituzten.

Etengabeko jazarpen egoera hartan, Ezker Abertzaleak European jarri zuen begirada, nazioartetik etor zitekeen sostengua bilatzeko asmoz. Baina nazioarteak, Espainiako Estatuaren eraginez neurri handi batez, salbuespen egoera deitu ahal zen hura legitimatu eta defendatu zuen, oro har. Adibiderik argiena 2009an eman zuen, Estrasburgoko Auzitegiak Espainiako Alderdien Legea berretsi zuenean. Esan dezakegu, une hartan, ETAREN jarduera armatua eta Ezker Abertzalearen politika instituzionala aldi berean aurrera eramateko aukera itxi egin zela.

Nazioarteko legitimazioa Espainia barrukoarekin osatu zen, eta hori Espainiako iritzi publikoaren aldeko jarreran

frogatu zen. Zeregin horretan, komunikabideek funtzio erabakigarria jokatu dute, eta jarrera trinkoa, eta baita muturrekoa ere, erakutsi dute. Era horretara, euskal nazionalismoaren eskakizun eta jokaera guztiak gaitzetsi dira: autodeterminazio eskubidea, euskararen aldeko jarrera batzuk, eta zer esanik ez borroka armatua.

Azkenik, Euskal Herriko beste indar abertzaleek ere modu bikoitzean jokatu zuten. Alde batetik, nolabaiteko legitimazioa eman zioten erasoari. Ez zituzten bultzatu Alderdien Legea eta ilegalizazioak, baina ez zuten ere aurka egiteko asmorik erakutsi, ezta ondorioetan ere. Era horretara, gehienetan ez zuten inolako trabarik izan Ezker Abertzalearen legez kanporatutako hautagaiek lorturiko eserlekuak hartzeko.

Eta beste aldetik, Lizarra-Garaziko porrotaren ostean, itxi egin zituzten Ezker Abertzalearekin elkarlana bultzatzeko bideak. Horretan eragiteko oztopo nagusia biolentzia zen, eta mezu hura helarazi zitzaien ETari zein Ezker Abertzaleari.

Aukerak

Gerra Hotzaren amaierak biolentzia politikoaren deslegitimazioa ekarri zuela esan dugu, jarduera armatua erabiltzen zuten taldeen kontra. Baina estatuena ere zalantzan jarri zen, eta haren kontra zerbait egin zitekeelako ustea ere zabaldu zen. Herriek euren barruko gatazkak euren artean bakarrik konpondu behar zituztelako aurreko ustetik, esku-hartzea legitimoa izan zitekeela pentsatzera pasatu zen berriro (historian askotan pentsatu den bezala), batez ere elementu berri bat agertzen bazen: arrazoi humanitarioak. Diktadura egoera bat (Irak) edo giza talde baten eskubideak kolokan egotea (emakumeena Afganistanen) arrazoi nahikotzat joko zen aurrerantzean, Nazio Batuen izenean normalean, esku-hartzea baimentzeko. Hortik tiraka, herrialde batean barne gatazka iraunkorrari kanpotik konponbidea eman nahi izatea ere justifika daiteke egun, ez esku-hartze

militarra egiteko, baina bai aldean arteko negoziazioetan eragiteko.

Arrazoi humanitarioak Gerra Hotzetik hona bizi dugun demokrazia kontzeptuaren gorakadari loturik doaz. Demokrazia gakoa izanik, herritarraren borondatean jarri nahi da protagonismoa, eta hor garrantzi berri eta berezia hartzen du autodeterminazio eskubideak; kontzeptu zaharra berori, baina urte hauetan berpizturik aurkitzen duguna. Izan ere, autodeterminazioa tresna ezin egokiagoa bihur daiteke herrialde bateko biztanleek euren iritzia plazara dezaten, eta gehiengoaren ustea nagusi dadin. Herrialde Baltikoetan edo Jugoslavia ohian erabilia, oztopoak oztopo eta kritikak kritika, formula eraginkorra dela erakutsi du nazio identifikazio desberdinak batzen ziren herrialdeetan konponbidea bilatzeko.

Argudioari jarraiturik, Europako hainbat nazionalismok aukera egokitzen jo du autodeterminazioa euren lurralde eskaerari bidea zabaltzeko, ez harrezkero gerra egoera bat zegoelako (gatazka armatua egon ahal zen arren), ezta momentuan bertan gauzatu nahi zelako ere. Aitzitik, negoziatio batzuetan herrialde jakin bati autodeterminazio eskubidea onartzea berme nahikotzat jo daiteke gatazka konpontze bidean sartzeko, inoiz eskubidea gauzatzeko aukera izango duela ziurtaturik.

Ildo horretan, Irlanda eredu bihurtu zen Euskal Herrian, eta *Irlandako Foroan* baturik, eragile abertzaleek bestelako konponbide bat bila zitekeela hausnartu ahal izan zuten. *Lizarrako Garaziko* esperientzia gogoeta haren ondorio izan zen, eta porrotean amaitu arren, aukera modura ikusten du oraindik askok. Europar Batasunaren inplikazioak (*Peace Programaren* bidez) indartu egiten du aukera hori, arrakastarako berme handiagoa bihurtzen baita.

Izan ere, datu garrantzitsua da jakitea nazioarteko eragin horiek begi onez ikusiak direla Euskal Herrian. PPko bozeramaileen jarrera gotortuak alde batera utzirik, ez du eman ten Euskal Herriko iritzia publikoak kontrako jarrera itxirik

erakusten duenik abertzaleen eskaeren aurrean. Aitzitik, iritzi zabaldua da Irlandan eta beste leku batzuetan ituna adostu badute, ea zergatik ezin den Euskal Herrian berdin gertatu. Iritzi publikoak, hortaz, bultzatu egiten ditu eragile politikoak eta sindikalak irtenbidea bilatzera, eta eragile horiek aldeko jarrera hori erakusten dute, ezinbestean.

Egoera horretan, nazioartean handitu egin da Euskal Herriko gatazkarekiko interesa; baina, benetako esku-hartzea gertatzeko, borroka armaturik gabeko egoera batera heldu behar zen. ETArri gogoetarako gaia aurkeztu zitzaion: nazioartean eta Euskal Herrian laguntzeko jarrera ager zitekeen, baldin eta ekintza armatuak desagertzen baziren; baina babilizko jarrera hura ezina izango zen ekintzek jarraituz gero.

Erabaki baterako *barruko* arrazoiak

Ikusi ditugun *kanpoko* arrazoietan, euren *eragina* baliatzean edo, bestela, saihestean datza gakoa. Hau da, norberarengandik at gertatzen dira, eta horien aurrean jarrera bat hartzen da, ahal izanez gero, nahita, baina zenbaitetan nahi izan gabe ere bai. Autodeterminazioaren gaia, adibidez, ez zuen berpiztu Euskal Herriko nazionalismoak; kanpotik etorri zen eragin hura, eta haren aurrean alderdi abertzaleek gaia bultza zezaketen, edo pasatzen utzi. Jarrera bakoitzak bere eragina du, baina gertakaria kanpotik dator.

Orain agertuko ditugun *barruko* arrazoiak, aldiz, eragileak hartutako jarrera batek sortu ditu, eta jarrera horiek ondorio positibo edo negatiboak sortzen dituzte.

Ahulguneak

Botere politikoa lortzeko biolentzia erabiltzea historia bezain zaharra da, errege edo nobleen arteko gerrak lekuko. Baina XVII. eta batez ere XVIII. mendetik aurrera, botere politiko hori estamentu edo, geroago, klase oso bati kendu behar zaiola teorizatzen da. Nobleziaren aurka *herria* ager-

tzen da, eta bere izenean burgesia. Horrela gertatzen dira Iraultza handiak Ingalaterran, Estatu Batuetan edo Frantzia. Pauso bat harago joanda, industrializazio berriarekin sortu den langileriak burgesiari boterea kendu behar diola hasten dira zabaltzen teoria anarkista eta sozialistak. Mende horietatik aurrera, hortaz, teoria liberalek zein sozialistek biolentziara jotzen dute nobleziari, burgesiari edo metropoliari boterea kentzeko.

Langileriak, ordea, ez dauzka burgesiak biolentzia erabiltzeko dituen bitartekoak. Azken horrek armadak erabili ahal dituen bitartean, langileriak herritarren asaldapenak erabili behar ditu, iraultzaren bidez. Hala ere, prozesu horiek azkartzeko eta iraultza gertatzeko baldintza egokiagoak sor daitezten, gutxiengo batzuek borrokan eragin behar dutela teorizatzen da. 1950 eta 60ko hamarkadetan, mugimendu anticolonialista sozialistek *gerrilla* gerra hartu zuten oinarrizatzat botere politikoa, eta ekonomikoa, eskuratzeko, eta teoria horietatik edan zuen ETAk bere jarduera armatua teorizatu eta justifikatzeko orduan.

Izan ere, 1960ko hamarkadan ETAk bere egiten ditu teoria sozialistak eta anticolonialistak, eta, horien arabera, gerra iraultzailea praktikatu nahi du. *Ekintza-errepresioa-ekintza* eskemari atxikirik, euskal herria Espainia eta frankismoaren aurka altxa dadila bilatzen du. Frankismoaren errepresioak erraztu egiten du diskurtsoa, eta ETAk herri sostengua lortzen du: ETAREN biolentzia sozialki justifikatu egiten da. 70eko hamarkadaren hasieratik, ordea, *kanpoko* baldintza berria agertzen da, Francoren ezinbesteko heriotza hurbila. Carrero Blanco hiltzean, ETAk berak itxi dizkio aukerak Francoren osteko frankismoari, eta, hortaz, egoera berri batera egokitu behar da. Gerra iraultzailea baztertuz, negoziazioaren aroa hasiko da, eta borroka armatuari helburu berri hori jarriko dio.

Egoera berrian, jarduera armatua demokrazia marko batean justifikatu behar da, eta hor zailtasunak gero eta handiagoak izango dira. Hiru dira oztopo nagusiak. Alde bate-

tik, Espainiak Europako beste zenbait estaturen bide demokratikoa hartu zuen, eta horrek legitimazioa ekarri zion nazioartean, eta sostengua herritarren artean. Bestetik, Sobietar Batasunaren porrotaren ostean, teoria sozialistak ahuldurik geratzen dira, eta demokrazia eta bide demokratikoak agertzen dira ordutik jarraitu beharreko gida modura. Azkenik, Gerra Hotzaren amaieraren ostean, bakezaletasunak protagonismo handia hartzen du. Historiaren joerari bizkarrara emanez, gatazkak modu baketsuan eta bide demokratikoei jarraikiz konpondu behar direla teorizatzen da.

Indargunea ere izan daitekeena ahulgune argia da: gatazkak modu baketsuan konpondu behar dira, baina biolentzia erabiltzen jarraitzen da; gatazka konpontzeko alde inplikatuak elkarriketa eskatzen da, baina egoera horretara biolentziaren bidez heldu nahi da; herritarren ahotsa entzun nahi da, baina Estatuarekiko negoziazio zuzena bilatzen da. Era horretara, jarduera armatuaren *ezinbestekotasuna* frogatzea gero eta zailagoa da. Espainiaren *itxikeriari* loturik bakarrik defenda daiteke, hots, abertzaleek bakarrik defenda dezakete, baina ez denek, batzuek horrela ere ez baitute onartzen biolentzia politikoaren bidea.

Justifikatzeko zailtasun horri jarduera armatu intentsoa garatzeko zailtasuna gehitu behar zaio. Aipatu dugun poli-ziaren prestakuntza hobea eta presio handiagoa dela-eta, ETArekin ekintzek ez dute lortzen gutxieneko presio konstantea, Espainiako Estatuak estutu dadin. Momentu puntualtan lortzen da, baina atxiloketek edo aldi baterako inhi-ziok lasaitu egiten dute berriro egoera, eta lorturiko eragina galtzen da.

Edozein modutan, zailtasunak zailtasun, ETak eutsi egin dio urte luzez bere jarduera armatuari, markaturiko helburuak lortu asmoz. Hala ere, erabili dituen bi estrategietan ere (Nazio Frontearena eta Negoziazio zuzenarena) oztopoak aurkitu ditu; eta hortxe datza, gure ustez, arrazoi nagusietako bere jarduera armatuaren amaiera iragartzeko, emaitza positiboren ezean, alegia. Azal dezagun hobeto hori gutzia.

Nazio Fronterako saiakerak

Bere sorreratik bertatik aurki ditzakegu ETAREN aldarrikapenak eta ekimenak Nazio Frontearen alde. Bere V. biltzarraren ostean, ETAK *Batasuna Askatasuna Indarra* (BAI) ekimena jarri zuen martxan, Nazio Frontea eratzeke helburuarekin. Ekimen hark, ordea, ez zuen EAJ bereganatu, ezta 1970-71 urteetan izan ziren saiakera berriek ere. Garrantzi handiagoa izan zuten, oster, 1977an Xibertan izandako elkarrizketek. Espainian sortu berriak ziren instituzio politikoetan euskal nazionalismoak zer jarrera mantendu behar zuten eztabaidatu zen bertan, baina ez zen adostasunera heldu: EAJk parte-hartze instituzionala bultzatu zuen; eta ETAK zein KAS blokeko indarrek euskal preso politikoen amnistia eta alderdi politiko guztien legeztapena lehenetsi behar zela argudiatu zuten.

Politika instituzionalari emandako garrantziak mikaztu zuten, era berean, EAJ eta Ezker Abertzalearen arteko harremana 80ko hamarkadan, eta horren ondorioz Nazio Frontea osatzeko aukera ere bai. EAJk Autonomia Estatutuak eta instituzio berriek eskaintzen zituzten aukerak lehenetsi behar zirela zioen; ETAK eta Ezker Abertzaleak, berriz, KAS Alternatibako puntuak lortzea aurretik jartzeaz gain, Autonomia Estatutuaren eta instituzio berrien zilegitasunik eza azpimarratu zuten.

Alde bien arteko banaketa sakondu egin zen hurrengo urteetan. Hala ere, Aljerreko elkarrizketen porrotaren ondoren, ETA eta Ezker Abertzalea *nazio eraikuntza* kontzeptuaz hausnartzen hasi zirenean, Nazio Frontearen eraketarako aukera berria gorpuzten hasi zen. Urte batzuk geroago *Lizarrak-Garaziko akordioak* sinatu ziren, Nazio Frontearen ildoan gertatutako saio sendoena; baina, iraganean gertatu bezala, instituzio politikoei eman beharreko garrantzia oztopo gaindiezin bihurtu zen. Nazio eraikuntza prozesuaren baitan sortuko ziren euskal instituzio berriei eman beharreko erritmoa eta funtzio estrategikoa izan ziren tirabiren iturria, bai-

na kasu horretan EAJ izan zen instituzio berriekiko erreze-loa erakutsi zuena.

Lizarra-Garaziko frontearen apurketak Nazio Frontearen inguruko estrategiaren agorpena eragin zuen, eta hala adierazi zuten Ezker Abertzaleak haragoko indar abertzaleek, borroka armatua eta Nazio Frontea bateraezinak zirela, alegia. Ezker Abertzaleak horren froga jaso zuen 2004an, Bergarako proposamenaren baitan Espainiako hauteskunde orokorretarako indar abertzaleen zerrenda bakarra aurkeztea proposatu eta gainontzekoen ezetza jaso zuenean. Ordu-rako, ETA ere oharturik zegoen Nazio Frontearen strategiaren mugez. Era hartara, iraganean erabilitako beste estrategia berrabiaraztea zegoen: Estatuarekiko negoziazioa.

Estatuarekiko negoziazioa

Esan dugunez, frankismoaren amaierarekin, ETAk gerra iraultzailearen eskema estrategikoa alboratzea erabaki zuen, eta haren ordeztu, Estatuarekin hitzartutako marko demokratiko bat aldarrikatzeari ekin zion, autodeterminazio eskubidea eta Euskal Herriko lurraldetasuna bermatu beharko zituena. ETAREN proposamen hura KAS Alternatibaren irudikatzen zen, Estatuak Alternatibako puntuak onartuz gero borroka armatua amaituko zela gaineratuz.

ETAREN eskema estrategikoa berria Estatuarekiko negoziazioan oinarritu eta gero, aski ezagunak izan dira ETA eta Estatuaren arteko negoziazio prozesuak. Garrantzitsuenetara mugatuta, lehendabizikoa Aljerren gertatu zen, 1989an. Orduko hartan, elkarrizketa saio ezberdinak burutu ostean, hitzartutakoari muzin egitea leporatu zion ETAK PSOAREN gobernuari. ETAREN aburuz, hitzartu egin zen alde biek gatazka politiko-armatua negoziazio eta elkarrizketaren bidez konpontzeko konpromisoa hartzea eta publiko egitea. Espainiako Gobernuak, aitzitik, ez zuen halakorik onartu, eta era hartara, negoziazio prozesua ez ezik, ETAREN su-etena ere bertan behera geratu zen. 2011n kaleratutako azken *Zu-*

taben, ETAk, Aljerreko esperientziak negoziazio estrategian inflexio puntu bat ezarri zuela onartzeaz gain, horrelako prozesu bat aurrera eramateko bi aldeen heldutasunik eza azpimarratzen zuen (ETA: 2011a). Halaber, 1992an Bidarten izandako ETako militanteen atxiloketak negoziazio eskema horren agortze zantzuak agertarazi zituen (Ibid.).

Bigarren saio nagusia 2006-2007 urteetan gertatu zen, *Loiolako elkarriketetan*. Berriro ere, prozesuan hitzartu beharreko puntuen inguruko ezadostasunek negoziazioen blokeoa eta amaiera berdina eragin zuten. Ordutik aurrera, alde batetik, ETAk bere jarduera armatua berraktibatu zuen; eta, bestalde, Estatuak errepresioa muturreraino eraman zuen, ikusi dugunez.

Lizarra-Garaziko prozesuaren amaierak Nazio Frontearen estrategiaren mugak nabarmendu zituen moduan, Loiolako prozesuaren apurketak estrategia negoziatzailearen agorpena irudikatu zuela esan genezake. Egoera horretan, borroka armatuak berebiziko garrantzia hartu zuen bi estrategien bilakaerarako. Hau da, ETAREN ustez borroka armatuak negoziazio prozesu berri bat abiatzeko aktiborik eraginkorrena izaten jarraitzen zuen, baina, aldi berean, negoziazioaren bidez Estatuarekiko akordioak lortzea oso zaila izango zuela ikasia zuen aurreko prozesuetatik. Bestalde, indar abertzale gehientzat, borroka armatua eta Nazio Frontearen berregituraketa bateraezinak ziren.

Beraz, esan liteke ETAk eta Ezker Abertzaleak, Nazio Fronte eta negoziazio estrategietako eraginkortasunaren mugaz zein borroka armatuak estrategia horietan izan zezakeen eraginaz jabetuta, nazio askapeneko prozesuak bere hausnarke-ta estrategikoaren azterketa sakona behar zuela ondorioztatu zutela Lizarra-Garazi eta Loiolako prozesuetatik.

Indarguneak

Estrategia militarreko erakunde politikotzat jotzen du bere burua ETAk, arlo politikoari lehentasuna emanez. Hor-

taz, arlo politikoak garrantzi berezia hartu behar du berari buruzko balorazioak egitean. Azken batean, ETAk helburu politikoak bilatzen zituen garatutako bi estrategien bidez, bai berak zuzenean Estatuarekin negoziatzeko, bai frontearen bidez edo Ezker Abertzaleari protagonismoa utzita.

Arlo politiko horretan daude, hain zuzen ere, ETak baloratu zitzakeen indargune asko. Maila ideologikotik hasita, eragile abertzaleen eskaerak oso zabaldua daude Euskal Herrian, eta logikotzat eta naturaltzat hartuak dira abertzale askoren aldetik. Autodeterminazioa, euskararen garapena, zazpi herrialdedun Euskal Herri batua eta halako kontzeptuak abertzale guztien desioetan sartzen dira, eta, are gehiago, abertzaleen arteko batasuna proposatzen dute etengabe, batasuna gauza desiragarritzat jotzen dutelako. Era horretara, jarduera armatua amaitzeak desio horietan lagun zezakeen, eszenatoki berrira eramanez. Bazirudien, beraz, ETaren estrategia politiko-armatua gehiago zela oztopo pizgarri baino batuketa horretarantz jotzeko.

Gogoeta hura, gainera, ez zen ETarena bakarrik. Ezker Abertzalea, arrazoi handiagoz, konturaturik zegoen ordurako ahulgunez, eta nolako aukera interesgarriak zabal zitezkeen eszenatoki berrian. Are gehiago, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ere partekatzen zuen, bere aldetik, gogoeta. Horrela, 2010eko martxoan aditzera emandako agirian, EPPK-k irekitzen ari zen egoera berriari buruzko hausnarketa zabaldu zuen:

Independentziaren aldeko indar metaketa berrituak ilusioz eta kemenez betetzen gaitu. Guzti honek, gutxieneko demokratikoak borrokatzeko eta irabazteko indarra ematen digu, agertoki demokratiko bat irekitzeko akuilu (EPPK, 2010).

Hala ere, zalantza egon zitekeen jarduera militarra amaitzeak ez ote zuen urtetan landutako aktibo garrantzitsua modu arinean alferrik galduko. Zein izango zen bermea, zerk ordezkia zezakeen jarduera armatuaren aktiboa biolentziarik gabeko jarduera batean? ETak, logikoa denez, zalantza hori agertu zuen, eta 2009ko abenduan kaleratu zuen agirian, pro-

zesu demokratikoaren garapenean eta Estatuarekiko negoziazio berri baten erdiespenean kokatu zituen bere helburu hurbilak. Baina, aldi berean, hurrengo galdera egiten zuen:

Etsaiak Prozesu Demokratiko bat abiatzeko inoiz borondateirik izango ez duela kontuan edukita, nola bultzatuko dugu bide hori hartu dezan eta ondoren horretan mantendu dadin? (ETA, 2009c).

Zalantza gogo faltan edo axolagabekeria jaustea bazen, baziren datu zehatz eta erabatekoak arrisku hura uxatzeko, Ezker Abertzaleko militantziaren ekimena eta adorea urte-tan landutako beste aktibo bat baitzen. Mendebaldeko Europako jarduera demokratikoaren akatsetako bat parte-hartze falta eta politikarekiko urruntasuna bazen, Ezker Abertzaleko militantzaren profila kontrakoa zen: oso aktiboa eta politizatu, alegia. Militantziaren garrantziaz gain, Ezker Abertzaleak mobilizaziorako ahalmen handia dauka, eta halako indar erakustaldiak noizean behin egitea ezinbestekoa bihur zitekeen joko demokratikoan aritzeko. Oraindik datu positibo bat gehiago jaso zitekeen militantziari buruz aritzean, militanteak lortzeko ahalmena. Hau da, Ezker Abertzalearen ondarea militantzia aktiboa izan da, eta jarduera armaturik gabeko egoera batean, agian militatzeko uzkur zeuden pertsonak ere batu zitezkeen, eta mugimendu sendoa gorpuztu, militantzia zabala beharko baitzen egoera berrian.

Azkenik, maila ideologikoz eta militantziaz gain, hirugarren faktore garrantzitsu batek ere jotzen zuen ildo berriaren alde: beste alderdi edo erakundeekiko harreman egokia. Izan ere, estrategia militarri dagokion abangoardia ikuspegia bazterturik, herri jarduerari dagokion indar metaketa ikuspegia bereganatu behar zen, eta indar metaketa ez norberaren indarrean fidaturik bakarrik, baizik eta antzeko helburuak partekatu zitzaketen indarren artekoa. Indar metaketa kontzeptu garrantzitsu bihurtzen da, hori izango baita modua, teorizazio berrian, helburuak betez joateko.

Ildo horretan, Ezker Abertzaleak harreman ona mantentzen zuen hurbileko beste alderdi edo erakundeekin, eta ho-

riekin lankidetzarako edo aliantzak ezartzeko aukera onak zabaltzen ziren. Ondo bete da, dakigunez, teorizazio hori. Oraindik 2009an, Gasteizeko edo Europako hauteskundee-tara EA Ezker Abertzalearekin aurkeztuko ote zen zabaldu zen; baina, dirudienez, ETAREN jarduera oraindik aktibo egotea izan zen arrazoia hauteskunde batuketa ez gertatze-ko. Laster helduko zen, ordea, aliantza. 2011ko udal hauteskundee-tara Bildu izeneko koalizio berria aurkeztu zen, EA, Alternatiba eta Ezker Abertzalea baturik. Artean, hilabete batzuk falta ziren ETAK jarduera armatuaren amaiera iragarriri arte (2011ko urria), baina urte horretako urtarrilean ETAK emana zuen beste adierazpen bat, urrian egingo zue-naren ildoan.

2011n bertan Espainiako hauteskundeak izan ziren, eta ordurako aliantza zabaldu egin zen, lehengo Bilduri Aralar ere baturik, Amaiur izenpean. Urte bat geroago, 2012an, formula errepikatu zuten Gasteizerako hauteskundeekin, Euskal Herria Bildu izenarekin. Emaizta arrakastatsuez gain, aliantzak argitu egin zuen indar abertzaleen banaketa, eta bitara mugatu zituen aukerak: EAJ eta EH Bildu.

ETAren behin betiko su-etena gauzatzeko prozesu luzea

Ikusi dugunez, 70eko hamarkadatik ETAK zabalik izan ditu estrategia ildo bi, baina emaitzak ez dira inoiz izan desi-ratutakoak (gogoratu Xiberta, Aljer, Lizarra-Garazi eta Loio-la). Hala ere, ETAK ekin egin die bi bide horiei, nahiko mo-du automatikoan. Aurreko puntuan nabarmendu ditugun arrazoiak direla-eta, ordea, ETAK gogoeta sakona egiteari ekin zion Loiolako esperientziaren ondoren.

Aldaketa denboran ikusteko, jar gaitzen 2008ko urrian. Orduan, ETAK agiri bat helarazi zuen Lizarra-Garaziko ha-margarren urteurrena gogoratzeko. Bertan kritikatu egiten zituen bidaide zaharrak, baina orduko ekimenaren garrantzia eta baliozkotasuna aldarrikatzen zuen (ETA, 2008). Es-

kema zaharrari eusten zion, beraz, eta berdinean egin zuen hurrengo urtean, antzeko mezuak helaraziz (ETA, 2009a). Urte horretan, ordea, *Gara* egunkariari emandako elkarrizketa batean (ETA, 2009b), indar abertzaleen arteko batuketa beharrari eusten zion, baina esaten zuen barne eztabaida prozesuan zegoela, estrategia politiko-armatua eraginkorra sortzeko asmoz.

Garari emandako elkarrizketa horretan dioenez, fase berrirako ohar garrantzitsu bi egiten ditu ETAk: batetik, abertzaleen arteko batuketa EAJrik gabe ere osa liteke, berari itxaron gabe; eta, bestetik, ETAk aitortzen du Loiolatik aurrera garatu duen jarduera armatua ez dela nahikoa izan berriro haren moduko negoziazio prozesu bati ekiteko. Azken asmo horri eusten dio, ikus daitekeenez, *Anoetako* eskeman. Izan ere, aurrekoan bezala, bi negoziazio mahai proposatzen dira: bata ETA eta Espainiaren artean, gatazkaren ondorioetara mugatua; eta bestea politikoa, alderdi nagusien artekoa. Bertan Ezker Abertzalea egongo litzateke, baina ez ETA. ETAk bere gain hartzen du negoziatziora heltzeko tresna izatea, baina ez negoziazio politikoan mintzakide izatea, hori Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko negoziatzioaren bidez hitzartu behar dela dio. 2009ko planteamendu berria ekintza armatuen areagotzeak lagunduta etorri zen, eta horrek nolabaiteko indarra eman zion berriro presioa egiteko Espainiako Estatuaren aurrean. Baina Espainiako Gobernuak oso argi omen zeukan ETArekin negoziazio prozesu berririk ez zuela zabalduko.

Laburtzeko, 2009an ETAk

1. Jarraitzen du pentsatzen Espainiako Gobernuarekin negoziazio prozesu bat abiatu behar dela, eta borroka armatua eraginkorra izan ahal dela egoera horretara heltzeko. ETA/Espainiako Gobernuaren arteko negoziatzioa barik, Euskal Herria/Espainiaren arteko negoziatzioa planteatu nahi da.
2. Egoera hori Loiolakoaren moduko negoziazio prozesu batean irudikatzen du ETAk. Hala ere, uste du indepen-

dentziaren aldeko indarrek batuago egon behar dutela, eta EAJ egotea ez dela ezinbestekoa.

Baina oztopoak nabariak dira:

1. Lizarra-Garaziko porrotaren ondoren, Ezker Abertzale-
tik at, indar abertzale guztiek uste dute ezina dela Fron-
te Abertzalea berpiztea jarduera armatua indarrean da-
goen bitartean.
2. Estrasburgoko Epaimahaiaren ebazpenaren ondoren, Al-
derdi Politikoen Legea ontzat hartzen zueneko, 2009ko
ekainean, Ezker Abertzaleari goitik behera murrizten
zitzaion instituzioetan ordezkari-tza politikoa lortzeko
aukera, legeak debekatzen zuen eta. Hemen ere, jardue-
ra armatua jarraitu bitartean, instituzio ordezkari-tza
lortzeko aukerak izugarri jaisten ziren.
3. Espainiako alderdi nagusien jarrerak ez zuen erakusten
benetako gogorik negoziazioei eusteko, eta bai ordea
ETA eta Ezker Abertzalea baztertzeko.

Egoera horretan, 2009ko amaieratik aurrera, gogoetari eusten zaio. Oso izenburu argigarria duen txostena plazaratzen du urte horretan Ezker Abertzaleak, «Fase politikoa eta estrategikoa argituz». Horrekin batera, Ezker Abertzaleko kide ezagun sorta batek agerraldi publikoa egin zuen, gatazkaren konponketa soilik bide politikoa eta demokratikoe-tan ezarri, jarduera armaturik gabe. Aitortu egiten da, ho-ri bai, aurreko faseko borroka moldeek (borroka armatua barne) oraingo egoera abantailatsura ekarri dutela. Unea da, ordea, jauzi kualitatiboa egiteko. Fase berrian, alboratu egiten da bi aldeen arteko negoziazioaren eskema (Estatua/ETA), Estatuari aurreratzen ez uzteko aukera ematen diolakoan. Horren aurrean, aldebakartasuna aldarrikatzen da, uste bai-ta era horretara, Estatuaren galgarik gabe, independentzia-
ren aldeko indarren metaketa lor daitekeela. Indar metake-
ta horrek behartuko luke Espainiako Estatuaren konponbidea bilatzera (Ezker Abertzalea, 2009).

Ildo berria eztabaidatu, eta 2010ean berretsi egin zuen Ez-
ker Abertzaleak. ETA, bestalde, norabide horretan egiteko

prest agertu zen, eta aintzat hartu zuen Euskal Herriko eremu politikoan gertatzen ari zen aldaketa politikoa (ETA, 2010a). Aitzitik, joera berriak ez zuen ekarri erantzun positiborik Espainiako Estatuaren aldetik, ETArekin harremanik ez izateko erabakia berretsi baitzuen.

Hala ere, bi faktore berrik gogoetaren ildotik jokatzeko zuten. Alde batetik, 2010eko martxoan *Bruselako Adierazpena* sinatu zuten bakegintzan ospe handia zuten munduko hoberen pertsonak, Nobel saridunak euren artean. Bertan, onetsi egiten zen Ezker Abertzaleak harturiko bidea, eta dei egiten zitzaien ETari eta Espainiako Gobernuari lehenak su-eten iraunkorra adierazteko, eta bigarrenak tamainan erantzuteko, bake iraunkorra lortzeko asmoz. Egun batzuk geroago, ETak ontzat hartu zuen ekimena eta nazioarteko begiraleen garrantzia azpimarratu zuen, nahiz eta gogoratu jarduera armatua desaktibatzeak ez zuela, berez, gatazka konponduko (ETA, 2010b). Beste aldetik, independentziaren aldeko indar metaketaren ildoan, 2010eko ekainean itun estrategikoa sinatu zuten Ezker Abertzaleak eta Eusko Alkartasunak. Bertan, Euskal Estaturanzko pausoak bideratu behar zirela esaten zen, eta Euskal Herriak Espainiarekin duen gatazkaren konponketari ekin behar zitzaiola ohartarazi. Independentziaren aldeko mugimendu berriak hiru zutabe izango zituen: *indar metaketa*, *konfrontazio demokratikoa* eta *nazio eraikuntza* (Ezker Abertzalea; EA: 2010).

ETak oso begi onez hartu zituen pauso horiek, eta, horrenbestez, 2010eko irailean «eraso ekintza armaturik ez burutzeko» erabakia hartu zuen. Gainera, dei egiten zion nazioarteko komunitateari, gatazkaren konponketan parte hartzeko (ETA, 2010c). Aste batzuk geroago, nazioarteko komunitateari zuzendu zitzaion berriro ere ETA, eta pauso eta konpromiso berriak hartzeko borondatea adierazi zizkion (ETA, 2010d).

Aldi berean, independentziaren aldeko indarren aliantza ere aurrera zihoan, *Gernikako Akordioarekin* oraingoan. Hogeitaka alderdik eta eragilek ETari eskatu zioten «nazioar-

teko komunitateak egiaztatzeko moduko su-eten iraunkorra eta aldebakarrekoa aldarrikatzea, jarduera armatua behin betiko uzteko borondatearen erakusle gisa». Era berean, ETARI eta Espainiako Gobernuari eskatzen zieten «indarkeriarik izango ez dela bermatzea eta normalizazio politikoa progresiboki garatuko den egoera» baterantz abiatzea, nazioarteko komunitatea bitartekari zela, eta *Mitchell Printziptoetan* oinarriturik, Irlandan gertatu bezala. ETAK berriro erantzun zion eskaerari, eta 2011ko urtarrilean su-eten iraunkor eta egiaztagarria adierazi zuen.

Espainiako Gobernuaren aldetik, ordea, ez zen erantzunik izan, eta aurreko politikari eutsi zion: atxilotzeak eta ilegalizazioak. Sortu alderdi berria ere ez zen legaltzat hartu, baina 2011n Bildu eta Amaiur aliantza berriek lorturiko emaitzak modu baikorrean baloratu zituen ETAK, eta egoera berriaren aldarri gisa irudikatu zituen. Era berean, Gernikako Akordioan markatutako bide-orria onartu zuen gatazkaren konponbiderako (ETA, 2011b). Ondoren, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ere bat egin zuen Akordioarekin, eta ondorioz Ezker Abertzaleak harturiko bidearekin.

2011ko urrian, azkenik, Donostiako Nazioarteko Bake Konferentzia antolatu zen, bakegintzan ospe handia zuten nazioarteko pertsonekin, hala nola Kofi Annan, Jonathan Powell edo Bertie Ahern. Berriro ere, ETARI eskatzen zitzaion jarduera armatua behin betiko amaitzea, eta Espainiako eta Frantziako gobernuei elkarrizketa eskatzea gatazkaren ondorioez soilik hitz egiteko. Aldi berean, gobernu biei eskatzen zitzaaien elkarrizketa horiei ekiteko, ETAK su-etena iragarri gero. Hiru egun geroago, 2011ko urriaren 20an, ETAK jarduera armatuaren behin betiko amaiera iragarri zuen, eta dei egin zien Espainiako eta Frantziako gobernuei elkarrizketa zuzenei ekiteko, gatazkaren ondorioak konpontzeko (ETA, 2011c).

Amaitu egiten zen horrela 2009an hasitako prozesua, nahiz eta Espainiako eta Frantziako gobernuen aldetik oraindik erantzunik ez den egon.

Ondorioak

ETAk jarduera armatuaren amaiera iragartzeko erabili dituen arrazoiak egiten saiatu gara. Nolabait laburtu beharko balira, zera esan genezake:

- Aukerak ‘nazioartetik’ datoz, neurri on batean. Euskal Herrian gatazka politikoa gertatzen dela onartzea etor liteke aukera horietatik, eta, gatazka konpontzeko, autodeterminazio eskubidearen indarra goraiatzeko da, gatazka bat konpontzeko modu demokratiko sinple gisa aurkezten baita. Horiek denak ETAREN helburuekin bat etorriko lirateke, beraz.
- Mehatxuak, jarduera armatuarekin jarraitzeko eta Ezker Abertzaleak bere lan politikoa egiteko zailtasunekin daude harremanetan. Mehatxu horiek baliogabetu egiten dituzte, gainera, Aukerak, nazioartetik etor litekeen laguntza edo aitortpena derrigorrez jarduera armatutik at izan behar da eta.
- Indarguneak arlo politikoari dagozkio, oro har. Ezker Abertzaleak aurrera egiteko duen potentziala biderkatu egin liteke independentziaren alde dauden beste indarrek aliatuta. Gainera, Aukerak bidera litezke, eta Mehatxuak baliogabetu, lan politikoari dagokion aldetik.
- Ahulguneak, azkenik, arlo militarari dagozkio, oro har, eta politikoari ondoren. Ahulguneak eta Mehatxuak oso loturik doaz, kasu honetan. Hau da, Mehatxuak euren eragina zabaltzen ari direla frogatzen da Ahulguneetan. Ahulgune horiek baliogabetu egiten dute Indargune modura aipatzen zen Ezker Abertzalearen potentziala, eta zalantza handia jartzen dute orain arte jarraitutako bi estrategien inguruan.

Laburbiltzeko, AMIA diagnosi honetan, gure ustez, jarduera armatua izango litzateke gakoa. Izan ere, ETAk eta Ezker Abertzaleak egiten duten balorazioan, jarduera armatuari balio historikoa onartzen zaio, baina zalantza handiak pizten dira momentuko balioaz:

1. Ez da izan nahikoa markatutako helburu estrategikoe-tan aurreratzeko (Nazio Frontea eta negoziazioa).
2. Jarduerak berak oso zail dauka momentuan eraginkorra izateko.
3. Jardueraren jarraipenak ezina egiten du bai kanpoko nazioarteko laguntzaren aukera bai barruko aliantzara-ko eskaintza.
4. Jardueraren jarraipenak, bestalde, oztopatu egiten du, neurri handiz, Ezker Abertzalearen jarduera politikoa, ilegalizazioak direla bide.
5. Jarduera armatuaren luzapenak Ezker Abertzaleko mili-tantziaren desmobilizazioa eragin lezake, ilegalizazioak eta errepresioa direla medio; eta baliteke etorkizunean Ezker Abertzalearen baitan barne zatiketak egotea es-trategia politiko-militarra mantenduz gero.
6. Jardueraren jarraipenak Espainiako Gobernuaren jarre-ra itxia erraztu lezake.

Gure ustez, garrantzi berezia eman behar zaie 1970eko ha-markadatik hona ETAk jarraitu dituen bi ildo estrategikoei, eta horien inguruan egindako balorazioei. Era horretara, 2000ko hamarkadaren amaieran, ETAk egiazta zezakeen:

1. Espainiako Gobernuarekin zuzenean negoziatzeari ze-gokionez: nahiz eta borroka armatua negoziazioak era-giteko aktiborik indartsuena izan, erabilitako presio ar-matua ez zen nahikoa *benetako* negoziatioari ekiteko. Gainera, Estatuak ez zuen erakusten sinesgarritasun nahikorik negoziazio zintzoak aurrera eramateko.
2. Nazio Fronteari zegokionez: Lizarra-Garazitik aurrera, jarduera armatua bera oztopo zen Nazio Fronterako, eta ez laguntza, gainerako indar abertzaleek ez eratzeko arrazoi nahikotzat jotzen baitzuten.

Eta kontrako aldetik, ETAk ere egiazta zezakeen:

1. Independentziaren alde indarrak biltzea ez zela hain utopikoa, Ezker Abertzaleak eta EAK hasitako bidea za-baldu eta sakondu ahal izan delako. Urteak pasatuta, in-

dar abertzaleak berriro banatzen ziren bi multzo nagusitan: EAJ eta ezkerreko koalizioa.

2. Nazioarteko laguntza inoiz ez zela determinantea izango, baina bai laguntza handikoa gatazka politikoa bideratzeko, batetik, eta Espainiaren jokaerari galga ipintzeko, bestetik.

Era horretara, bide batzuen agorpenak, eta berriek eskain zezaketen itxaropenak, eragin zuten, bestelako faktore positibo eta negatiboekin, ETAk 2011ko urrian hartutako erabakia.¶

Erabilitako ETAre eta Ezker Abertzalearen dokumentuak

- Ezker Abertzalea (2004): Orain herria orain bakea, 2004 azaroa.
Euskal Preso Politikoen Kolektiboa (2009): EPPKren agiria, 2009 martxo.
Ezker Abertzalea (2009): Fase politikoa eta estrategia argitzen, 2009 azaroa.
Ezker Abertzalea; EA (2010): Indar politiko independentisten arteko akordioaren oinarri estrategikoak, 2010 ekaina.
ETA (1995): Alternatiba demokratikoa, 1995 apirila.
ETA; PNV; EA (1998): [Izenik gabea], 1998 abuztua.
ETA (1999): ETAre agiria Euskal Herriari, 1999 azaroa.
ETA (2006a): ETAre agiria Euskal Herriari, 2006 martxo.
ETA (2006b): ETAre agiria Euskal Herriari, 2006 abuztua.
ETA (2007): ETAre agiria Euskal Herriari, 2007 urtarrila.
ETA (2008): ETAre agiria Euskal Herriari, 2008 urria.
ETA (2009a): ETAre agiria Euskal Herriari, 2009 urtarrila.
ETA (2009b): ETArekin elkarrizketa, *Gara*, 2009-05-25 (<http://gara.naiz.info/agiriak/entrevista.pdf>, 2012-12-30).
ETA (2009c): ETAre agiria Euskal Herriari, 2009 abendua.
ETA (2010a): ETAre agiria Euskal Herriari, 2010 martxo.
ETA (2010b): ETAre agiria Euskal Herriari, 2010 apirila.
ETA (2010c): ETAre agiria Euskal Herriari, 2010 iraila.
ETA (2010d): ETAre agiria nazioarteari, 2010 iraila.
ETA (2011a): *Zutabe* 113, 2011 apirila.
ETA (2011b): ETAre agiria Euskal Herriari, 2011 uztaila.
ETA (2011c): ETAre agiria Euskal Herriari, 2011 urria.

Postmodernitatea erlijiosoa ote da? José María Mardonesen ikuspuntua

LUZIO URIARTE

Teologian doktorea eta Soziologian lizentziaduna, eta Teologia Fakultateko irakaslea Deustuko Unibertsitatean

Postmodernitatearen inguruan artikulu pare bat agertu berri dira *Jakinen* orrietan, biok Iraitz Urkulok idatziak; lehenengoan, postmodernitatearen planteamendu filosofikoei buruz ari zen eta bigarrenak, berriz, euskal narratiban filosofia horren eragina jorratzen zuen¹. Gogoeta horien egileak ondo asko aipatzen duenez, aroaren izena lauso samarra da, bizitzaren alde asko ukitzen dituelarik, postmodernitatea arnasten dugun airea bezalakoa baita gaur egun: giro horrek inguratuta gaudela, gure bizi guztiari eragiten dio.

Artikulu hau postmodernitatearen beste alde bat ukitzera dator: erlijioarekin duen lotura. Badakigu gure pentsamendu modernoaren ingurumarian agertu den filosofia korronte berri bakoitza erlijioarekin oso kritikoa izan dela gehienetan. Postmodernitateak ere, kritikaren kritika izanik, erlijioari buruzko planteamenduen txikizioa adieraziko zuela espero genezakeen eta, agian, genezake. José María Mardonesek —bai gaur eguneko pentsamenduan, bai erlijioari buruzko gogoetan, aditu ezaguna eta onartua²— arretaz iker-tu du erlijioaren eboluzioa postmodernitatearen giroan. Artikulu honetan, hain zuzen ere, postmodernitatearen eta er-

lijioaren arteko harremanak direla-eta, pentsalari horren gogoetak aurkeztu nahi ditugu, gure testuinguru sozialean eta kulturalean iradokitzaileak izan daitezkeelakoan.

Postmodernitatearen testuinguruan erlijioaz pentsatzean, Mardonesek elkarrizketaren metodoa jarraitzen du, postmodernitateko pentsalari nagusien planteamenduekin topo eta hitz eginez. Orri hauetan elkarrizketa horren fruitua eskainiko dugu, hurrengo pausoak emango ditugula: lehenengo eta behin, elkarrizketa horren testuinguruko zenbait zehaztapen aurkeztuko ditugu; bigarrenik, Mardonesek azpimarratzen dituen ideiak edo puntuak identifikatuko ditugu; hirugarrenik, gure teologoaren ikuspuntu kritikoa jasoko dugu; eta, azkenik, gogoeta horien ibilbidea gure balorazioarekin amaituko da.

Elkarrizketaren testuinguruak

Testuinguruari eskainitako lehenengo parte honetan, postmodernitateari buruz Mardonesek idazten duenaren berri emango dugu, baita korrante horretan aukeratzen dituen mintzakideak ere. Horrekin batera, elkarrizketa hau ehuntzerakoan, gure autoreak dituen zenbait arrazoiren eta galderaren berri emango dugu.

Lanaren aurkezpena eta mintzakideak

Mardones 80ko hamarkadaren amaieran hasten da idazten postmodernitateari buruz, eta bere lehenengo bi lanak 1988koak dira: *Postmodernidad y cristianismo. El desafío del fragmento* izeneko liburua lan sistematikoa eta sendoa da; *El desafío de la postmodernidad al cristianismo* deritzona lan dibulgatzailea. Hirugarren liburua, *Postmodernidad y neoconservadurismo: reflexiones sobre la fe y la cultura* delakoak, alegia, postmodernitatea modernitatearen eremuan jartzen du; hau da, Mardonesek tesizat planteatzen du postmodernitatea modernitatearen inguruan egiten diren interpreta-

zioetako bat dela. Horrez gain, hainbat argitalpenetan sakabanatuta, beste testu eta gogoeta asko plazaratu ditu.

Nietzsche eta Heidegger filosofoak nahitaezko erreferentziak dira pentsalari postmodernisten artean, modernitatearen kritiko bi handi horiei postmodernitateko ordezkari guztiek modu berean jarraitzen ez badiete ere. Oro har, ondoan aipatzen ditugu Mardonesek kontuan hartzen dituen pentsalariak, nahiz eta horietako bakoitzak pentsamendu-bilakaera berezia izan: R. Rorty, P. Sloterdijk, R. Böhme, J. Baudrillard, X. Rubert de Ventós, J. Derrida, G. Deleuze, G. Lipovetsky, J.-F. Lyotard, G. Vattimo, A. Gargani eta V. Vitiello.

Hasieran, hots, postmodernitatearen jaiotzan, Frantziako pentsalari postmodernistek berebiziko eragina izan zuten, nahiz eta, hasiera-hasieratik, beste herrietan ere pentsalari postmodernistak egon. Frantziako intelektual postmodernisten andana ezaguna da —Lyotard, Derrida, Deleuze, Baudrillard, Lipovetsky—, eta Mardonesek askotan egiten du horien aipuren bat. Talde horrek aurreneko abiapuntua du filosofo berrien mugimenduan, 70eko hamarkadan Frantzian sortzen den mugimendu kritiko eta bitxian. Giro intelektual horretan hasi ziren astintzen geroxeago etorriko ziren postmodernitatearen hainbat gai eta ikuspuntu, modernitateari kontrapuntu egiten zietenak. Frantziatik kanpo, Mardonesen ustez, Italiako Vattimok aipu berezia merezi du, eta garrantzia izango du gure ikerlariaren gogoetetan. Gehienbat, marraztutako testuinguru horretan, postmodernitate intelektuala erreakzio bat da, modernitatearen kontrako erreakzioa.

Mardonesek berak aitortzen duenez, bere gogoetak Lyotarden eta Vattimoren lanetan oinarrituta daude, batez ere; Rortyren eta Sloterdijken ekarpenak ere kontuan ditu, baina beste bienak baino gutxiago. Aukera hori egiteko gure autoreak zer irizpide erabili dituen ere adierazten digu: batetik, postmodernitateko pentsalarien artean ordezkari onak izatea; bigarrenik, hainbat eztabaida korapilatsuren azpiko arazoak azaltzeko, argiak izatea; azkenik, Espainiako

gaurko pentsalarien artean eta espainieraz idazten den literaturan eragina edukitzea.

Esandakoaz gain, postmodernitatearekin Mardonesek zabaldu nahi duen elkarrizketa ondo kokatzeko, beste bi gako aintzat hartu behar ditugu. Lehenengoa da Mardonesen pentsamendu sozialaren erreferentzia nagusia: Frankfurteko Eskolaren gogoeta. Bigarren gako, berriz, Mardonesen tradizioa kristautasunean kokatuta egonik, kristautasuna bera da pentsalariaren kezka nagusia, lerro eta gogoeta gehien azpiko galderei eragiten diena. Berak bereganatu duen fede-bizipenean murgilduta, kulturen agertzen diren pentsamendu-korronterik inportanteenekin harreman eta elkarrizketa sakona zabaldu nahi du.

Mintzatzeko arrazoiak eta azpian dauden galderak

Postmodernitatea modan dago 80ko hamarkadaren amaieran, gero eta ezagunago eta zabalduagoa delarik; moda horren azpian ezkututzen den mamiak atentzioa ematen dio gure autoreari. Mardonesek susmatzen du mami hori mendealdeko gizarteari buruzko diagnostiko batekin lotuta dagoela eta, ondorioz, modernitatearen ebaluazio bat dela nolabait. Horrez gain, moda horretan parte hartzen duten pentsalariak eta, bestaldek, aro berriaren iturrian dauden pentsalari aipatuak —gehienbat, Nietzsche eta Heidegger— oso esanguratsuak dira Mardonesen ustez; horrenbestez, pentsamendu iradokitzaile baten aurrean gaudela sumatzera eramaten gaitu testuinguru horrek.

Oinarri guztiari uko egin eta baldintzarik gabeko *desmitifikazioa* gauzatu nahi duen postmodernitateak errotikako ateismo nihilista dakarrela eman lezake. Hori horrela, azpian sortzen diren berehalako galderei heltzea premiazkoa da gure teologoarentzat: kristautasunak badauka aukerarik postmodernitatearekin mintzatzeko? Postmodernitateak egiten duen erlijio-kritikak lagundu lezake kristautasun garbiagoa eta benetakoagoa lortzen? Postmodernitatearen

ateismoa kristau fedearen etsai amorratua da? Bateriaezina ote da Jesukristoren Jainkoarekin? Postmodernitatearen sentiberatasunean, diskurtso teologikoak zer dauka ikasteko? Galdera horiekin guztiekin batera eta elkarrizketa horren ingurumarian, zeintzuk dira kristau teologiaren mugak? Zeri ezin diezaioke uko egin kristau teologiak?

Postmodernitatearen aurkezpena, Mardonesek ikusten duen bezala

Mardonesen postmodernitateari buruzko ikuspegia laburbiltzea da ondorengo lerroen helburua. «Postmodernitate» hitzaren erabilerak azalpen labur baten beharra dauka, nahiko bitxia baita; hori da lehenengo pausoan jorratuko duguna. Aro honen sorrera dela eta, gure autorearen tesia aurkeztu ondoren —bigarren pausoan—, postmodernitateak erakusten dituen zenbait ezaugarri aletuko ditugu. Azkenik, laugarren pausoan, postmodernitateak erlijioarekin erakusten duen lotura jasoko dugu.

Hiztegiari buruzko ohartxo

Ohar bat egin behar dugu hiztegiari buruz. Aro hori izendatzeko erabiltzen den terminologia ez da guztiz finkoa; aitzitik, jatorriz nahiko anbigua ere bada. Lyotardek dio berak hartzen duela postmodernitate hitza garaiko italiar arkitekturatik eta Ipar Amerikako literatur kritika korrante batetik³. Lyotardek argi dauka izen faltsu bat dela edo ezizen bat. Gainera, badaki hitza bera kontraesankorra dela, zeren eta modernitate hitzak oraina adierazten baitu, eta, ondorioz, orainaren ondoan datorrena beste orain bat izango da, eta ez «post-oraina». Vattimok, bestaldetik, postmodernitate hitzak berak dakarren kritika azpimarratzen du, hots, modernitatearekiko jarrera kritikoa⁴.

Postmodernitate hitzaren grafiaz ere badago zer esan, modu ezberdinetan aipatzen baita. Autore batzuek «t»z idaz-

ten dute, beste batzuek «t» gabe. Batzuek postmodernismo hitza nahiago dute; Mardonesek, berriz, *postmodernitate* hitza aukeratzen du gehienbat. Badirudi «-ismo» atzizkiak kutsu negatiboa ematen diola adierari; ostera, espainierazko «-dad» atzizkiak edo euskarazko «-tate» atzizkiak ezaugarri positiboa azpimarratzen dute. Beraz, badugu susmorik esateko Mardonesen hitz-aukeran balio-aukera bat dagoela, hots, begirunez eta jarrera positiboz aztertu nahi duela korronte berria.

Etimologiak etimologia eta izenak izen, postmodernitatea, esan dezagun aurrera egin baino lehenago, jarrera bat da, bizitzeko jarrera; horrenbestez, bizitzan kokatuta egoteko modua da: bizitza bizitzeko modu bat.

Jarrera horri testuingurua emateko, 80ko hamarkadara joan behar dugu; hamarkada horretan kaleko giroa eta ardura aldatzen hasten da; lehengo giroa, idealez arduratuta zegoena, helmuga handien alde lan egiteko prest zegoen belaunaldia, desagertuz doa eta beste haize bat atzematen da. 80ko hamarkadako gazteei so egiten bazaie, gizartea aldatzeko ideal handiak, xarma galduta, ikusezin bihurtzen dira belaunaldi berriarentzat, nolabait. Bestelako ardurak sortzen dira. Ardura berrien artean, gorputza erdi-erdian dago: gorputza eta bere estetika; gorputza, osasuna eta osasunarekin lotuta dauden atal guztiak —kirola, elikadura, lasaitasun-ariketak—; gorputzaren zainketari eskaintzen zaion arreta berezia. Estetikarekin oso lotuta, janzkera dugu; janzkeraren estilo barrokoa, eredu klasikoak apurtzen dituen. Horri esku emanez, janzkera-moden eragina.

Modernitatearekiko lotura eta etendura

Mardonesek, postmodernitateko pentsalarien lanak irakurtzetik, ondorio orokor bat ateratzen du, bere lan-hipotesi bihurtzen dena: postmodernitatea modernitatea bera da. Modernitateak bere mitoak garatzen dituenean, muturre-raino eramatean, modernitateak bere (auto)iruzurrarekin

topo egiten du; hain zuzen ere, kontzientzia horixe bera da postmodernitate. Horren harira, postmodernitateak egiten duena soila da: modernitatearen joera bere azken sustraie-tara eraman. Aieneka ibili gabe, zentzurik, baliorik, oinarri-rik gabeko errealitatean kokatu eta bizi behar dugula onar-tzean datza postmodernitateak egiten duen aukera. Postmo-dernitateak alde askotan eta aldi berean erasotzen dio mo-dernitateari: ezagutza, etika, estetika eta politika.

Orain, modu sinbolikoan esanda, postmodernitatea mo-dernitateak gauzatzen duen sekularizazioaren sekulariza-zioa da, hots, bigarren sekularizazio bat. Zertan datza hori? Modernitateak mito erlijiosoak gainditzeko desira erakutsi arren, bera ere mitoz eta narrazio handiz josirik dago. Mo-dernitateak bere narrazioa(k) arrazoian oinarritu nahi d(it)u, baina, berez, arrazoimenetik harantzago daude modernita-tearen narrazio fundatzaileak. Hor ditugu askatasuna, zu-zenbidea, elkartasuna edo beste hainbat narrazio, adibide gisa. Postmodernitateak amets horietatik esnatu eta urrun-du nahi du; modernitateak jartzen dituen mitoen orde, ez du beste mitorik garatu nahi; mito guztiak gainditu nahi di-tu. Modernitatearen planteamenduak munduak zentzu bat daukala onartzea eskatzen du, eta hori da, hain zuzen ere, postmodernitatean zalantzan jartzen dena. Zentzu horretan inportantea da gorago egindako baieztapena, hots, postmo-dernitatea bigarren sekularizazio bat dela.

Gauzak horrela planteaturik, erlatibismoa eta eszeptizis-moa postmodernitatearen nahitaezko kideak izango dira bere bidaian; erreferentziak galtzen dira, helburu kolektiboek ez daukate zentzurik; zentzu orokor bat bilatzea ahalegin zapuztua da, zeren eta gure arrazoinamendu-gaitasunetik kanpo baitago. Izan ere, arrazoinamenduaren bide horreta-tik abiatzen garen bakoitzean, amets baino ez dugu egiten, eta, gainera, gaiztoak diren ametsak, azken batean; gure ametsak lokamuts bihurtzen dira, batez ere behin betiko helburuak asmatzen ditugunean, ezen, helburu infinitu ho-rien izenean, sekulako basakeriak egiten baitira gizakiaren

historian. Eta modernitatearen izenean egiten diren txiki-zio horiek ez dira kasualitate hutsa, baizik eta helburu absolutu horien ondorioa; eta, azken batean, astakeria horiek legitimatu egiten ditu. Hori dela eta, narrazio handi horiek botere nahiaren alibi baino ez dira.

Hori horrela, mundua mugatua dela onartzean datza bidea; beraz, gizakiak bere burua zatian kokatu behar du; osotasuna gizakiarentzat ezina delarik, bilatzen duenean, ondorioak oso dramatikoak dira; mundua zatikaturik dago eta puskan bizitzen ikasi behar du, une bakoitzak ematen duena onartuz, egoera bakoitzak dakarkiona hartuz, beste itxaropenik gabe.

Hortaz, postmodernitateak planteatzen duen arazoa ez da kokatzen besterik gabe ezagutzaren eremuan, bestelakoetan baino: etika, estetika eta politikaren eremuetan guztiz sartuta dago. Azken batean, modernitatearen azpisistemak —ekonomikoa, politiko-administratiboa eta kulturala— dira gizadia egoera larri honetara ekarri dutenak, eta, hortaz, zibilizazio-krisia sorrarazi.

Ilustrazioaren ideal handiak —askatasuna, senidetasuna, berdintasuna, razionaltasuna, bizitza zorionsua, eta abar— ekonomia kapitalistaren balioen menpean jarri dira. Modernitatea bilakatu den bezala kontuan izanik, bultzatu den helburu nagusia ekonomikoa izan da, eta helburu horretan aukeratu eta indartu diren balioak begi-bistan daude: funtzionalitatea, eraginkortasuna, hierarkizazioa, lehiakortasuna, errendimendua eta diziplina. Balio horien arabera antolatuta da mendebaldeko gizarte modernoa. Planteamendu horren uberan, gauzak edukitzea —gauzen jabea izatea, jabeago pribatua— baliorik inportanteenetakoa bihurtu da. Edukitze hori izatearen gaintetik gailentzen da. Gizakia ekoizle eta kontsumitzaile bihurtzen da, merkatuan zenbaki bilakatzen da, dena zenbatzen baita —zenbatu ezin daitekeena, logika horretan, ikusezina da, baliorik gabekoa.

Sistema ekonomiko kapitalista horri lotuta, sistema administratiboa agertzen da: burokrazia, estatu modernoa ezau-

garritzen duen antolamendua. Ekonomiaren eta burokraziaren logika aipatzen dugunean, mendebaldean gauzatu den modernitatearen bihotzean gaude. Abantailak abantaila, postmodernitateak gogoratzen digu logika horrek desiragarriak ez diren zenbait ondorio ekarri dituela. Horien artean, Mardonesek bi azpimarratzen ditu: batetik, bizitza publikoaren eta bizitza pribatuaren arteko etendura; eta, beste aldetik, giza harremanen kolonizazio teknikoak. Lehenengo ondorioari eutsiz, kontuan izan behar dugu bizitza publikoaren kudeaketa, oso konplexua denez gero, ez dela batere gardena herritarrentzat eta, ondorioz, herritar arruntak mundu pribatura ihes egiten duela. Horrenbestez, egoera hori alienazio-egoera bat da. Bigarren ondorioari helduz, giza harremanen mundua, berez elkarriketari dagokion logikaren arabera funtzionatu beharko lukeena, logika teknikoak gero eta kolonizatuagoa da.

Sistema kulturalari dagokionez, modernitatea mundu-ikuskerak batuaren mina da, errealitatearen interpretazio bakarra ahalbidetzen duen *Weltanschauung* delakoaren bila dabil. Erljioa bazterturik, razionaltasunean bilatu du batasun horri, razionaltasun positibistan batez ere; modernitatearen bilakaerak, ordea, ondo asko erakutsi du arrazoi positibistak ezin dezakeela mundu-ikuskerak bateratua eta osoa eskaini. Postmodernistak arrazoi-aniztasun horretan jaio dira eta eroso sentitzen dira. Ez dute ikusten zertarako egin arrazoi ezberdinen arteko elkarriketa. Hemen ere, sekularizazioaren sekularizazioa bultzatu nahi dute. Razionaltasuna anitza da, eta aniztasun horri hizkera-aniztasuna dagokio. Hizkera-aniztasun horrek adierazten du mundua zatikaturik dagoela, oinarritzko batasunik ez dagoela gure esku.

Izan ere, postmodernitateak, modernitateak ekarritako kontraesanen berri emanez eta modernitatearen zoru berebean egonez, beste jarrera bat garatu nahi du, eta jarrera horretan agertzen da etendura. Modernitatearen arrazoiak mundu trinko eta ziur bat eraiki nahi du eta bertan bizi; horretarako gizakiak daukan bitartekorik inportanteena arra-

zoimena da: horretan oinarritu behar du bere benetako askapena eta aurkitu bere zoru finkoa. Baina modernitatearen arrazoiazen eraikuntzak bere mugak erakusten ditu berehalaxe, errealitate guztia arrazoimenaren bitartez finkatu beharrean, ustekabeko fenomenoak agerrarazten baitu: ez-ziurtasuna. Ziurtasuna bilatzen duen modernitateak, azkenean, ziurgabetasun-egoera eraginez, bere paradoxetako bat erakusten du: oinarri finkoa bilatuz, inolako oinarriren gabeziarekin topo egiten du. Paradoxa horrek zabaltzen dituen kritikarako ateak postmodernitateko pentsalariek zeharkatzen dituzte. Arrazoimena oso ahula da, eta askapen-bide batean sartu beharrean, sarri askotan, arrazoimen-gaitasun horrekin, giza holokaustoan, aldats behera abiatzen da gizadia. Testuinguru horretan, postmodernitatearen aroa zabaltzean, subjektuaren krisia eta subjektibitatearen zabalpena nabarmentzearekin batera, emozioak eta sentimenduak nagusitzen dira. Dena den, batzuek pentsatzen dute egoera hori aukera berri bat dela erlijioarentzat, edo, behinik behin, beste aro bat zabaltzen dela.

Postmodernitateak bere burua aukera berrizat aurkezten badu ere, erronka zaharrak ezkutatzeko azpian. Erronka zahar horientzako erantzun bila, askapen-bideak igarri eta aztertzen jarraitzen du postmodernitateak, haztamuka bada ere.

Postmodernitatearen ezaugarri nagusiak

Sintesiak egiteko eta ideiak ordenatzeko, trebetasun handia oso erakusten du Mardonesek. Autore postmodernistak ezberdinak eta ezaugarri askotakoak izan arren, Mardonesen irakurketek eta aurkezpenek sintesira jotzen dute beti. Irakurketa orokor horretatik, gure autoreak eskaintzen digu pentsalari postmodernisten lanetan agertzen diren zenbait ezaugarri: aro berri hori ezaugarritzen duten zertzeladak. Mardonesen ordenari jarraitzen diogu zertzelada horiek aurkezterakoan⁵:

Arrazoimenarekiko *deslilurapena*⁶

Modernitateak konfiantza du arrazoimenean; postmodernitateak arrazoimenaren zeregina ukatzen ez badu ere, beste modu batean ulertzen du: arrazoimena ezin daiteke letra larriz idatzi dagoeneko, letra xehez eta dardaratsuz baizik. Osotasuna azaldu nahi zuen arrazoimena —ezina ez ezik, desiragarria ere ez denez gero— postmodernitateak sekularizatzen du. Hortaz, modernitateak fedea eta esperantza arrazoimenean jartzen dituen bitartean, postmodernitateak arrazoimenarekiko *desliluratze* bete-betea erakusten du.

Pentsatzeko eredu berriaren proposamena

Modernitatearen arrazoimenarekiko *deslilurapena* dela eta, postmodernistek dioskute pentsatzeko eredia aldatu behar dugula; horrekin batera, bizitzeko moduan ere errotiko aldaketak egin behar ditugu. Mardonesek bost ezaugarri nagusi ikusten ditu postmodernitatearen pentsamendu-eredu berri horretan: gozamina, kutsadura, erresistentzia, adi-adi egotea eta, azkenik, subjektuaren eta objektuaren eredia gaingitzea:

a) Gozamina da postmodernitatearen pentsamendu-eredu berriaren lehenengo eta oinarritzko ezaugarria. Ezaugarri horrek berekin dakar berritasun bat; neurri batean, hitz hori postmodernitatearen gako-hitz bihurtuko da.

Postmodernitatean gozamina da pentsamenduaren mui-na; beste helbururik bilatzen ez duena eta, hortaz, modernitatearen arrazoiak azpiratu ezin duen pentsamendua.

b) Pentsamendu kutsatua hizkera-joko aniztasunari zabalik dagoen pentsamendua da. Modu horretan, jakintzaren eta bizitzaren mundu ezberdinetatik bidaiatu daiteke aurre-irizpide finkorik gabe. Inolako ziurtasunik gabekoa delarik, alde-rrai dabilen pentsamendua dugu postmodernitatearena.

c) Erresistentziaren pentsamendua. Teknika da, hain zuzen ere, modernitatearen arrazoien fruiturik gorena. Mo-

dernitateak dakarren teknikaren zibilizazioaren aurrean, erresistentzia da zabaldu behar den jarrera, kontuan izanik modernitateak bere hondamendiarekin batera gizateriarena ere badakarrela.

d) Adi-adi dagoen pentsamendua. Gauza bakoitza, errealitate bakoitza, lehen aldiz gertatzen da; subjektua errealitatearen aurrean, ondorioz, adi-adi kokatzen da, dena gertatzeaz baitago, dena inauguratu egiten baita une bakoitzean. «Izate»a estreinatzen da «entitate» bakoitzean. Errealitatea ezagutzea estreinatzeko jarduera denez gero, ezagutzaileak ez du errealitatea menperatzen; bestela dago: errealitatearen aurrean begiak zabalik.

e) Ezagutza-eredu berria. Postmodernitateak, munduaz pentsatzerakoan, Subjektu-Objektu eredu klasikoa gainditzea errebindikatzeko du: subjektuak *objektibatze*ari uko egin behar dio eta une bakoitza bere baitan bizitzea onartu behar du. Bakoitzak goza dezake bere unea autonomia betean eta, hor, bere sormen eta ahalmen guztiak jokoan ipin ditzake.

Narrazio handiei uko egin

Pentsalari postmodernoek ez dute bilatzen narrazio handiak desagertzea, baina ez dute narrazio horien balio unibertsalean sinesten. Narrazio horiek, beharrezkoak izan arren, erlatiboak dira eta, erlatibotasun horretan ulertzen ditugun neurrian, onuragarriak dira. Baina absolutu bihurtzen direnean, gizateriaren etsai bihurtzen dira. Narrazio handiak barik, narrazio txikiak bultzatu behar ditugu, pentsalari horien ustez. Narrazio txikiek oroipenak dakartzate, errealitatearen beste dimentsioen *ebokazioa*, baina ez dute errealitatea irudikatzen inolako asmorik. Susmoaren pentsalariaren azpian edo atzean ezkutatzen diren narrazioak ere ukatzen dituzte, azken-azkenean, askatasun-narrazioak baitira, emantzipazio-narrazioak. Ukazio horretan, Habermasen proposamena ere sartzen da, hots, kontsentsuaren arabera egiten den elkarriketaren proposamena.

Oinarriaren galera onartu

Arrazoimena funtsik gabe geratzen da. Ez dago zimentaririk, ezta orientatzeko ardatzik ere. Modernitatearen arrazoa oinarri horien bila ari zen, eta, kritikoa izan arren, oinarri horiek aurkituko zituela espero zuen; modernitatearen arrazoa oinarrien mina eta desira da. Postmodernitateak, berriz, oinarri horien ukazioa onartzen du eta min hori galtzen du. Are gehiago, galera horretan, itzelezko tragedia ikusi beharrean, aukera bat hautematen du, ezagutzeko beste modu bat. Aniztasuna da gakoa «episteme» berri horretan: dena da mugarik gabekoa, dena da iraunkortasunik gabekoa, dena da erlatiboa, dena da anitza. Baina egoera horrek, nahitaez, ez gaitu kaosera eramaten. Askatasuna ahalbidetu dezake, kreatibitatea areagotu dezake aro berri horrek.

Behin-behinekotasunaren etika

Modernitateak egiten duen etikaren planteamendua urtu egiten da postmodernisten ikuspuntutik. Metafisika ukatzen denez gero, historia amaierarik gabe geratzen denez gero, giza ekintza xedatzen duen arau-ahalbide oro desageritzen da. Etika unibertsalaren bilaketa ezinezkoa da postmodernitatearen planteamenduan. Ezinezkoa da, eta, gainera, ez da desiragarria. Etikaren munduan ere ez dago absoluturik, eta, hortaz, absolutu bila ibiltzea lan alferra ez ezik, arrisku larria ere bada.

Horregatik, pentsalari postmodernistek, behin eta berriro, errepikatzen digute kontu handiz ibili behar dugula etikaren kontsentsu unibertsalak bilatzen dituztenekin. Lekuan lekuko eta unean uneko adostasun etikoak bilatu behar ditugu. Etika-eredu horrek ez dauka printzipio handirik, eta, ondorioz, ez du bilatzen behin betiko itun iraunkorrik: *carpe diem* delakoaren proposamena berriro. Planteamendu etiko horrekin oso lotuta dago «elkarrizketa ahul»aren pro-

posamena⁷. Etikaren oinarri finkorik ez dagoela onartu behar dugunez gero, jarrera guztiak eta proposamen guztiak ziurtasunik gabe egiten dira. Printzipiorik gabe, elkarrizketa bera da helburua, eta unean uneko behin-behineko adostasunak lortu behar dira. Azken batean, elkarrizketa ahula etika ahularekin lotuta dago: bere arrazoiez eta oinarriez gutxi dakien etika ahula.

Historiaren amaiera

Historiaren zentzua defenditzeak narrazio handien logikara eramaten gaitu. Narrazio handiek historiaren helburua ematen digute, eta helburu horrek zentzua ematen dio historiari. Baina narrazio handietan ez badago sinesterik, historia helbururik gabe geratzen da: zentzuz, umezurtz bihurtzen da.

Agian, mendebaldeko kulturaren dagoen narrazio handirik eraginkorrenetako bat garapena da: denborak aurrera egin ahala, gizakia eta gizateria garatu egiten dira. Postmodernitateko intelektualek ez dute garapenean sinesten. Historia ez doa inora, historiak ez dauka helmugarik. Historiaren filosofiari adio egiten diote intelektualok. Era berean, agintzariei edo promesei muzin egiten diete postmodernistek, zeren eta, agintzari bakoitzak etorkizunarekiko funtzionalismoa dakarrenez gero, oraina galtzen baitugu.

Bizitza estetika bihurtzen da: bizitza-izaera estetikoaren aldeko aukera

Aipatutako ezaugarriak kontuan izanik, arteak zeregin berezia duela ulertzen da; arrazoimenak azaldu eta adierazi ezin duena arteak jorra dezake. Baloratu behar dugu artearen adierazpena. Edertasuna balio bat izan da betidanik —ikus-puntu tradizionalan—, bere baitan baliotsua den eremu preziatua, beste eremu baten funtzioan ez dagoen balio autonomoa. Hala ere, kontuan izan behar dugu baieztapen ho-

ri arazotsua dela merkatu kapitalistaren logikan. Esandakoa esan arren, artelan baten aurrean sortzen den plazera ez da lerratzen kontsumo hutsera. Arte tradizionalan dagoen kontzeptua da arte erabatekoa edo integrala. Modernitatearekin *abangoardismoa* sortzen da, estetika tradizionala apurtu nahi duen korrontea.

Postmodernitateko artista ez dago arau estetiko jakinen menpean; ez dago arau estetikorik, artistek ipini eta garatzen dituzte arau estetikoak. Planteamendu horren harira dator Lyotardek aipatzen duen «sublimearen estetika». Estetika hori gogora ekartzeari lotzen zaio —*ebokazioa*, oroitzapena eta deia batera— eta aurkeztezina dena sentiarazten du.

Proposamen estetiko horrek alde politikoa ere badu, sistemarentzat integrazina izan nahi duen neurrian, modernitatearen logikari aurre egiten dion estetika, hain zuzen ere.

Estetika, proposamen politikoa den heinean, ekintza da. Baina, ekintzen bidez, sistema guztirako alternatiba osoa izatea ez dute bilatzen postmodernistek. Ildo horretatik, «mikrologien politika» proposatu eta bultzatu nahi dute: ekintza txikiak, mugatuak, baina, irmoki, sistemaren kontra doazenak. Bazterrean egiten diren ekintzak eta, aldi berean, baztertuen ekimenak dira. Postmodernisten ustez, horixe da sistemaren kontra egin daitekeen gauzarik eraginkorrena; ekintza horiek, sistemak berak bereganatu ezin dituen neurrian, sistema ahulduz doaz. Une horretan —80ko hamarkadaren amaieran gaude postmodernitatearen inguruko idazki horiek argitaratzen direnean— sortzen diren giza mugimenduen planteamenduekin oso lotuta ikusten du Mardonesek estetikaren proposamen politiko hori.

Erlijioaren inguruan

Postmodernitateak alde atea erakusten duelarik, erlijioari buruz *susmoaren maisuek* egindako kritika zorrotza are zorrotzago bihurtzen du pentsamendu korronte honek. Erljioarentzat aurkezpen hori beldurgarria izan arren, hitz

egiteko aukera egongo ote da? Zerbait ikasteko bidea eman-
go du elkarrizketa horrek? Horra hor Mardonesen susmoa,
bere idatzietan hipotesiaren era hartzen duena. Lehenengo
begiradan, badirudi erlijioa eta postmodernitatea ikuspun-
tu adostezinak direla. Azalean agertzen denaz gain, azalaren
azpian irakurrita, Mardonesek susmatzen du postmoderni-
tateak ez duela ukatzen erlijioaren muina. Baina ikuspuntu
postmodernistak badu —edo, agian hobeto, izan dezake—
eragin handiko erlijio-planteamendua; hots, ez da erlijioare-
kiko neutrala. Hurrengo lerroetan, postmodernitatearen eta
erlijioaren arteko harremanak aurkeztuko ditugu, betiere
Mardonesek ikusten dituen bezala. Jakina, ohartarazirik da-
goen bezala, gure autorearentzat kristautasuna izango da in-
teres nagusia hartzen duen erlijioa. Lehenengo urrats batean,
erlijioaren aurrean postmodernitateak duen jarrera kritikoa
aurkeztuko dugu: postmodernitatearen mesfidantzaren arra-
zoiak. Bigarreanean, kristautasunari dagokionez, postmoder-
nitateak duen jarreran zenbait kritika eta aukera agertzen
dira.

Postmodernitatearen ateismoa: modernitatearen ateismoa kolokan jarri

Pentsamenduaren errotiko sekularizazioa da postmoder-
nitateak erlijioari luzatzen dion erronka⁸.

Neurri batean, postmodernitateak onartzen du Jainkoa hil
dela aldarrikatzen duen baieztapena. Baina, paradoxikoki,
postmodernitatearen bertsioan, baieztapen horrek dakarren
ateismoa ez da bateratzen modernitatearenarekin. Erlijioa-
ren kasuan ere, modernitatearen jarrera eta ikuspuntua sa-
kondu eta erroetara eramaten du postmodernitateak; mo-
dernitateak erlijioari egiten dion kritika abiapuntutzat har-
tzen du postmodernitateak, baina haratago doa.

Modernitatean, erlijioari kritika sakona egiten zaiolarik,
«Jainkoaren heriotza» dekretatzen da. Baina kritika zorrotza
eta gupidagabea izan arren, nostalgia-kutsua geratzen da

modernitatearen gogoeta kritikoetan. Erlijioa eta erlijioaren jainkoa(k) desagertzen dira, baina jainko horiek gizakiaren garapen betea oztopatzen dutelako. Modernitatearen ateismo humanistaren tradizioetan erlijioa kritikatzeko da, errealtatearen zentroan gizakia ipini nahi baitute. Postmodernitate ez dator bat modernitatearen nostalgiarekin, absolutu baten truke ez baitago zertan beste absoluturik ipini. Postmodernistak ez datoz bat existentzialismo ateoa islatzen den bizipen tragikoarekin ere. Existentzia oinarri fundatzailerik gabe geratu da, baina, postmodernisten kasuan, baiez-tapen horrek ez dakar inolako nostalgiarik. Kritikaren bidez Jainkoa desagertzeko arrazoia ez da lerratzeko beste helburu batera; postmodernitatearen kritikaren helburua ez da ezer birbereganatzea.

Postmodernitateak egiten duen estetika-planteamenduan, erlijio-kritika sakontzeko beste zerro bat sortzen da. Aurreko paragrafoetan esan dugu postmodernitatearen estetika sublimearekin lotuta dagoela; eta gogoratu behar dugu, «sublime» hitza erabiltzen denean, aurkeztezinak eragiten duen bizipenari buruz mintzatzen ari garela. Planteamendu horrek, erlijioaren eremuan aplikatzen denean, Jainkoaren —absolutuaren— irudirik ez izatea dakar, Jainkoaren aurkezpen edo irudi oro kritikagarria da eta. Logika horri jarraituz, absolutuari buruz mintzatu nahian, bide negatiboa baino ezin daiteke erabili; zer ez den esan genezake, baina ez, ostera, zer den.

Postmodernitateak erlijioari egiten dion kritika, modu horretan planteaturik, hots, Mardonesek planteatzen duen bezala, idoloen kritika bihurtzen da. Baina kontura gaitetzen fede-bide bakar bat besterik ez dela geratzen: mistika. Absolutuaren aurrean isilik egon behar da, zeren eta esaten den guztiak idolotriari jausteko arrisku nabaria baitu. Kontenplazioa, isiltasun galdetzailea, aztarnen aurrean —absolutuaren presentzia ez dena, bere oinatza baizik— igarle izatea da gailentzen den jarrera. Bizitzaren une bakoitza absolutuarengana zabalik egon liteke, une bakoitza behin betiko-

ari eta oinarri-oinarrikoari lotzen baitzaio. «Une bakoitza» esapidea oso garrantzitsua da, esapide horretan orainaren balioa azpimarratzen baita: orain eta hemen bizi, orain eta hemen gozatu.

Esandakoa aintzat hartzeak zenbait ondorio dakartzkigu:

a) Jainkoaren inolako irudikapenek ezin du islatu Jainkoa bera dena; Jainkoa edozein irudikapenez haratago dago beti, ezin bilduzkoa da inolako iruditan. Jainkoaren eta gure kontzeptu guztien artean saihestu eta bete ezin daitekeen amildegi bat dago.

b) Adierazpen erlijioso guztiak, guztiz ondo pentsatuak eta arrazoituak izan arren, «pentsamendu ahula» deritzonengan kokatu behar ditugu.

c) Jainkoaz egin daitekeen edozein *objektibizazioz* haratago, «pentsamendu ahula» deritzona onartzeak Jainkoaren absolutura zabaltzea ekar dezake. Hortaz, Jainkoaren doakotasuna onartzen dugunean eta Jainkoa bera ezertan ere ezin daitekeela *funtzionalizatu* baieztatzen dugunean, Jainkoa modu esperimentalean ezagutzeko ateak zabaltzen ari gara. Horixe da postmodernismoan Mardonesek ikusten duen Jainkoarenganako bidea.

Kristautasunarentzako kritika eta aukera

Esperientziari lehentasuna emateko proposamen esanguratsua egitean, postmodernitateak erlatibizatzen du modernitatearen arrazoia, erlatibizatze horrek eszeptizismo hutsean erortzea esan nahi ez badu ere. Arrazoimenari zentraltasuna kentzeak ahalbidetzen du ezagutzeko beste bide batzuen sorrera eta beste bide batzuetatik ibiltzea, esperientziarekin lotuta dauden bideak, hain zuzen ere.

Misterioa, kontzeptu bihurtu beharrean, esperimentatzeko gonbidapena da, kontzeptuarekin baino esperientziarekin lotuago baitago: hitzean baino hobeto bizipenean atzematen da. Ildo horretatik, absolutu denari buruz mintzatzetik ez dagoenez, isiltasuna geratzen da.

Esandakoa aintzat hartuz, misterioaz argitasunen bat lortu nahian dabilentzat, pentsatzea ez da bide egokia izango, kontenplatzea baizik; hain justu ere, kontenplazioa errealitatearen bizipen berezia da. Errealitatearen aurrean jasaile delarik —eta, bestaldetik, errealitatea bere baitan atzeman nahian—, kontenplatzeak zerikusia dauka isilik begiratzearekin, isilik adi egotearekin, isilik galtzearekin eta erantzun isila itxarotearekin. Izan ere, arrazoimen eragile eta sailkatzailearen ekintzek eragozten dute kontenplatzea. Bizitzari bere horretan uzten bazaio, poesia eta erlijioa berez sortuko dira, inolako ahaleginik gabe. Kristautasunaren tradizioan oso garrantzitsua da gogoeta hori, fedea, lehenengo eta behin, bizi egiten baita, eta gero formulatu.

Jainkoa, absolutua delarik, esperientzian azaltzen da, baina ez dago gatibu kontzeptuetan. Gorago ikusi dugunez, esperientzia hori sublimearen estetikari lot dakiok, eta, erlijioaren arloan, idoloak garbitzeko deia izateaz gain, Jainkoarekiko bizipen berezia izan daiteke. Gogoeta horren testuinguruan, sublimearen esperientzia eta pobreen Jainkoa erlacionatzen ditu Mardonesek.

Nire ustetan, irudi ederren kontsolamenduei muzin egiteak eta aurkeztu ezina dena iradokitzeak aurkezpen berriak egiteko bidea jorratzen du (kontuan izanik helburua ez dela forma horien gozamenduan geratzea, zerbait aurkeztu ezina dena badagoela sentiaraztea baino). Jorratze hori pobreen Jainkoaren kristau planteamenduari lotzen zaio (Lk 4, 18-19; Mt 11, 25)⁹.

Ildo horretatik, Mardonesek atzematen du Biblian —Itun Berrian, batez ere— Jainkoari buruz agertzen diren zenbait irudik —txiroei eta apalei lotzen zaizkienak, gehienbat— kutsu postmodernista daukatela, edo, behinik behin, postmodernitatearen planteamenduan ondo sartzen direla.

Bestaldetik, postmodernitatea modernitatearen kritikari latza delarik, modernitatearen proiektuarekin batzen den kristautasuna gogor astinduko dute pentsalari postmodernistek. Jakina, horrek ez du esan nahi pentsalari horiek ho-

beto onartzen dutenik kristautasun premodernoa. Hartara, postmodernitateko pentsalarien artean, ez daude ondo ikusita gaurko kristautasunak egin dituen ahaleginak mende baldeko gizarte modernoarekin hitz egiteko eta hurbiltasuna bilatzeko. Elkarrizketa saio horren azpian, modernitatearen arrazoi absolutuaren arriskua ikusten dute pentsalariok. Izan ere, gizarte-proiektu jakin baten mendean kokatzen den erlijioaren egoera ikusten dute elkarrizketa horretan: azken batean, erlijioaren planteamendu *funtzionalistaren* aurrean gaude.

Aurreko paragrafoetan esandakoak beste gai batera eramaten gaitu, gaur egun saihestezina dena: aniztasuna. Nihilismo positiboak, sinesmen ahulak, esperientziari lehentasuna emateak aniztasunaren arazoa planteatzen dute, bi eremutan islatzen dena: erlijio bakoitzaren barnean eta erlijioen artean.

Erljioa eta postmodernitatea: Mardonesen ikuspuntu kritikoa

Pentsalari postmodernoen gogoetekiko leiala izan nahi duenez gero, Mardones saiatzen da deskribatzen, ahalik eta zehatzen, pentsalari horien planteamenduak. Baina gure autorea ez da laburpen-lanean geratzen, berea ez baita lan tekniko neutrala egitea; bere balorazioa orriz orri, autorez autoren tartekatzen da. Batzuetan, modu sistematikoan egiten du balorazioa; besteetan, berriz, pentsalariak dituzten planteamenduen azalpenaren harira tartekatzen du bere hitza. Guk, hurrengo lerroetan, Mardonesek egiten duen balorazioa modu sistematikoan jaso nahi dugu. Horretarako, barreiatu dauden balorazioak sailkatu ditugu. Oro har, gure sailkapena oso soila da: ekarpen positiboak eta, bestaldekik, kontuz hartzekoak. Sailkapen horietako bakoitzean, ideiak taldekatzeko ahaleginak egin ditugu. Neurri batean, lehenago esandako zenbait ideia eta planteamendu errepikatzen arren, orain, balorazioa da aurkezteko irizpidea.

Ekarpen positiboak

Mardonesen ikuspuntuan, hasieran pentsa zitezkeenak baino ekarpen gehiago egiten dizkio postmodernitateak erlijioari; besteak beste, hurrengoak jasotzen ditugu.

Misterioarekiko begirunea: arrazoimenaren esparruan sartzen ez den misterioa

Arrazoi ilustratutik —absolutu bihurtu den arrazoitik— alde egiteak zabaldu eta erraztu dezake misteriora hurbiltzeko bidea. Postmodernitatearen sentiberatasun berriak, zabaltzen den neurrian, oztopa dezake —zenbaitetan, saihesteraino ere— modernitateak bultzatzen duen planteamendu *funtzionalistaren* eskeman sartzea. Bereziki, erlijioaren kasuan, sistemaren menpean funtzionala eta zerbitzaria den erlijio-mota gainditzen lagun dezake aro berriaren planteamenduak. Beraz, erlijioa bere baitan balioa dela azpimarratzeko gonbidapena izan daiteke postmodernitatea: ezeren menpean edo ezeren zerbitzuan ez dagoen balio berezia eta autonomia. Funtzionalismoa gainditzea bilatzen duen neurrian, proposamen berriak errealitatearen hondoan datzan misterio esanezina atzematen lagun diezaguke. Paradoxikoa iruditu dakigukeen arren, pentsalari berri hauek, metafisikari egiten dioten kritikarekin batera, jarrera mistikoak bilakatzeko joera erakusten dute.

Modernitateak egiten duen saiakera menperatzailea baztertuz, postmodernitatea gogorapen bat, ohar bat —agian, oihu bat— da erlijioarentzat: errealitatearen azken sustraia izendaezina da. Ondorioz, misterioak izena hartzen duenean, kontuan izan behar dugu —gogorarazten digute— izen —kontzeptu— horretan ez dela misterioa biltzen, kontzeptuaren zirrikituetatik, isilik, ihesi doala baizik. Beraz, teologiak zeharka dezakeen bide nagusia bide *apofatiko*a da. Bide horretan, berriz, arrazoimenarentzat ezinezko diren esperientzia berriak zabal daitezke.

Arrazoimenetik haratago, dastamena gailentzen da. Misterioa kontzeptuen esku ez badago ere, dasta daiteke. Dastamenari garrantzia ematea esperientziaren lehentasunarekin lotuta dago; hain zuzen ere, postmodernitateak indartzen duen lehentasunarekin. Dastatu ahal izateak eta esperimintatu ahal izateak jardun —eta jarrera— bereziak eskatzen dituzte, arrazoimenaren menpe ez daudenak: isiltasuna, kontenplazioa, pasibotasuna, barneko zabaltasuna, eskuzabaltasuna... Ikus dezakegunez, jardun horiek pasiboak dira, eta, jardun horietan, subjektua hartzailea da, zerbait hartzeko prestatzea baita bere zeregina. Modernitatearekin batera etorritako garapen zientifikoa eta teknologikoa dela kausa, esperientziaren bide horrek baztertzeko joera nabaria jasan du, nahiz eta kristautasunaren historian oso ezaguna eta esanguratsua izan. Postmodernitateak bultzatzen duen gozamena, testuinguru horretan jasorik, oso proposamen iradokitzailea da: misterioa gozatzeko gonbidapena, nolabait. Ildo horretan, kristautasunak daukan doakotasuna azpimarratzen da.

Mardonesen gogoetan, postmodernitatearen azpimarratze hori ez da konpromiso sozial eta politikoarekin kontrajartzen nahitaez, baina konpromiso hori ez da berez sortuko. Ataka honetan, sintesi berriak egiteko premian gaude: dualismorik gabe, polarizaziorik gabe, lotu behar dira, besteak beste, kontenplazioa eta konpromisoa, otoitza eta ekin-tza politikoa, hartzaile izatea eta eragile izatea, dohaina eta lana, espirituaren liberazioa eta giza egituren liberazioa.

Esperientziaren eta afektibitatearen mundua

Postmodernitateak esperientziari ematen dion lehentasunari lotzen zaio beste ekarpen interesgarri bat. Erlijioaren esparruan, gizabanakoaren bizipen pertsonala bultzatzea balioa da, gorde eta landu behar den balioa. Hari horri eutsiz, hurreman afektiboak, pertsonalak, hurbilak baztertzen dituen erlijio-antolamendua gainditzeko zioa eta kinada da postmodernitatearen sentiberatasuna: sentimenduen ordua da.

Sentiberatasun horretan, esperientzia pertsonala balioesten eta sustatzen da. Balioespen horren lurrean, esperientzia erlijioso pertsonal bereziak eta sakonak erro eta lora daitezke; besteak beste, oso lur aproposa da ondoko esperientzientzat: otoitza, barneko isiltasuna, Jainkoarekin topo egiteko nahia... Hortaz, balioa galduko dute formalismoak, erritoak eta legearen edo arauaren betebeharrak.

Taldeko harreman hurbilak ere oso baliotsuak dira; harreman horien esparruan zenbait fenomeno berezi bultzatu eta garatzen direnez gero, biziki estimatuak dira. Taldeko giro afektiboarekin oso lotuta dago lekukotasunari ematen zaion garrantzia; esperientzia izan —izaten— duenaren lekukotasunak badu sinesgarritasuna. Aldi berean, lekukotasuna komunikazioarekin lotzen da, taldeko harreman afektiboaren giroa oso egokia baita lekukoaren komunikazioaren esperientzia sakona harilkatzeko: barneko esperientziak partekatzeko eta onartzeko giro aproposa errazten du. Komunikazio sakon horretan bizi denari guztiz integratua dagoela antzematen zaio. Testuinguru horretan, erlijioa ez da kontzeptu bat edo betebehar bat, bizipen sakona baizik, bizitza bera. Komunikazioaren beharrak bide berriak bilatuko ditu artearen esparruan; esaterako, dantzan, musikan, poesian, pinturan...

Modernitatearekin bat egiten saiatu den kristautasunaren gaixotasunak identifikatu

Historiak ondo asko erakusten digu modernitateak berekin ekarri dituela zenbait gaixotasun edo patologia larri. Modernitatearen balioak salbatzekotan, patologia horien kontra borrokatu beharko da. Vatikanoko II. Kontzilioan, modernitatera hurbiltzea eta, neurri batean, adiskidetzea bilatzen du mundu katolikoak. Mendebaldeko gizarte garatuan, fede kristaua modu esanguratsuan aldarrikatu ahal izateko, modernitatearekiko harreman hori behar-beharrezkoa da. Baina pauso horretan arrisku bat dago: modernita-

tea oso-osorik zilegitzea. Modernitatearen gaixotasunen aurrean, kristautasunaren ikuspuntu kritikoa garatzen lagun dezake postmodernitatearen ekarpena kontuan hartzeak, modernitatearen proiektua itsu-itsu bermatu eta zilegitzen duen kristautasun-mota oso arriskutsua izan baitaiteke. Izan ere, modernitatearen gaixotasunen aurrean terapeutikoa izan nahi duen kristautasun batentzat, postmodernitatea lagun estimagarria izan daiteke.

Lerro horiek irakurtzen dituenak pentsa lezake modernitatearen ekarpen gizatxar doilor klasikoei buruz mintzatzen ari garela: nazismoa, estalinismoa, inperialismoa, eta abar. Gaur egun, neoliberalismoaren garaipen-aroa dela eta, modernitatearen ekarpen negatiboen aurrean, berriro, itsuarena egitea oso arrisku handi bilakatu da kristautasunarentzat. Hain zuzen ere, neoliberalismoaren ikuspuntutik, mendebaldeko gizartea balio-krisian dago, baina gizarte horren ekonomia-antolamendua eta administrazio-egitura gizateriaren gailurra da; beraz, balio-mundua berreraiki behar da, eta, horretarako, kristautasunaren ekarpena eta laguntza guztiz beharrezkoa da. Planteamendu horretan, erlijioa, berriro, askatzailea ez den proiektu sozial eta moderno baten menpean gatibu geratzen da. Testuinguru horretan, postmodernitatearen kritikak kristautasunari lagundu liezaioke begiak irekitzen.

Zentro askoko kristautasunaren bila

Kristautasunean kristau fedearen *inkulturazio* berriak planteatzen ari direnean, postmodernitatearen ikuspuntua oso iradokitzailea izan daiteke; hots, unibertsaltasuna, batasuna, aniztasuna, askotarikotasuna, deszentralizazioa pentsatzera ohituta dago, koordenatu kultural berri horietan jaiio baita nolabait.

Mardonesek argi ikusten du aro berri honen planteamenduak kristautasunak batasunari buruz izan duen —eta duen— kontzeptua kolokan jartzen duela. Kristautasunaren

batasuna mendebaldeko kulturaren oinarrituta egon da, azken batean, kristautasunaren *inkulturazio*-prozesua mendebaldeko kulturaren —kultur esparru greko-erromatarrean— burutu baita. Prozesu horrek homogeneousun kultural handia eragin du, kristau-batasunaren kontzeptua, neurri handi batean, homogeneousun kultural horretan oinarrituta egon baita: unibertsaltasunaren kontzepzioa batasun kultural hori hedatzea izan da, nolabait. Homogeneousun horren aurrean, postmodernitatearen planteamendua erronka da: subjektibitatearen balioa azpimarratuz eta, ondorioz, ikuspuntu ezberdinak bultzatuz, batasunaren zentzua ezin daiteke koka homogeneousun kulturean. Postmodernitatearen ikuspuntutik, aniztasuna eta askotarikotasuna onartzen dituen batasuna garatzeko erronka dauka kristautasunak.

Bestaldetik, kontuan izan behar dugu kristautasuna leku geografikoz aldatzen ari dela; orain arte, eta oro har, mendebaldean kokaturik egon bada ere, gaur egun, mendebaldetik ihes eginez, beste gizarte askotara hedatzen ari da: Afrikara eta Asiara, gehienbat. Abagune historiko honetan, kristautasunaren unibertsaltasuna ezin daiteke izan mendebaldeko kultura hedatzea; hortaz, *inkulturazio* berrien erronka dauka aurrean. Ildo horretatik, deszentralizazioaren eta aniztasunaren eskaera eta beharra agertzen diren testuinguruan, postmodernitateak egiten duen ekarpena iradokitzailea iruditzen zaio Mardonesi.

Pobreen Jainkoaren bila

Postmodernitateko zenbait pentsalariren ekarpenetan —horra hor Lyotard—, pobreen aldeko lan askatzailearekin konprometituta dagoen kristautasunak laguntza estimagarria aurki lezake.

Postmodernitateak duen erlijio-kontzeptuari dagokionez eta pobreen historiaren inguruan egiten duen planteamenduari dagokionez, Mardones oso kritikoa agertuko da; baina jarrera kritikoa ez dio iluntzen postmodernitateak egin de-

zakeen ekarpena. «Sublimearen estetika» delako esapidea dugu gakoa berriro ere; postmodernitatearen estetika, Lyotarden iritzian, sublimearen estetika dela gogorarazten digu Mardonesek. Estetika horretan gozamina eta mina nahastu dira: batetik, gozamina da, zeren eta irudikapen guztia gaitzen baitu; bestetik, mina da, zeren eta irudimena eta sentimena txikiak baitira kontzeptuak irudikatzen duenaren aurrean. Estetika hori oso lotua dago tradizio juduarekin eta, neurri batean, kristauarekin, Jainkoaz ezin baitaiteke irudirik eraiki. Pobreengan azaltzen den Jainkoaren errebelazioarekin lotuta daude bai gozamina, bai Jainkoaren irudi eskandalagarria. Errebelazio horretan, aldi berean, Jainkoa ezkutatzen da eta agertzen da, bere ezintasuna eta —ezintasunarekin batera— bere hustea azaltzen direla.

Deskribatzen ari garen fede-bizipen horretan, Jainkoaren jabe izatea ukatua eta ezindua da: inork ez dauka Jainkoaren jabegoa, inolako formulak ez du adierazten Jainkoa zer den, inolako tradizio erlijioso ez da Jainkoaren isla zuzena. Ondorioz, pobreen Jainkoa eta sublimearen estetika, zein bere moduan, irizpide kritiko bihurtzen dira, askatzaileak ez diren proiektu eta planteamendu guztien kontrako kritika zorrotz.

Kristautasunaren zilegitze-funtzioez ikuskera kritikoa

Narrazio askatzaile handiei eutsi nahi izan die modernitateak; baina kontuan izan dezagun modernitatearen euste horretan tradizio judu-kristauak eragin handia daukela, kristautasunak ere narrazio handiko forma baitauka. Hain zuzen ere, narrazio handi baten aurrean gauden heinean, postmodernitateak egiten duen kritika oso kontuan izatekoa da; kritika horretan, behintzat, hiru puntu oso baliotsuak izan daitezke benetakotasun bila ari den kristautasunarentzat.

Lehenengo eta behin, narrazio handi guztiek zilegitze-funtzioak bete ohi dituzte. Historikoki, kristautasuna, neurri handi batean, mendebaldeko proiektu historikoarekin lotuta egon da. Zentzu horretan, kristautasunak historia-eredu eta

historia-kontzeptu bat ekarri eta bultzatu du, azken bi mendeetan, gorabeherak gorabehera, modernitateari lotu zaiona. Narrazio handiekiko jarrera kritikoa —hain zuzen ere, postmodernitateak eragiten duena— kontuan izatea, fedea eta ideologia bereizteko, oso baliotsua izan daiteke.

Bigarrenik, postmodernitateak gogorarazten digu narrazio handiek joera totalitarioa daukatela; preseski, ikuspegi kritikiko horren barnean sartu behar dugu kristautasuna. Susmo horren harira, Eliza Katolikoaren egiturari buruzko, hots, demokratikoa ez den egiturari buruzko galdera kritikoa bat egiten du Mardonesek bere baitarako: egitura zentralizatu eta ez-demokratiko hori fede kristauaren nahitaezko ondorio bat da? Edo zilegitze-narrazio bati lotzen zaion abaguneko azalpena besterik ez da?

Azkenik, modernitateari —narrazio handien modernitateari— lotua izan den kristautasunak konpromisoaren eta sakrifizioaren beharra azpimarratu du; etorkizun hurbilean iraultza lortzekotan, gaur ahalegin eta sakrifizio guztiak eskaini behar dira. Mardonesek *zelotismo* deitzen dio jarrera erlijioso horri: azken-azkenean, *pelagianismoa* ezkututzen bide da jarrera horretan, salbazioaren doakotasuna ahazten baita. Postmodernitateak dakarren sentiberatasunak, berriz, esperientzia erlijiosoan dagoen doakotasuna berreskuratzen eta bizitzen lagundu dezake.

Erljioari dagokionez, postmodernitateak dakartzan arriskuak

Lehenengo paragrafoek Mardonesen susmoa baieztatzen dute; hots, postmodernitatean on asko jaso dezakeela kristautasunak. Baina gure autoreak ez ditu alde negatiboak ezkututzen; alegia, postmodernitatearekin egiten duen elkarriketan azaltzen diren alde negatiboak. Goian esandakoak egokiro erakusten digu Mardonesen pentsamendua ez dela beltza eta zuria; gure autoreak badaki ñabardurak, argilunak eta grisak identifikatzen. Dena den, argi dago gure teo-

logoa ez dela postmodernitatearekin ezkontzen, ondorengo lerroetako kritika zorrotzean agertzen denez.

Denak berdin balio du?

Postmodernitateak erakusten duen jarrerak hutsalera eram dezake. Denak gal lezake bere balioa edo denak berdin balio lezake: dena berdin delarik, baliorik gabe geratzen da. Ikusmolde hori erlijioari egokitzen zaionean, bizipen erlijioso guztiak berdindu eta homogeneousatzen dituen sinkretismo arrunta dugu, kalitate txarreko politeismoa. Dena misterio denez, misterioa urtu egiten da. Hortaz, *esoterismo* merkea hedatzeko baldintzak emanda daude aro berriaren planteamenduetan.

Kontsumo-kulturan integratzeko bidea?

Postmodernitateak ondo asko ikusten du errealitatea anitz dela eta aniztasun hori ezin daitekeela bazter; hala ere, aniztasun horretan gatibu geratzeko arriskua dauka postmodernitateak. Aniztasuna eta esperientzia, biak ala biak, absolutu bihurtzen diren neurrian, bizitza honako honetara murriztu liteke: esperientziaz esperientzia joatera. Baina hori horrela suertatuz gero, postmodernitateak arbuiatu nahi duen bizimodu bera gailurrean ipintzen laguntzeko arriskua dago.

Esperientziaz esperientzia, pertsona esperientzien kontsumitzaile bihurtzen da, eta, horrenbestez, gizartearen kontsumo-sarean sartzen da. Postmodernitatearekin beste sentiberatasun bat agertu dela esan liteke, hau da, modernitatearen funtzionalismoa gainditu nahi duen sentiberatasuna; baina, paradoxikoki, planteamendu horri esker, sare *funtzionalistaren* barnean korapilaturik gera daiteke gizabana-koa. Gaurko gizartearen eskaintza espiritual anitza ulergarria da testuinguru horretan: gizakia esperientzia berriak egiteko gose da, eta hor kokatzen da eskaintza ugaria.

Gauza bera gerta daiteke erlijioarekin. Erlijioa gero eta anitzagoa delarik, gizakia konturatzen da erlijio ezberdinen esperientzia izan dezakeela. Orduan, menu baten arabera aukeratzen da unean uneko esperientzia. Gauzak horrela planteatuta, nekez egin daiteke misterioaren esperientzia, nekez esperimentatu daiteke Jainkoaren presentzia, azken batean, idolatriaren beste bertsio batekin topo egiten baitugu. Bide askatzailea izan beharrean, kontsumo-sarean gaitu geratzen da pertsona. Planteamendu horretan bultzatzen den esperientzia espirituala eta erlijiosoa oso arina da, oso «*light*», guztiz manipulagarria den bizipena; beraz, postmodernitateak, nahi gabe bada ere, ikuspuntu *funtzionalari* eragiten dio.

Modernitatearen arrazoi kritikorik gabe, izan gaitetzke kritiko?

Arrazoi ilustratuaren planteamendu guztia baztertzen duenean, postmodernitateak arrazoimenaren zeregin kritikoa ere zokoratzen du. Sentiberatasun kritiko hori desagertzen denean edo aski balioesten ez denean, idolatriaren arriskua agertzen da berriro. Planteamendu horretan arrisku bat nabarmentzen da: misterioaren eta espiritualitatearen bizipenak gizakiak eraikitzen dituen erantzunekin identifikatzea. Orduan, berriro ere, idolatriaren eremuan kokatuta gaude, nahiz eta, oraingo honetan, idolatratzen dena sentimendua izan: emozioen mundua da sakratuaren aldarean jartzen dena. Hari horri eutsiz, esan beharra dago ezin daitekeela baztertu modernitate guztia eta, ondorioz, modernitatearekin kristautasunak izan nahi izan duen elkarrizketa.

Subjektua, irudikapena, adierazpena, zeinua eta egia kate bateko katebegiak dira. Arrazoimenaren kritikak erakutsi du katebegi horien arteko lotura ahula dela; are gehiago, ez dela batere argia. Hori onartu behar dugun arren, katebegi horien arteko loturari uko egiten badiogu, ez dago argi zer irabazten den, katea apurtuz gero, arrazoimena bera ukatzen baitugu. Beste erreferentzia guztiak galdu dituen giza-

banakoari erlijio-bizipenak zentzua eman diezaiokeela planteatzeak eta, horrekin batera, giro afektibo hurbilean —arrazoimen kritikoa baztertuta— pertsonak bere gozamina lortu dezakeela defenditzeak, biek ala biek, oraingo *statu quo*a bermatzea ekar lezaket, nahiz eta postmodernitatearen in-tentzioak ez bilatu esplizituki gizartearen sistema sustatzea. Bide horretatik, erlijioaren funtzio ideologikoak, nahigabe, berriro agertzen dira.

Are gehiago, deskribatutako baldintza horietan, fundamentalismo erlijiosoak bere lekua aurkitzen du. Berriro az-pimarratzen du Mardonesek postmodernitateak ekar deza-keen paradoxa: guztiz libertario izan nahi duenak funda-mentalismorako oinarriak ipin litzake. Modu horretan, guz-tiz aurrerakoia aurkezten den postmodernitatearen propo-samen erlijiosoak premodernitatearen egoera dogmatikora eramán gaitzake.

Postmodernitatearen planteamenduan, biktimek badute etorkizunik?

Giza historiak baditu bere biktimak. Atzo bezala, gaur ere biktimak ez dira desagertu eta nonahi aurkitu ditzakegu, kontinente guztiak biktimaz beteta baitaude. Historiaren zentzua galtzearen aurrean, biktimen historiak, biktimen minak, biktimek pairatutako injustiziak historiaren zentzua-ren beharra aldarrikatzen dute, eta aldarrikapen horrekin lotzen da kristautasunaren tradizio garrantzitsuetako bat, zein-ek, zentzu orokorrean, pobreei buruz galdetzen duen. Mar-donesen ustez, Jesusen berri ona lotuta dago jende xumeare-kin eta baztertuarekin, zerumuga askatzailea adierazten bai-tu. Postmodernitatean nabari den giro kulturalak eta bizi-tzeko jarrerak —eszeptizismoa, etsipena eta esperientzien kontsumoa— ez du biktimen askapena errazten. Postmoder-nitatea ildo horretatik bideratzen den neurrian, bere baitan sortzen den sentiberatasun erlijioso oso arriskutsua izan daiteke, batez ere kezka askatzailea daukanarentzat.

Azken batean, erlijio *lighta* da, ezer aldatu nahi ez duena, esperientzia politak eta lasaigarriak izan nahi dituena, *intimismoaren* labirinto ilun ezkutuan, amildegitik behera jaurtikitzen den bizipena. Ondorioz, postmodernitatearen bizipen espiritualak eta erlijiosoa askatasun-proiektu indibidualista eta burgesa bilaka daitekeelarik, munduan dauden pobreak eta baztertuek ezer gutxi espero dezakete giro kultural berri horretatik.

Beste modu batean esanda, «ihes espiritualista»ren arrisku nabaria dugu postmodernitateari jarraitzen dion erlijio-plan teamenduan. Historian konprometitzeari uko egiten dion jarrera erlijiosoak, subjektiboki oso oparoa eta atsegina izan badaiteke ere, kristautasunaren salbazio-eskaintza *espiritualizatu* eta urtzen du.

Misterioaren inguruko zalantzak

Postmodernitatean, artearen ikuskera estetikoak erlijioaren eremuan aplikatzen denean, ikusi dugun bezala, bi jarrera azaltzen dira: mistikoa eta isiltasun galdetzailea. Bi jarrera horiek, postmodernitatearen testuinguruan, oso anbiguoak izan daitezke. Ekarpen positiboak aurkeztuta daude, dagoneko. Baina ekarpen positibo horiek ez dira nahitazeko ondorioak, bestelako ekarpenak izan ditzakegu eta.

Batetik, Mardonesek zorrozki galdetzen du ea zer ezkutatzen den jarrera mistikoaren atzean. Egia da erlijio guztietan dagoen tradizio mistikorik onenetakoarekin bat egin dezakeela postmodernitatearen mistizismoak; baina, orobat, egia da lorez lore dabilena pinpilinpauza bihur daitekeela, errealitate guztiaren azalean geratuz, benetan inon pausatu gabe eta ezer sakondu gabe geratzen dena.

Bestetik, misterioarekiko jarrera dugu auzia. Mardonesen susmo latza galdera batean bil dezakegu: misterioarekiko begirune horrek ez ote du iheslariaren jarrera mozorrotzen? Ez ote du mozorrotzen errealitatean konpromisoa ez hartzeko erabakia? Susmoa beteko balitz, postmodernitateak

erakusten duen misterioarekiko begirunea eszeptikoen aterpea izango litzateke, mugaren kontra borrokatzeari uko egin dionaren erabaki beldurti koldarra.

Balorazioa

Artikulu honen azken atalean, gure balorazioa eskaini nahirik eta egindako gogoetetan hainbat hari daudela kontuan izanik, hari horietako zenbait aukeratu ditugu, gure azken iruzkin hau egiteko. Jakin ere badakigu aukera horrekin ez ditugula gai honetako hari guztiak jorratzen, baina ez da hori gure helburua, baizik eta esanguratsuen iruditzen zaizkigunak nabarmentzea eta, horrekin batera, gure balioespena eskaintzea.

Mardonesen sentiberatasuna, zorrotasun kritikoa eta malgutasuna

Mardonesen sentiberatasuna iruzkintzen dugu lehenengo eta behin. Ezaguna denez, Mardonesen formazioa tradizio kritikoa eratuta dago, bai giza zientzien arloan —Eskola Kritikoa—, bai teologian —Teologia Kritikoa eta Teologia Politikoa—. Tradizio horietan egiten diren azterketak oso sendoak dira, eta, neurri batean, unibertsaltasun-nahia erakusten dute. Mardones tradizio horretakoa izan arren —horrela aitortzen du berak—, beste tradizioetan gertatzen denari adi egonik, arreta eta sentiberatasun berezia erakusten du bere inguruan gertatzen diren disonantziekin. Beraz, gure autorea gotorleku intelektual batean tematu beharrean, mintzatzeko gai da ezberdinak eta kontraesankorrak izan daitezkeen proposamenekin. Sentiberatasun hori fedearekin —historia aldakorrean ikasten ari den fede sakonarekin— lotuta dago. Espainiar teologoak berak aitortzen duen bezala —Vatikanoko II. Kontzilioa aipatuz, *Gaudium et Spes*-eko 4. zenbakia, hain zuzen—, une orotan bilatzen du aldien ezaugarriei adi egotea eta ebanjelioaren argitan in-

terpretatzea. Ebanjelioa ez zaio tradizio jakin bati lotzen, nahiz eta tradizio hori oso iradokitzailea izan. Mardonesek erakusten du arauak —garai bateko pentsamoldeak eta zerumuga— apurtzen dituzten korronteak —argudio sakonak aurkezten dituztela, behinik behin— kontuan izatea eta horiekin mintzatzea aukera izan daitekeela kristau fedea galbahetzeko eta fede hori sakontzeko. Postmodernitateko pentsalariak garaiko arauak apurtu nahi dituzte, eta pentsamolde alternatiboetan lan egin nahi dute; bide horretatik, probokatzailerik direlarik, beren-beregi oldartzea bilatzen dute. Mardones ez da mehatxatuta sentitzen testuinguru horretan, estimulatuta baino. Beraz, bere tradizioaren gotorlekutik kanpo gertatzen denarekiko sentiberatasun aparta erakusten du gure autoreak, baina sentiberatasun horri heltzeak arriskuei eustea dakar nahitaez. Horren kontzientzia nabarmena duelarik, Mardones prest dago sentiberatasunaren prezioa ordaintzeko eta, horrenbestez, arriskuak jasateko.

Sentiberatasunarekin batera Mardonesen zintzotasuna aipatu dugu goian. Sentiberatasunak esaten dio gure autoreari bere tradiziotik kanpo zerbait interesgarri gertatzen ari dela, mugitzen ari dela eta, ondorioz, postmodernitateak dakarren pentsamolde berriarekin mintzatu beharra dagoela. Hala ere, nahia eta intentzio ona gauza bat da, eta beste gauza bat, ahalmena. Korronte berriarekin hitz egitean, Mardonesek hitz politekin eta kontzeptu abstraktuekin bere ezintasuna mozorrotu beharrean, ez du inolako arazorik bere ezjakintasuna aitortzeko. Baina ezintasun horrek, gure autoreak etsi beharrean, elkarrizketa-nahia kitzikatzen du.

Erronka handia izan arren, Mardonesek ez ditu bere erreferentziak galtzen. Postmodernitatearekin ehuntzen duen elkarrizketan, zenbait planteamenduk liluratzen badute ere, distantzia kritikoa mantentzeko gai da. Kritika hori nondik egiten duen ere badaki gure autoreak, bere sustraiei ez baitie uko egiten. Hori dela eta, bere zalantzak eta susmoak aurkeztuz, elkarrizketan oso zorrotza eta kritikoa izan ohi da.

Kritika zorrotz horrek ez du zurruntasunik adierazten. Mardones prest dago ikasteko, eta, azken batean, postmodernitatean, kritikak kritika, aukera bat ikusten du. Garai berrietan gaudelako kontzientzia duelarik, gure teologoak argi dauka bideak ez daudela eginda, eta, ondorioz, ikasketa berriak egitera deituta dagoela gure garaietako fededuna. Ikasketa horiek jarrera malguz egin daitezke soilik; hain zuzen ere, jarrera malgu horretan saiatzten da Mardones behin eta berriro.

Elkarrizketarako jarrera

Sentiberatasuna, zintzotasuna, zorrotzasun kritikoa eta malgutasuna elkarrizketarako jarrera interesgarriak dira, Mardonesek beren-beregi lantzen dituenak postmodernitatearekin hitz egitean. Baina elkarrizketaren edukia teologikoa da, fedea bera ukitzen duen elkarrizketa da, alegia. Ukituta geratzen den fede-gaietako bat Jainkoaren irudia da, postmodernitateak irudien kritika zorrotza dakarren neurrian. Ildo horretatik, teologiaren bide negatiboa sakontzen da eta Jainkoa zer ez den zehazten da. Dena den, zerbait baieztatu beharra dagoenez, eta behar horri jarraituz, Mardonesek uste du postmodernitateak zerbait positiboa esaten lagun dezakeela. Bide horretatik doa, hain zuzen ere, sublimeen esperientzia pobreen Jainkoarekin lotzen duenean.

Gure ustez, bizipen kristaua gaurko kulturaren —eta edozein kulturatan— txertatzeko, Mardonesen intuiziorik handienetako bat hementxe kokatzen da: pobreen Jainkoa. Postmodernitatearen gogoeten harian, sublimearen estetikarekin lotzen du Mardonesek pobreen Jainkoa, eta lotura horretatik bi ondorio ateratzen ditu: bateko, Jainko paradoxikoa; besteko, Jainko eskuraezina. Azken-azkenean, bi ondorio horiek oso lotuta daude. Labur-labur iruzkinduko ditugu ondorio bi horiek.

Alde batetik, pobreen Jainkoa paradoxikoa¹⁰ da. Vattimok egindako proposamenaren oihartzuna jasoz¹¹, azpian dagoen irudia eta bizipena gupida da: Jainkoa gupida hutsa da. Gu-

pida delarik, Jainkoaren nahia guztien salbazioa da, salbazio unibertstala. Unibertstaltasun hori behe-behetik hasi eta hedatzen da, hots, gizartean azkenean daudenengandik. Benetakoa unibertstaltasunak behe-behean dauden gaixo, jipoitu, pobre eta baztertu guztiei heltzen ez badie, unibertstaltasun hori hutsaren hurrengoa da, iruzurra besterik ez. Baina, zentzu horretan, Jainkoa gupida dela aitortzen badugu, Jainko hori gure arazoimenari modu paradoxikoan agertzen zaio. Ahalguztiduna dela aitortzen dena, «ahalgabeduna» da; aberastasun guztia dena, pobrezia gorria da; errealtaterik erakargarriena, aldi berean, arbuigarriena bihurtzen da; zoriontasuna eta sufrimendua ez dira kontrajartzen; presentzia dena absentsia bilakatzen da. Gizateriaren historiaren esparruan, misterio horren bizipena zoriontasunaren eta minaren bizipena da aldi berean; beraz, nahitaez, bizipen paradoxikoa.

Pobreen Jainkoa, beste aldetik, eskuraezina da, ez dauka arau finkorik. Goiko paragrafoan aipatutako paradoxak kontuan izanik, pobreen Jainkoa absentsian kokatuta dago, injustiziaren arabera mugitzen da: esplotazioa eta sufrimendua non, pobreen Jainkoa han. Eta Jainko horren bila dabilenak prest egon behar du lekuz eta formaz aldatzeko, zeren eta misterio sublimearen estetika ezkutuan islatzen den presentzia eskuraezina baita. Testuinguru horretan, jarrera estetikoak ez du esan nahi konpromiso falta, ezta hurrik eman ere; hori dela eta, estetika horrek eskatzen du zuzentasunaren aldeko borrokan parte hartzea eta bitarteko historikoak ipintzea. Kristau Jainkoaren bila dabilenak jakin badaki borroka horretan gurutzearen bizipena agertzen dela, behin eta berriro: Jainkoaren absentsia, Jainko eskuraezina.

Esandakoak esanda, Mardonesentzat argi dago postmodernisten jarrera kritikoa aukera bat izan daitekeela kristautasunarentzat: Jainkoaren irudia garbitzeko aukera. Bestaldetik, garbitze-prozesu hori guztiz lotuta dago profetek egiten zuten idolo-kritikarekin. Jainkoa ez da idolo bat, eta, Jainkoaren irudi bat egiten dugunean —bai irudi fisikoa, bai

kontzeptuala—, idoloa eraikitzeke atea zabaltzen dugu. Fede kristaua garbitzeko behar hori agertzen da bai gizabana-koaren eremuan, bai instituzioaren eremuan.

Gogoeta iradokitzailea da, eta Mardonesek ateratzen dituen ondorio teologikoak kontuan hartzekoak. Baina postmodernitatearen erregistroan kokatuta, gogoeta hori hitz-jokoan ez ote den geratzen galde diezaiokegu geure buruari. Zein da postmodernitatearen leku soziala? Non eta nondik pentsatzen ari dira postmodernitateko ordezkariak? Estetikari dagokionez, pentsamendua eta planteamendua polita da, baina susmatzen dugu pobreak ez direla postmodernistak. Ariketa intelektualaz harago, gogoeta horren balioa praxian erakutsi beharko litzateke. Postmodernitatean baieztatzen den bezala eta Mardonesek azpimarratzen duen bezala, fede esperientzia bat bada eta esperientzia hori Jainko hustuarekin, maitasunezko Jainko indargabekoarekin lotuta badago, postmodernistak prest ote daude euren europar bizitza burgesari uko egiteko eta Somalian kokatuta nekez bizirauten duen gizadiarekin bat egiteko? Diskurtso hori sinesgarriagoa izango litzateke.

Postmodernitateak egiten dituen planteamenduen ingurumarian, Mardonesek aukera bat ikusten du fede garbiago bat bizitzeko. Jarrera optimista horren aurrean azken hiru iruzkin. Lehenik, sentiberatasun hori kristautasunean presente egon da betidanik; postmodernitateak, beharbada, hori birgogoratzeko balio dezake, baina lur berriaren aurkikuntzarik ez dago planteamendu horretan. Bigarrenik, postmodernitatearen ekarpena sentiberatasun hori bizitzeko moduan egon liteke; baina susmatzen dugu postmodernisten bizimoduan ez dagoela bizitza burgesetik kanpoko proposamen sinesgarririk. Hirugarrenik, postmodernitatetik jasotzen den kritika ulertzen den arabera, zauri etikoa sarkontzeko arriskua dago; beraz, fedearen ondorio etikoak ateratzen dira pobreekin identifikatuz, baina horrek ez dakar berez fedearen esperientzia; ildo horretatik, lehenago ere aipatutako *zelotismoaren* joera berriro agertzen zaigu.

Esperientziaren inguruan

Postmodernitateak biziki balioesten du esperientzia, gizaki bakoitzak egiten duen bizipena, eta nabarmentze hori ego-kia iruditzen zaio gure teologoari, kristautasuna berrindartzeko eta berpizteko ikuspuntu iradokitzailea den heinean. Oro har, Mardonesek erakusten duen optimismoarekin bat egiten dugu puntu honetan; azken batean, fedea ez baitator jardun razionaletik, pertsonarentzat guztiz esanguratsua den bizipen batetik baino. Bizipen hori galduko balitz, kristautasunaren antolamendua eta teologia geratuko lirateke; baina, azken batean, intxaurraren eskola baino ez lirateke izango: tradizio lehortua. Gure oinarrizko adostasuna erakutsi ondoren, zenbait iruzkin egin behar direla uste dugu.

Beste gai bati buruz esan dugunak hemen ere balio du: ekarpen hori ez da berria, eta bere iturburu nagusia ez dago postmodernitatean, nahiz eta korronte horrek berebiziko garrantzia eman esperientziari. Ildo horretatik, postmodernitatearen meritua balio hori gogoraraztean egon liteke.

Merituak meritu, esperientziaren balioa aldebakarrean edo erdi absolututzat hartzen denean, zenbait arrisku agertzen dira, eta horiek kontuan izatea komenigarria izango litzateke. Lerro artean, Mardonesek arrisku horietako batzuk aipatzen ditu; hala nola: subjektibismo hutsean geratzea, indibidualismoa bultzatzea, kontsumismoari joko egitea, historiaren biktimengandik alde egitea... Modu sistematikoan aurkeztuta ez badaude ere, idazkietan behin eta berriro agertzen dira kritika eta oharpen horiek. Kritikak kritika, planteamendu inportante eta, aldi berean, oso arriskutsu baten aurrean gaudenez, interesgarria izango litzateke beste pauso bat ematea: kritikarekin batera, balioak integratzeko bideren bat iradokitzea.

Balio horretan fedearen pertsonalizazioa dago jokoan. Ar-gi dago gaur egun fedea pertsonalizatzeko baldintzak aldatu direla, eta ez gutxi; gizabanakoarentzat fedea bereganatzea eta barneratzea ahalbidetzen duen esperientziak pertsonala eta

bizia izan behar du. Arriskuak seinalatzeaz gain, oso aproposa izango litzateke zehaztea zer elementu kontuan izan behariko genituzkeen. Ildo horretatik, bi alde ikusten ditugu.

Batetik, gizabanakoaren eta komunitatearen artean dagoen tentsioa. Komunitaterik gabe ez dago kristautasunik, ez zentzu diakronikoan —guri ez zitzaigukeen helduko—, ez zentzu sinkronikoan —fedea senidetasun-harremanean bizitzen da—. Komunitatearen eta gizabanakoaren artean subjektibitate-objektibitate jokoa agertzen da; esperientziaren garrantzia aipatzean, interesgarria izan liteke kontuan izatea joko horrek ematen dituen ahalbideak eta aurkezten dituen zailtasunak.

Bestetik, kristautasuna tradizio baten —batzuen— barnean heldzen zaigu. Tradizioak esperientzia ahalbidetzen du, baina tradizioa bera ez da esperientzia. Gauza biak nola giltzartzen diren erakustea argigarria izan liteke; argitasun hori are garrantzitsuagoa da gizartea anitza denean.

Antropologia

Mardonesek ondo jasotzen duen bezala, postmodernitateak krisi antropologikoa dakar, subjektua guztiz ahulduta geratzen den neurrian. Gure teologoarentzat, kezka da pertsonaren duintasuna nola salbatu daitekeen postmodernitatearen planteamenduan. Beste aldetik, pentsamendu ahula oso interesgarria da idoloak identifikatzeko eta aniztasuna errespetatzeko. Nola uztartu antropologia sendo eta oinarrizko izatea eta, aldi berean, unean unekoa bizitzea eta gizakiari buruzko ikuspuntu ezberdinak errespetatzea? Sintesia ez da erraza, eta sintesi hori egiteko biderik ez du iradokitzen Mardonesek. Beharbada, puntu horretan gure autoren eskaintzen diguna, sintesi teoriko bat osatu beharrean, bere bizitzaren beraren lekukotasuna izan liteke: bere bizitzaren bilaketak eta ibilaldiak erakusten dute posible dela.

Antropologiaren gogoetan gertatzen dena etikaren gogoean ere islatzen da. Postmodernitateak planteatzen duen eti-

kak zalantza asko sorrarazten ditu, gure teologoak ondo atzematen duenez; baina modernitateak egiten duen planteamendu etikoak ere kritika asko jasotzen ditu. Nondik doa bidea? Bestaldetik, etikaren eta erlijioaren artean ez dago inolako loturarik? Erlijioari buruz eta etikari buruz postmodernitateak egiten duen planteamenduak ez al du eskaintzen inolako argitasunik, planteamenduaren ifrentzuan bada ere, etikaren eta erlijioaren arteko harremanez birpentsatzeko?

-
1. Ik. Urkulo 2011, 59-90; 2012, 37-66.
 2. José María Mardones (1943-2006) intelektual ezaguna izan da Espainiako pentsalarien artean, baita mundu akademikoarekin lotuta ez dagoen hainbat jenderen artean ere. Soziologoa eta teologoa zelarrik, garaiko gizarte honetan —aro-aldaketak ezaugarritutako giro kultural honetan— erlijioaren zentzuaz, arrazoimenaz, aldaketaz eta zereginaz hausnartzen espezializatua da. Bere lanak eta hausnarketak, sarri askotan sakonak eta mamitsuak izan arren, ondo ezagunak dira.
 3. Ik. T. Oñatek J.-F. Lyotardi egiten dion elkarrizketa (*Meta* 2, 1987, 119). Aipu hori ondoko liburu honetan agertzen da: Mardones 1988b, 5.
 4. Ik. Vattimo 1986, 10; testu hori aipaturik dator Mardonesen beste testu honetan: Mardones 1988b, 5.
 5. Ezaugarri horiek aurkezterakoan, Mardonesek berak egiten duen sailkapenari jarraitzen diogu; sailkapen hori ondoko lekuetan aurki dezakegu: Mardones 1988b, 10-17; 1988a, 60-78; 2003, 145-149.
 6. Etsipen hori, azken batean, sekularizazio-prozesua da; oraingoan, modernitateko pentsamendua sekularizatzen da (Mardones 1991, 92-93).
 7. Ik. Mardones 1988a, 70. «Elkarrizketa ahul»aren planteamendua Vattimorena da, eta berak azaltzen du, besteak beste, ondorengo artikuluan: «De la ideología a la ética» (*El País*, 1987-01-08, 9. or.).
 8. Mardones 1988a, 92.
 9. *Ibid.*, 112.
 10. Jainkoaz, misterioaz, azken errealitateaz zerbait esaterakoan, paradoxa hitzari garrantzi berezia ematen dio Mardonesek. Jarrera hori oso hurbil dago postmodernitatean sustatzen den ikuspuntutik. Baina tradizio hori askoz ere zabalagoa da, bai kristau tradizioan, bai beste hainbat tradizio erlijiosotan. Besteak beste, hor ditugu Mardonesek aipatzen dituen Buberren hitzak: «Izatearen edukietako baten komunikazio erlijiosoa paradoxa du bere leku aproposa. Baieztapen frogagarria izan beharrean, gizakiaren barneko esparru sakonean ezkututzen denari lotzen zaio. Esparru sakon hori bere barnekoari adi dagoen gizakiarentzat azaltzen da, eta barneko-

tasun horretan ez beste inon esperimentatu behar du gizakiak» (Buber 1984, 42).

Baina, postmodernitateko pentsamendua dela eta, pentsamendu paradoxikoaren mugak zehazteko beharra sentitzen du, nolabait, eta ondoko gogoeta gaineratzen du: «Hizkera teologikoan, paradoxaren erabilera eskatzeak ez dakar berez ez-logikotasuna eta kontrolik gabeko hausnarke-ta postulatzea, Jainkoaren esentzia ezagutezina dela baizik. Hortaz, Jainkoaren esentziari buruzko edozein esapide finitu desegokia da; are desegokiago, esapide hori, alde bakarreko razionaltasunaren neurritz josia izan arren, behin betiko formulatzen jotzen denean» (Mardones 1991, 100).

11. Ik. Vattimo 1992.

Bibliografia

- Buber, M. (1984), *Eclipse de Dios*, Nueva Visión, Buenos Aires.
- Mardones, J.M. (1985), *Sociedad moderna y cristianismo*, DDB, Bilbo, 65-82.
- (1986), «Modernidad y postmodernidad. Un debate sobre la sociedad actual I», *Razón y Fe* 1.056, 204-217.
- (1988a), *Postmodernidad y cristianismo. El desafío del fragmento*, Sal Terrae, Santander.
- (1988b), *El desafío de la postmodernidad al cristianismo*, Sal Terrae, Santander.
- (1988c), «Hacia un cristianismo universal y policéntrico», *Biblia y Fe* 40, 100-117.
- (1989), «El mundo religioso-cultural del cristianismo español actual», *Iglesia Viva* 139, 33-52.
- (1990a), «El reto religioso de la postmodernidad», *Iglesia Viva* 146, 189-205.
- (1990b), «La fe cristiana ante la modernidad y la postmodernidad y la cultura conservadora», in Askoren artean, *Pluralismo sociocultural y fe cristiana*, Mensajero, Bilbo.
- (1991), *Postmodernidad y neoconservadurismo. Reflexiones sobre la fe y la cultura*, Verbo Divino, Lizarra.
- (1999), *Síntomas de un retorno. La religión en el pensamiento actual*, Sal Terrae, Santander.
- (2000), *Para un cristianismo de frontera*, Sal Terrae, Santander.
- (2003), *La vida del símbolo. La dimensión simbólica de la religión*, Sal Terrae, Santander, 145-149.
- Vattimo, G. (1986), *Fin de la modernidad*, Gedisa, Bartzelona.
- (1992), *Creer que se cree*, Paidós, Bartzelona, Buenos Aires, Mexiko.
- Urkulo, I. (2011), «Postmodernitatea, gaurko mundurako filosofia berria», *Jakin* 185, 59-90.
- (2012), «Postmodernitatea euskal narratiban: subjektuaren krisiaz», *Jakin* 189, 37-66.

Aulki-jokoa, Uxue Alberdik zahartzaroko xarma erakutsi zigunekoa

IRAITZ URKULO

Euskal literaturan doktoregiaia

Uxue Alberdi euskal literatura garaikidean

Uxue Alberdi Estibaritz Elgoibarren jaio zen 1984ko martxoaren 18an. Kazetaritzan lizentziatua da EHUUn eta hainbat komunikabidetan lan egin du: *Euskadi Irratia*, *Berria*... Bertsolari eta, batez ere, idazle bezala da ezagun.

2005ean egile gazteentzako Igartza Beka eskuratu zuen *Aulki bat elurretan* (Elkar, 2007) narrazio liburuarekin. *Aulki-jokoa* (Elkar, 2009) eleberria da kaleratu duen bigarren eta, oraingoz, azken lana, Joseba Jaka Literatur Bekarekin saritua. Haur literaturaren esparruan *Ezin dut, eta zer?* (Elkar, 2011) idatzi du.

Azken urteotan, itzultzaile bezala aritu da. Euskaratu dituen lanen artean *Kensukeren mundua* (Elkarlanean, 2008), *Maitasuna da geratzen den bakarra* (Elkar, 2009), *Baltaxar, inoizko astorik bakartiena* (Tarttalo, 2010) edo *Aitaren pitokeriak* (Alberdania, 2011) aurkitu daitezke.

Hasiera batean, *Aulki bat elurretan* lehenengo ipuin-liburuak lantzen dituen gai, estilo eta ezaugarri narratiboengatik, euskal kritikaren sektore esanguratsu batek «Erasmus

belaunaldia» deitutakoaren kidetzat jo zuen Alberdi. Autorearen ez zen besoak gurutzaturik geratu eta, komunikabideetan etiketari behin eta berriro uko egiteaz gain, ideologia feministako beste zenbait emakumezko idazlerekin batera, euskal literaturan sustraiturik omen dagoen matxismoa salatu zuen, jarrera horrekin dagoeneko abian zen Erasmus belaunaldiaren eta emakumeek idatzitako literaturaren usteko gutxiespenaren inguruko polemikari eutsiz.

Argumenturik eraginkorra, ordea, literaturan bertan topatu zuen, bi urte beranduago *Aulki-jokoa* eleberriarekin ezin hobeto erakutsi baitzien irakurle zein kritikariei berea Erasmus literaturari egotzi ohi zaion estilo erraz-arinetik urruntzen den sorkuntza sendoa dela.

Izan ere, ziurrenik, Uxue Alberdi dugu XXI. mende hasierako emakume idazle gazte garrantzitsuenetakoa, garrantzitsua ez bada. Euskal idazleen promoziorik berrienaren partaide izanik, bestalde, etorkizun handiko autore baten aurrean gaudela aurreikus daiteke.

Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa*

Norbanakoaren memoria eta historia kolektiboa. Unibertsaltasuna laztanduz

Eleberri honek herri bereko hiru emakumeren istorioa kontatzen du, baina askoz gehiago ere bada. Alberdiren testua azken mendeko historiaren kronika bihurtu baita, Gerra Zibilar aurre egin zion belaunaldiaren ahotsari esker. Zahartzarora helduta, orainalditik iragan hurbilerako bidaia da Teresa, Martiña eta Eulali protagonistek proposatzen ditugutena, Kantoietan elkarrekin igarotako bizitza osoko oroitzen bidez. Era honetan, konturatu barik kasik, hiru pertsonaien memoria intimoaren eskutik, Kantoietakoa jendearen historia kolektiboan murgiltzen gara. Istorio partikular askoren kateatzeak, herrikide gehienak kontakizunean nahasten dituen heinean, Istorio handi bat du ondorio; non-

dik edaten du historiak bestela, garai eta toki jakin bateko bizipenak eskuzabalki guztiokin partekatzen dituen subjektibitate-multzo baten iturritik ez bada?

Eleberri honetan egileak aurre egiten dio protagonista bakarraren arauari, eta horren ordez pertsonaien arteko harreman-sare konplexua ehundu du, testuari bizitza eta esperientzia gurutzatuen etengabeko jarioan eutsiz. Emaidza egitura polifonikoa da, eta zatikatua. Istorioan arratsaldero gozotegian biltzen den zahar taldearen orainaldia eta horien iragan hurbil zein urrunagoak tartekatzen dira. Horrela, argumentuak jauzika egiten du aurrera, pertsonaien haurtzaroko, gaztaroko eta, azkenik, zahartzaroko pasarteak txandakatuz, era horretan lortzen duela nolabaiteko osotasuna. Diskurtso baliabideak ere aldatuz doaz garaiaren arabera; izan ere, elkarrizketa da nagusi orainaldian, eta narrazioa, berriz, iraganeko momentuak ekartzen dituzten oroitzapen ugarietan erabili da.

Uxue Alberdiren dohain literarioetako bat, garrantzitsuena nire irudira, narrazio pertsonal xumeenaren txikitasunetik abiatuz unibertsaltasuna besarkatzera iristeko erakusten duen gaitasuna da. Oraingo honetan, literaturan memoria historikoaren gaia subjektibitatearen ikuspegitik landu daitekeela frogatu digu, sentsibiltate handiz landu ere. Horrela, historia, pertsonaien barne-mundua eta testuinguru horretako bizipenak uztartzen asmatu du, barnera begira sortutako diskurtsoa nostalgiaren ukitu zirrargarriaz eta emotibotasun nabarmenaz zipriztinduz. Zentzu honetan, *Aulki-jokoa* testu zintzoa da, erabat garbia, hizkera natural batez sentimenduei buruz, sentimenduetatik abiatuz eta sentimenduen birtartez idatzia dena. Istorioa sobera ezagun egiten zaigun itsasertzeko herri euskaldun batean gertatua izanagatik, kokapenaren hurbilak ez du haren arrakasta eremu lokalera mugatzen, azala eta apaingarriak albo batera, argumentuaren muinean dauden eta kontakizuneko osagai nagusi diren sentimenduak guztiz unibertsalak direlako, hots, baldintzapen geopolitikorik gabekoak.

Halere, askoz gehiago da lerroartean iradokitzen dena, idatzita ageri dena baino. Orokorrean, Uxue Alberdiren lanak, irakurriak izateko ez ezik, sentituak izateko idatziak direla esango nuke. Izan ere, idazle honen testuek irakurlearen zentzumenekiko jolasa eta, hortaz, erronka atsegingarria suposatzen dute. Usain ezberdinak, era askotako hotsak, irudien berezko indar sinbolikoa, hizkuntzari darion kutsu lirikoa, diskurtsoaren plastikotasuna... aipaturiko iradokizunaren bitartek, irakurketaren gozamenerako estimulu bilakatuak, osagai horien guztien disposizio bereziari esker irakurleon arre-ta osoa (bost zentzumenak, alegia) bereganatzeko abilezia erakusten du autoreak. Esaterako, oso estetikoak iruditu zait liburuaren atzeko azalean agertzen den pasarteak zeharka erreferentzia egiten dion gertaerari dagokion eleberriko zatia. Baina kontuz: estetika, kasu honetan, edertasunetik harago doan kontzeptu gisa ulertu bedi. Ukaezina da hurrengo aipuak, itsuskeriatik edaten duen arren, edo horregatik hain zuzen, bere baitan gorde duen indar estetiko izugarria:

Txurreroak, normalean, ez zuen «bost hogeia» baino gehiago irauten. Behin «hamaika» kontaktu orduko egin zuen pixa galtzetan, zigarroa piztu berria oraindik ezpain artean zintzilik zuela, ke-hari bat isuriz goraka. Bazirudien zigarroaren keak pixak galtzetan marrazten zion erreka imitatzen zuela airean sigi-sagaka. Igandero egiten zuen plazaren erdi-erdian, eta Eulali eta biok zain egoten ginen, txurreroak galtzak noiz bustiko. Ez dakit zergatik baina gustatu egiten zitzaigun txurreroa galtzetan pixa egiten ikustea, tripan kilima eragiten zigun eta ezin izaten genion barre txikiari eutsi. Pribilegiatuak ginen, gainera [...] Guk bakarrik genuen txurreroaz gozatze-ko aukera, gurea zen gizon hura, geurea baino ez (23. or.).

Haurtzaroko oihartzunak

Aurrekoaz gain, ugariak dira, istorioan zehar tartekaturik, gozotegiko pertsonaien haurtzaroko egun zoriontsuak jasotzen dituzten pasarteak. Horietan, dagoeneko igarota eta, hortaz, berreskurazina zaien iragan mitifikatu bateko irudiak eta bestelako estereotipoak nahasten dira. Nahita bu-

rututako manipulazio edo distortsioarekin zerikusirik izan gabe, protagonista zaharren memoriak aspaldi bizitako momentuen aukeraketa partziala egiten du, era honetan oroitzapen guztiak iragan zeharo hipererreal/fikzionatu batean kokatuz, gehienetan galdutakoaren nostalgiaren bitartez islatzen direnak.

Nork burua urpetik azkena atera. Elkarri aurpegira begira jarri eta nork azkena barre egin. Nork aurrena egin Kantoietatik Olaetara igeri. Dena zen nork azkena eta nork aurrena [...] Nork burua urpetik azkena atera. Polita zen hori [...] «—Baietz sei minutu azalera gabe!» —esaten zion harro [Eutimiok] kanpotar harrituei [...] Ez ziren ohartzen Eutimioren amarruaz. Inozoak. Eutimiok gilaz gora iraulita zeuden txalupak erabiltzen zituen arnasa hartzeko [...] Urpetik egiten zuen igeri iraulitako batelen baten sabelera iritsi arte. Txaluparen sabelean geratzen zen oxigenotik edaten zuen apustuan zehazturiko minutu kopuruan, eta urpean igeri eginez itzultzen zen berriro hasierako lekura. Eutimioren meriturik handiena segundoak buruz horren ondo kontatzen jakitea zen; egia esan, herrian ez zen hura baino hoberik (33-35. or.).

Inguruetako umeen arteko apustuak, itsasoko uretan jolasean eta algaraka igarotako arratsalde zoriontsuak, Martiñak eskolako atsedendietan amari dendako zereginetan laguntzen zionekoak, nesken eta mutilen arteko lehen begirada-gurutzaketak, helduen mundu krudelerako hurbiltze progresiboaren hasierako urratsak, eta inozentziaren galera, Martiñak, herriko jendearen txutxu-mutxu gaiztoak direla-eta, Teresaren aitak ama abandonatu zuela eta *frantsesita* batekin joan zela dakienean, lehendabiziko aldiz Eutimiorekin maitemindu zen garaia, eta gerrara joateko herria utzi izanak eragin zion sufrimendu deskribaezina... Oroitzapen zoriontsuak tristeagoekin nahasten dira adinean aurrera egin ahala, hiru emakume protagonisten haurtzaro eta gaztaro hasieraren inguruko sentsazio gazi-goza eraginez irakurleongan.

Harri eta zur gelditu nintzen Teresaren aitak herritik Frantziako emakume batekin ihes egin zuela entzun nuenean. Aulkitxoaren gainera igo, eta ia esan nien txutxu-mutxuka

ari ziren bi emakumeei oso oker zebiltzala, Teresaren aita gizon-gizona zela herrian gizonik bazen, eta Ternuara joana zela bakailaotara. Eta bakailaotara joatea ez zela antxoatara joatea, ea zer uste zuten. Horregatik ez zela denbora luzean itzuli. Gainera, «frantsesitak frantsesitak» ziren. Nola joango zen, ba, Teresaren aita haietako batekin? Ez zegoen hura sinistuko zuen amaren alabarik [...] Barrez, dendako bi emakume haiek bere aitari buruz esan zuten txorakeria kontatun. Baina isiltasuna luzatu egin zela nabaritu nuen, eta bis-ta altxatu nuenean Teresa begira-begira nuela ikusi nuen. «Egia dun» esan zidan serio eta ahapeka (62-64. or.).

Haurtzarorako jautzia, eleberri honetan, memoriaren bi-dezko ihes gisa planteatzen da, betierekoa zirudien mundu natural eta helduen kezka edo arazoez kutsatu gabeko testuinguru garbi baterako bidaia balitz bezala. Denboraren iragaiteak dakarren inozentziaren galera eta belaunaldi berriei lekua eta hotsa eman beharra albo batera, istorio honetako paisaiak ez du aldaketa nabarmenik jasaten. Pertsonaiek jaio diren lur, inguru eta giro berberei eusten diete, bizitza osoan bertan zutik mantendu dituzten erroak ihartu arte. Kantoietako kale eta plazak, moila eta itsasoa, familia-ko denda, bizartegia eta izkinako gozotegia... Mundu oso bat kabitzen da Kantoietako mugen barruan, haur zein zahar, haientzat ezagutzen duten mundu bakarra baita, bere-berea dutena, bide batez esanda. Kanpoko berri eta gatazkak irratiz zahar batetik irteten diren zurrumurru urrunak baino ez dira han etxeko txikientzat.

Gerra Zibilaren zauri irekia

Zahar taldea gozotegian dagoela egiten zaio lehendabiziko aldiz erreferentzia politikari *Aulki-jokoan*. «Ixabelek irratia- ren bolumena igo du, eta Iruñean manifestazioa debekatze-ko aginduaren aldeko eta aurkako adierazpenak zabaldu dira gozotegiko azukre-usainean» (47. or.). Esaldi bakarra, guztiz inpersonala, gozotegi barruan aldi berean gertatzen ari diren elkarrizketen artean inork aditu barik galtzen diren hitzak, hondo-zarata bihurturik. Paradoxa handia da,

baina gatazka soziopolitikoekiko egungo axolagabetasuna kontrastean aurkitzen da duela hamarkada batzuk, zaharrak gaztaro betean zeudelarik, bizi izandako egoerarekin.

Bizikleta bat zen, Peugeot markakoa, Basusta aldetik Kantoietara zetorrena [...] Gizona lasai sartu zen herrira, bizikletaren pedalei poliki eraginez. Bota beltzak zituen, galtza zabalak eta izterretaraino luze zuen jaka, gerriko beltzez estutua. Buruan txapel itsusi bat zeraman, arraroa [...] Bizikletaren parrillatik atera, eta plazaren erdian zabaldu zuen Espainiaren bandera. Haizeak mendebaldetik jotzen zuen. Gizonak bi tiro egin zituen airera: «—Kantoieta, tomada!» (81. or.).

Garai horretan hogeita bost eta hemezortzi urte zituzten Teresa eta Martiña izan ziren, Kantoietako beste herritar batzuekin batera, gerra uste baino hurbilago zegoela iragartzen zuen gertakari bitxi horren lekuko. Bi emakume horiek, ordea, une zehatz horretan ez zekiten ezer gerora gertatuko zenaz, Gerra Zibilak Kantoietako jende errugabeari ikusaraziko zizkion izugarrikeriez eta haien bizitzei ekarriko zien sufrimenduaz.

Gozotegian, ezein gaitan sakondu barik denetarik pixka bat hitz eginez, gaztaroko oroitzapen lausoak dirudite gerra garaiko miseria guztia eta momenturik zailenak. Halaxe, dagoeneko garrantzi handirik aitortu gabe, gogoratzen du Martiñak Eutimio Olaetako udaletxeko alondegian preso sartu zutenekoa, edo handik bi aste eskasera Ferroletik *España una, grande y libre* idatzita zekarren gutun bat bidali zionekoa, «alde batean edo bestean baina gerra egin beharra dago» (100. or.) esanez. Horrela jakin zuen Martiñak Eutimio Calvo Sotelo izeneko bonbaketari batean zebilela. Orduan entzungo zuen lehendabizikoz txikitako lagun hura «traidore» gisa definitzen, Teresaren ahotik.

Hirurogeita hamar urte ondoren, jadanik ez dago ez traidore ez bandorik gozotegiko mahaiaren inguruan arratsaldero elkartzen diren zaharren artean. Hori bai, oroitzape- nek eztabaida arinetarako bidea ematen dute; esaterako, Eutimiok ez du inoiz sinetsi Martiñak eta Teresak frontoian ikusitakoaren inguruan kontatutakoa. Edozein modutan, el-

karrizketa honetako azken esaldiek agerian uzten dute gerraren erokeria eta arrazoi eta justizia eza.

- Txurreroa frontoian fusilatu zuten.
- Kakati hutsa zelako.
- Ez lerdokeriarik esan! Hura gizon ausarta zuan.
- Eta zergatik egin zioten tiro orduan, e, Teresita?
- Beldurtia zela pentsatu zutelako.
- Horixe, ba!
- Ez duk gauza bera (88. or.).

Liburuan kapitulu oso bat, hamabosgarrena, eskaintzen zaio txurreroaren fusilamenduaren espektakulu makabroari. Irakurlearen indiferentziaren aurkako antidotoa suertatzen dena, bide batez. Martiña arduratzen da egun horretan frontoian jazotakoa narratzeaz. Horretarako darabilen tonua ez da, pentsa zitekeen bezala, presentziatutakoak eragin diezaiokeen gorroto, haserre, amorru, beldur edo nazkaren emaitza; aitzitik, neska gazte baten ikuspegiari dagokion doinu inozente, sentibera eta, puntu bateraino, goxoari eusten zaio denbora guztian, juzgu moralik zein bestelako tolesdurarik gabekoa.

Zortzi. Zortzi gizon jarri zituzten egun hartan frontoiko hormaren kontra. Eliz barrenetik ikusi nuen [...] «Zuk nola hil nahi zenuke?» galdetzen digutenean askotan gelditzen gara zer erantzun ez dakigula. Badira «sufirimendurik gabe» erantzuten dutenak, edo «nire etxeko ohean», edo «maite nauen jendeak inguratuta», edo «gehiegi zahartu aurretik». Baina gauza bat segurua da: inork ez luke galtzetan pixa eginda hil nahi. Biluzik hiltzea baino okerragoa da hori, duintasun-izpirik gabe. Nik, nola hil nahi dudan galdetzen didatenean, «lore moreak dituen soinekua jantzita» erantzuten dut. Daukadan politena da (90. or.).

Kontaketa hunkigarri egiten duena ez da, beraz, diskurtsoa, baizik eta hitzek islatzen duten gertaeraren gordintasuna eta, oro har, istorio krudela.

Bi soldaduek fusilak hormaren kontra jarritako zortzi gizonengana zuzendu, eta adi entzuteko oihukatu zieten, notizia on bat zutela.

—Podéis estar tranquilos, que sólo morirá uno de vosotros.

Bi uniformedunei barreak galoien artetik egiten zien ihes; gozatzen ari ziren.

—Es muy simple: morirá el primero que se mee.

Gizonek ez zuten zirkinik egin, baina txurreroaren sorbaldak lasaitu egin zirela esango nuke. Gehiegi, hildakoen sorbaldak bakarrik lasaitu daitezke horrela. Gizajoa [...] Barren artean, gizonetako bat negarrez hasi zen, burua frontoiko hormaren kontra. Izugarritzko tristura ematen zuen. Emakumeek bezala egiten zuen, berdin-berdin. Txurreroak, jiratu, eta esku bat pausatu zuen behera etorritako gizonaren sorbaldan. Burua laztanduz zerbait esan zion, hitz batzuk, eta irribarre egin ziola ere esango nuke (90-91. or.).

Ez da kasualitatea kapitulu hasierako zortzi biktima potentzialetatik subjekturik ahulenak (ahulenen artean ahulena, hortaz) pairatzen badu umiliaziorik handiena. Izan ere, txurreroaren aukeraketak hainbat kontraesan interesgarri eragiten ditu, gizon horrengandik hasiera batean espero zitezkeen jarreraren eta gerora unerik erabakigarrienean erakusten duen portaeraren arteko aldea ikusita.

Segituan hasi zen txurreroa hain ezagunak zitzaizkidan mugimenduak egiten. «Ez dezazula egin» xuxurlatu nion konturatu gabe. Baina belaunburuak elkarrengana hurbildu zituen, eta izterrak behin eta berriz estutu. Begiak itxi nituen. Egun hartan «hogei hogei»tik gora iraun zuen; baina batzuetan infinitua ez da nahikoa izaten.

Nik lore moreak dituen soinekoa jantziko dut hiltzera noanean. Txurreroa bere pixa-putzuaren gainera erori zen tiroa eman ziotenean. Ahoa zabalik (91-92. or.).

Txurreroa istorio honetako heroia izatetik urrun dago, heriotzak galtzaile egiten baitu. Baina badu meritua, pertsonaia horren bitartez, mehatxuari buelta emateak, ez baita gauza bera akabatua izatea edo norbaitek fusilamendu-pelotoiak bere burua hil dezan onartzea. Txurreroaren eskuza-baltasunak irakurleen artean sinpatiak sortzen dituen bezala, borroaren muturreko bortizkeriak, soldadu horiek beraien momentu larri horretan botatzen dituzten barre makabro eta mingarriek areagotua, gaitzespena eragiten du. Pertsonaien eskeman ezin argiago geratzen da zein diren onak eta zein gaiztoak pasarte horretan. Amaiera hurbildu ahala, giroko tentsioa areagotuz doa, *in crescendo*, txurreroaren azken arnasarekin narrazioak ordura arte metatutako

emozioen tsunamiak gainezka egin eta sentimendu-eztanda izugarria (terminoaren adiera guztietan) bideratzen duela-rik irakurleon baitan.

Txurreroa ikusi nuen frontoiaren kontra lehertzen, barrutik lehertzen, aho zabalik lurrera erortzen odol-hari bat ezpainetatik zintzilik, eta bi soldaduak «cobarde hijo de puta» esaten.

Odol-usaina ez da sekula ahazten (89-90. or.).

Hemezortzigarren kapituluan, Gerra Zibilaren krudelkeria eta emakumearen aurkako bortizkeria uztartzen dira. Aurrekoarekin alderatuta, diskurtsoak protagonistarekiko hartzen duen ikuspegia hurbilagoa denez istorioa lehenengo pertsonan kontatua egonagatik, narrazioa askozaz intimoagoa da. Indarkeria psikologikoak biktimarengan utzitako aztarnek marka fisikoek baino denbora luzeagoz iraun (bizitza oso bat, hain zuzen) eta are mingarriagoak izan daitezkeelako erakusgarri da kontaketa.

Oraingo honetan Teresari, hots, emakume gazte bati egoitzen zaio biktimaren papera. Zigortzaileak, aldiz, guztiak gizonak dira, erreketek; horiek, aldi berean, Martiñaren aita behartzen dute borrero gisa jokatzera eta, horrenbestez, zigorra ezagun batek gauza dezan. Modu honetan, zigorra bikoitza da, bizarginari kulpa-sentsazioa kutsatzen baitiote bere gogoz kontra jaiotzetik ezagutu eta hainbeste konfiantza dion neskatoa mintzea beste irtenbiderik ez duela ikusten duenean.

Beste bi bizargin ere baziren herrian, baina Martiñaren aitari deitu zioten. Ondo zekiten esku mingarriena aukeratzeko, bai horixe, bazekiten esku arrotzak masaila soilik gorritzen zuela; gertukoak, ordea... Nik ez nuen nahi, eta min egiten zidan; berak ere ez zuen nahi, eta min egiten zion. Biok zikindu nahi gintuzten, eta lortu zuten [...] «Ez ukitu!» esaten nien ahots dardartiz, eta irri egiten zidaten erreketek, erotuta banengo bezala. Nigandik bi metrora zeudela gogorazten zidaten, nire lagunaren aita zela ni ukitzen ari zena, ez beraiek. «Ez ukitzeko!!» errepikatzen nien etsita [...] Martiñaren aita bortxatzailearen tresna baino ez zen; bortxatzailearen eskua (103-105. or.).

Hori gutxi balitz, umiliazioa publikoa da, auzokoen begien aurrean burututakoa. Inpotentziazko malkoekin egiten du negar Teresak, aulkiari eskuak lotuta, ezer egin ezinaren ezinez, etsita. Hotz egiten zuen egun horretan, baina lotsa-sentipen terrible bat gogoratzen du batez ere, ur-balde izoztua burutik behera bota ondoren ere, soldaduen oihu beldurgarrien gainetik.

Dardarka nengoen ni aulki berdean eserita. Nire aurrean makurtu eta zapatak erantzi zizkidan hiru gizonetako batek, poliki, lokarriak pixkanaka askatuz. Amak jositako galtzerdi zaharrak ere kendu, eta putakumeak oinak laztandu zizkidan galtzerdiak atera ahala [...] Lotsatu egin nintzen gizon haiek nire oin biluziei begira ikusita. Arropak erantzi gabe biluztu ninduten.

—Qué pena hacerte esto, con lo bonita que eres —esan zidan nire aurrean makurtu zen erreketek, irribarretxo hartz artean, eta besteek, bitartean, atzetik hasteko agindu zioten Martiñaren aitari. Poliki-poliki egiteko esan zioten, «despacito, disfrutando» izan ziren putakume haien hitzak.

—Burua makurrarazi zidaten [...] Brotxa txikia hartuta, aparra ematen hasi zitzaidan Martiñaren aita, garondotik gora. Belarri atzean entzun nuen bizar-labana (103-105. or.).

Berdura plazaren erdian bortxatu zuten Teresa. Ubelduren arrastorik gabeko bortxaketa izan zen arren, kontzeptua ohiko konnotazio sexualetatik biluztuz, halere antzeko tentsazioak eragin zituen emakumearen sakonean. Izan ere, bortxaketa kontsidera daiteke emakume bati ilea soiltzea. Erreketek ez zuten edozein modutan gauzatu eraso, aitzitik, ahalik eta kalte gehien sortarazi nahian pentsatu zuten zigorra, era horretan haien ekintzaren ondorioek (hau da, umiliazioa eta lotsa egunero jasan beharraren kondanak) denbora luzez iraun zezaten ziurtatuz.

Begiak gogor itxita egon nintzen denbora gutzian. Bortxaketa batean horixe baita gogorrera: bortxatzailea gozatzen ikustea. Irekitzen banituen ile-xerloak ikusten nituen neure oin biluzien gainera erortzen.

Ez ninduten ukitu, hori esaten zuten. Geldi egon nendin, belarrondoko pare bat baino ez zidaten eman, baina eskuak sentitu nituen gorputz osoan. Biluzik nengoen Berdura Pla-

zaren erdian, eta eskuak sentitzen nituen oinetan, zangosagarretan. Bizkarrean, besapeetan. Eskuak sabelean eta gerrian. Eskuak sorbaldetan, bularrean. Eskuak izterretan.

Ile-motots kizkurak elur beltza balira bezala erortzen ziren nire oinetara, eta, oinak estali ahala, gero eta biluziago nengoen ni. Lehenbizi, garondoan ikaragarrizko hotza sentitu nuen [...] Garondoko hotza belarrien atzealdera zabaldu zen gero; lokietara, ondoren; bekokira eta buru osora, azkenik [...] Buru soildutik behera bota zidan azkenean ur-balde izoztu hura. Arropa guztiak busti zitzaizkidan. Malko beroek erre egiten zizkidaten masailak.

Lurrean barreatutako ile kizkurra, beti solte eramaten nuen adats beltz-beltza, poltsa batean bildu zuten. Gero, su eman zioten. Ileak, erretzean, gorrotoaren usaina du (105-108. or.).

Ilea emakume askorentzat generoko sinbolo eta zeinu bereizgarrietako bat izanik, Teresak urraturik sentitzen du bere feminitatea, eta bere emakume nortasuna, odoletan. Ilea-rekin batera, feminitatea galdu izan balu bezala; ile barik emakumetik gutxiago balu bezala. Hurrengo hilabetetan, bestalde, ingurukoek zuzentzen dizkioten begiradek ez dute batere lagunduko haren buruarekiko lotsa- eta gutxiespen-sentipena gainditzen; kontrara baizik, behin eta berriro gogoraraziko diote gerrak markatua izan zela eta zauriak oraindik bertan dirauela, bera txano azpian ezkutuan mantentzen alferrik saiatu arren.

Nahiago izango nukeen, mila aldiz nahiago, harrika hartu banindute, ostikoz jo eta garrasika iraindu banindute; baina minik gabeko oinaze hura barrua jaten ari zitzaidan. Gauza asko endredatzen dira emakume baten ilean. Bekokitik gerrira, gauza asko. Duintasuna, alaitasuna, ausardia, errebel-dia, emetasuna. Ile kizkur luzean kiribilduta denak, eta erauzi egin zizkidaten, banaka, herriko plazan aulki berde batean eserita [...] Nahi gabe, burua soilduta izango nuen itxura imajinatzen saiatu nintzen: zer traza hartuko zuten nire bekokiak eta belarriek ilearen babesik gabe? [...] Zenbateraino aldatuko zen jendeak niri begiratzeko zuen modua? Burusoilduta pisu bera izango ote zuen nire irribarreak? Eta nire hitzek? «Emakumea naiz, haizea dabil, ez nago ados...» Begiratu batean neutroak diruditen esaldi guztiek pisu bera izango ote zuten burusoil baten ahoan? (104-105. or.).

Emakumeak

Aulki-jokoa hiru emakumeren bizitza markatu duten momentu garrantzitsuenetatik egindako ibilbidea da. Emakume-esperientziari ematen zaio lehentasuna lerrootan. Iraganeko oroitzapenek protagonistei behin izan ziren emakumeekin berriro harremanetan jartzeko eta adiskidetzeko bigarren aukera bat eskaintzen diete; memoriaren bidez beraien aspaldiko nia berraurkitzen dute. Narrazioak, ikuspegi femeninoa hartu arren, emakumea (zenbaitetan itotzeraino) mugatzen eta baldintzatzen duen gizarte patriarkal baten giro itxia (matxista ez esatearren) islatzen du. Zentzu horretan, istorioa kokatzen den garaiarekin bat datoz testuari antzematen zaizkion kutsu kontserbatzailea, balio tradizionalak eta moral maskulinoa. Gaurko ikuspegitik gehiegizko dirudien eragina dute trama honetako gizonak (aitamutilek) emakume protagonisten existentzian.

Batzuetan senarraren absentsiagatik azal daiteke emaztearen jokaera:

Artzapen biltzen ziren emakume guztiak senarrei josten zizkieten galtzerdiak, itsasorako batzuek eta sororako besteek. Gu, ordea, ama eta bi alaba baino ez ginen etxean, eta amak ez zuen galtzerdiak norentzat josirik. Horregatik desegiten zuen gauean arratsaldean egindakoa, puntuz puntu, eta bazirudien galtzerdi bat baino askoz gehiago ari zela desegiten. Amak galtzerdiak desegin egiten baitzituen, ez askatu. Nire ardura zen, goizean goiz, harritutako haria lixatzea, gainontzeko emakumeek orduan ere aita falta genuela igar ez zezaaten (16-17. or.).

Beste pasarte batek zahar taldearen kontzientzian genero-banaketaren sistema bitarra noraino dagoen erroturik aditzera ematen du:

Jada Eutimio da azkena. Azkeneko gizona. Ederra egin diok, Felix! Gizon bakarra duk orain [...] Eutimio [dominoko] azkeneko fitxa da, aurreko guztiak erortzen ikusi dituen [...] Orain emakumeok baino ez diogu begiratzen. Gure begietan bakarrik existitzen da, eta hori emakume bihurtzea bezalakoa da. Zer zentzu du gizonik gabeko mundu batean gizon izate-

ak? Ez du erraza behar laurogeita hamar urterekin emakume bihurtzeak. Apustu egingo nuke komunera datorren hurrengoan, emakumezkoenean sartuko dela. Seguru (55. or.).

Emakumeak emakumeekin eta gizonak gizonekin elkartu behar direlako sinesmenean hezia da Martiña. Izan ere, bere gurasoen eredu tradizionala ulertzeko, zeharo argigarria gertatzen da bakoitzak bere negozioan, hau da, amak denda eta aitak, berriz, bizartegian, erakusten duten portaera, gaurko ikuspegitik diskriminatzaile eta matxistatzat joko genukeena ziur asko.

Gure etxeko bebarruak bi zati zituen: alde batean aitaren bizartegia zegoen, eta han gizonak baino ez ziren sartzen, eta gizonen gauzei buruz hitz egiten zen [...] Orduan jakin nuen gizonen kontuak zirela barre-algara altuegiak eta apustuak, ohorea eta tiradera bat giltzaz itxita, mesanotxean. Gizonez gain gure ama ere sartzen zen bizartegira gizonen ileak jasotzeko orratza pasatzera, baina amaren aurrean ez zen «gizonen kontuez» hitz egiten, amari esaten zioten «zu etxerako» eta amak irribarre egin eta lurra garbi-garbi uzten zuen. Alde batean aitaren bizartegia zegoen eta, bestean, amaren janari-denda txikia, aitak esaten zuen bezala, «emakumeek ere beraien gauzez hitz egiteko» (57-58. or.).

Hazitakoan, Martiñak berak pairatuko zuen Eutimioarekiko desamodioaren gaitza eta luzez sufrutuko zuen, lehendabiziko aldiz, gizon baten absentzia. Geroago konbentzitu zen, baita ere, gerra batik bat gizonen ardura dela. Haren ustez, «lubakitik idatzitako gutunak gerra dira; sukaldetik erantzundakoak, ez» (89. or.). Pentsamolde horrek darama, aldi berean, Teresaren izaera gizon batenarekin nahastera. «Ezin zuen Teresaren jarrera hura eraman: gizonetakoak bezala hitz egiten zuen. Dena zen gerra. Dena zen lubakiaren alde bat ala bestea. Dena odola eta izerdia» (100. or.).

Emakumeen berezko esperientzian sakontzeaz ari bagara, eleberriko hogeigarren kapitulua bereziki aberatsa suertatzen da. Horretan, Teresak Olaetako kalabozora bisitan joan zenean jasandako bortxaketa edo erdizka onarturiko harreman sexualaren nondik norakoak kontatzen ditu, hoztasun handiz kontatu ere. Jarraian enkontru itsusi horren ondorio

den haurdunaldiak bera bezalako emakume ezkongabe (eta aurreko atalean aztertutakoagatik, burusoil) batentzat suposatzen duen kezka, lotsa eta marjinazioa adierazten du. Inguruko jendearen begirada gaiztoei eta, oro har, gizarte-moral ezarriari gehi bere baitako konplexuei aurre egin beharra sobera esperientzia gogorra bada, Teresa, erraietan daraman umea jaiotzean, hura maitatzeko gai izango ote den zalantzaz bizi da. Bere egoera berezia dela eta, pertsonaia honek amatasunaren gaia ikuspegi original batetik lantzen du, testua ohiko parametro tradizional eta politikoki zuzenetatik askatuz eta, salbuespen modura, bikote maskulino baten behar barik (are gutxiago subjektua bortxatzaile bat denean) ama bihurtzearen ardura beregain hartzeko prest dagoen emakume baten irudi indartsu eta apurtzailea marraztuz.

Haurdun gelditu nintzen [...] sabelean neraman haurra ez zen maitasunaren fruitua. Sinpleagoa zen hori baino: Berdura Plazakoa gertatu eta pare bat astera, Olaetako kalabozora bisitan joan nintzaion umetatik ezagutzen nuen Kantoietako mutil bati, eskuminak eta zigarroak eramatera. Ez zeukan delitu handirik eta bakarrik utzi gintuzten gela batean, eta gainean jarri zitzaidan. Ez nintzen apartatu, egia da. Isil-isilik egon nintzen.

Mutil hark hormaren kontra hartu nindueanean lurrera erori zitzaidan kapelu granatea eta buru biluzia agerian nuela jo zidan larrua. Horrek lotsatu egin ninduen pixka bat, baina tira. Bukatu zuenean zigarro bat piztu zuen, eta beste bat luzatu zidan niri. Elkarrekin erre genuen, eta gero, kape-lua jantzita, Kantoietara itzuli nintzen ni.

Ez nion inori nire sabelaren inguruko azalpenik eman. Ezta haurdun utzi ninduen mutilari ere, giltzapetik atera zenean. Gogoan dut «nirea dun?» galdetu zidala kalean gurutzatu ginen egun batean, eta «zertaz ari haiz?» erantzun niola, harrituta. Ezta niri gona behin altxatu izanak nire sabelaz galde-tzeko eskubidea emango balio ere!

Bitxia da norberaren barruan zerbait haziz eta haziz sentitzea, jakinda halako batean zureen antza izango duten begiekin gora begiratu eta esango dizula: «ama» [...] Ez da erraza ezezagunak maitatzea. Are gutxiago ezezagun hori tripan badaramazu.

Gizajo. Bizitza laburra izan zuen. Lau urte baino ez [...] Maite izan nuen. Ikaragarri maite izan nuen (113-117. or.).

Zahartzaroa: gozotegiko arratsak

—Egon hor, aditzen?

«Ze erremedio», pentsatu du Martiñak. Ezkerreko eskuan ez du indarrrik eta eskuineko oinak labain egingo lioke bainerran. Eserita gelditu beste erremediorik ez du, biluzik eta ileko sarea jantzita [...] Bat-batean, bere burua aurkitu du bainugelako ispilu handian [...] Askotan ikusi du bere burua biluzik, baina ez da ohitzen. Badaki zaharra dela, badaki tronbosiak beso bat, hanka bat eta irribarrearen erdia zintzilik utzi dizkiola, baina bere gorputza imajinatzen duenean askoz gazteago ikusten du. Bere buruaz daukan irudiak ez dauka ispiluak itzultzen dionarekin zerikusirik. Indartsu sentitzen da bera, buruan indar handia sumatzen du (37-38. or.).

Belarriak kartzelak dira, eta bakoitzak bi ditu. Nik ere badi-tut bi, baina izorratuta daude, arazo teknikoak dituzte eta [...] Memorian milaka soinu nituela ohartu nintzen, bata bestearen ondoan, txukuntasun ikaragarri ordenatuta, eta ikasi nuen, nahi nuenean atera nintzakeela soinu haiek beren kaxoietatik, nahikoa zela haiekin pentsatzea buru barruan garbi-garbi entzuteko. Horregatik erabaki nuen gauzak pixka bat aldatzea, libre nintzela konturatu nintzen. Zer arraiogatik entzun behar nuen jende guztiak entzuten zuena? Nik aukera neukan nahi nuena eta nahi nuena bakarrik entzuteko [...] Kapaz naiz harri-kozkor bat uretara jaurti eta kristalak kraskatzean egiten duen zarata imajinatzeko [...] Ohera sartu eta nahi dudana musika entzuten dut gauero, nahi dudana bolumenean. Garbigailua irekitzen dudana bakoitzean itsasoaren zarata entzuten dut, olatuak lehertzen zaizkit belarrietan (67-72. or.).

Uxue Alberdik sentsibilitate handiz, baina aldi berean oso modu errealistan, ekiten dio bere obran zahartzaroaren gaia jorratzeari, adineko jendearen eguneroko oztopo eta zailtasunak ezkutatu barik. Adituek diotenez, bizitzaren zikloaren amaiera ailegaturik, gutxieneko autonomia-maila (fisiko zein psikikoa) mantentzea eta inguru ezagunarekiko harreman sozialari eustea dira desira bakarrak. Pertsona edadetuei larritasuna eta ikara sortarazi ohi die ezgaitasun eta bakardadearen mehatxuak. Bada, gauza bera gertatzen zaie istorio honetan zahar taldeko kideei. Ildo horretan, Martiña eta Eulali gaixotasunari aurre egiten ahalegintzen dira, hots, bakoitza bere gaitzekin borrokatzen. Eulalik aspaldi galduta duen entzume-

naren zentzua irudimenarekin ordezkatzeko duen bitartean, Martiñak ez du onartu nahi tronbosiaren ondorioz pairatzen duen mugimendu-gaitasun murriztua, hortik Eutimio senarraren laguntzari uko egite sistematikoa eta bere jarrera egoskorra. Eulali eta Martiña, zoritxarrez, garaipenik gabeko borroketan murgiltzen dira egunero, baina ez dute amore ematen, gerra alde aurretik galduta dutela eta denborak haien aurka jokatzeko duela inork baino hobeto jakin arren.

«Alabaren eta haren senarraren arteko oihuak dira txarrak, horiei ezin diet bestelako soinurik jarri» (72. or.). Eulaliren bizitzan, entzumenaren orde, bere memoria eta irudimenetik ateratako soinu, zarata, hitz eta elkarrizketa asmatuek hartzen dute lekua. Halere, azkenean errealitatea gailentzen zaio atsoak sortutako fikziozko mundu horri. Une jakin batean, fantasiak eragiten duen ongizate- eta lasaitasun-sentsazio faltsuak desagertu eta subjektua babesgabe ageri da, bakarrik, dagoeneko bere barne-unibertsoa ez delako gai inguruko eztabaida eta familia-gatazketatik isolatzeko.

Metafora, eufemismoa, hizkera sentibera eta errespetuzkoa darabil, besteren artean, Alberdik heriotzaren gaia lantzeko. Tonuaren dotoreziak, efektu literario edertzailea bilatzeagatik, ordea, ez dio sakontasun- eta garrantzi-izpirik kentzen edukiari. Izan ere, Martiñaren heriotzaren inguruko ikuspegi ezberdinak eskaintzen ditu testuak, bizitzako aldi desberdinei dagozkienak; bata, Martiñak, txikia delarik, bere heriotza pentsatzen duen narrazioa (Gerra Zibilaren atalean jada aipaturiko lore moreen soinekoaren pasarte); eta bigarrena, Eulalik eta Eutimiok Martiña hil aurreko eta ondoko egunetan kontatzen dutena. Eulalik antzematen dio beste inork baino lehen Martiñaren distira apurka-apurka itzaltzen ari dela, hitz egin arren entzuten ez duelako metafora eta paradoxa erabiliz adierazten denez. Egun gutxi batzuk beranduago, Eutimiok partekatuko ditu, harridura puntu batez, emaztearen heriotzaren nondik norakoak.

Ez nion entzuten. Begiratzen nion eta ez nion ezer entzuten [...] Azken asteetan Martiñaren aurpegiak ez zidan ezer esa-

ten. Koadro huts bat zen. Film mutu bat [...] Martiña bere aulkian eserita ikusten nuen, zurbil eta begirada lausotuta, ezer esateko, hotsik txikiena ateratzeko ezgauza. Ezpainak mugitzen zituenean ere, hasperen itoak baino ez nitzakeen imajinatu keinu haietan [...] Orain badakit hiltzen ari zela edo, agian, hilda zegoela jada (119-120. or.).

Jarrera axolagabea lepora dakieke eleberri honetako zaharrei. Haien arteko elkarrizketetan azalkeria nabari da guztien diskurtsoan, asperduraren ondorio gisa azal daitekeena. Txikitatik elkar ezagutzen dutenez, bizitza osoa elkarrekin igaro izanagatik, badirudi dagoeneko kontatzeko ezer berririk ez dutela. Edozein modutan, elkarrizketak maiz hutsalak gerta badaitezke ere, original xamarrak ere badirela onartu beharra dago. Esaterako, Kantoietako jendea lepoa okertzeko moduagatik edo ibileragatik identifika daitekeenetz eztabaidatzen dutenean, zilbor marroixken inguruko misterioa argitzen saiatzen direnean, Martiñak ezkerreko begian duen bigarren ninia txikitan amu bat sartu izanaren ondorio dela kontatzen duenean, denon artean zenbat urte dituzten kalkulatzeko dutenean edo, sineskeren eremuan, Eutimiok hurrengoa esaten duenean:

Seme zaharrenari besotik helduta sartu da Eutimio gozotegira, balantzaka eta nahigabe aurpegiz, eskuekin horma bilatuz. «Ez da ezer. Tiraina. Berakatz ahasztu zait eta itsasoak tira egiten dit [...] Barrurantz egiten du tira itsasoak. Semearen besoagatik ez balitz, eraman ninduen honezkero!». «Berakatz atal bat ekartzea nahi duzu?», galdetu dio Ixabelek. Amorrua ematen dio zaharren sineskeriei amore eman beharrak, baina zer erremedio (109. or.).

Aulki-jokoak zahartzaroko eta, oro har, adineko pertsonen irudi errealista eskaintzen du. Atzera begira idatzitako narrazioa da, non zaharrek haien kontu, bitxikeria eta, batez ere, oroitzapenei esker bizirauten duten. Arratsaldero gozotegian biltzeaz gain, ezer gutxi gertatzen da orainaldian, zantzu guztien arabera emoziorik bizienak aspaldi urrunean galdu ziren. Etorkizuna ustelduz doan heinean, iraganak balioa irabazten du. Horrela azaltzen da argumentu honetan protagonisten oroitzapenek eskuratzen duten berebiziko garrantzia.

Uxue Alberdik, hiru emakumeren ahotsetatik abiatu-rik, denboraren ezinbesteko iragaiteak laster desagerraraziko duen belaunaldi bateko (h)istorioa berridatzi du, sekula berreskuratu ezingo dugun garai bateko bizipenen fikziozko lekukotasuna emanaz.

Ondorio nagusiak eta azken gomendioa

Artikulu honen amaiera iritsita, Uxue Alberdiren sorkuntza literarioa bere osotasunean aintzat harturik, hari buruz dudan iritzia emateko momentua da. Egileak berak adierazi duenez, oso baldintza ezberdinetan idatziak dira orain arte argitaratu dituen bi narratiba lan nagusiak.

Beka ezagun bati esker autorea Suedian ikasten ari zela jaio zen *Aulki bat elurretan* lehen narrazio-liburua idazteko proiektua, gerora irabazitako Igartza Bekaren bitartez eta Elkar argitaletxearen eskutik gauzatuko zena. Inguru arrotzak inspiraturik ziur aski, obra horretan nabariak dira Suediako paisaia izoztuen eragina eta hango jendearen bizimodu eta ohituren oihartzuna.

Aulki-jokoa eleberria idazteko Alberdik hartu zuen bidea oso bestelakoa da. Bigarren lan horretan, ezagutza zuzenik ezean, idazlea Getariako zahar talde batekin bildu zen, gozotegi batean, beren bizitzako pasarteak konta ziezazkioten. Urtebetean jasotako informazio hori guztia, fikziorako moldatua, baliatu zuen eleberriko 22 kapituluak osatzeko.

Prestakuntza-aldian erabilitako metodoaren aldaketak estrategia narratibo ezberdinak bideratu zituen. *Aulki bat elurretan*en, esaterako, idazleak oso tonu intimoa lortzen du, ipuin gehienak girotzen dituen atmosfera lirikoak areagotua. Metaforaren baliabideak erdiguneko garrantzia eskuratzeko erabiltzen du testuan, eta horri narratzaileak darabilen hizkera iradokitzailea gehituz gero, emaitza maila estetiko handiko kontaketa-multzoa da.

Fantasiako ukitua eta zentzu metaforikoaren arrastoa askoz lausoago atzematen da *Aulki-jokoan*. Gainera, argu-

mentua benetako gertaeretan oinarritzen den neurrian, hau da, Alberdiren testuaren atzean egileak berak burututako dokumentazio-lan bat dagoenez, obra korronte errealistari atxikitzen zaio. Idazlearen ibilbide literarioari hasiera eman zion liburuarekin konparatuta, bigarren honetan apenas aurki daiteke irakurleok bete dezakegun interpretaziozko hutsunerik edukian; hitzek balio iradokitzailea galtzen dute, zehaztasunaren mesedetan.

Ikusten denez, gorabehera handiak daude istorio- zein idazkera-mailan bi liburuon artean, bakoitzaren baitakoak ez aipatzearren, noski. Idazle gazte baten lehendabiziko obretan espero daitekeen sorkuntza zalantzatia, ezegonkorra zenbaitetan eta denetan esperimentalala topatzen dugu. Baina, halere, ezberdintasun eta ahulezia guztien gainetik, bada hari ikusezin bat, bi obrak lotzen dituena. Izan ere, Uxue Alberdik, bere gaztetasunean eta ibilbide literario laburrean, beste hainbat autorek bizitza osoan bilatu arren sekula lortzen ez duten zerbait eskaintzen digu irakurleoi: berezko estilo narratiboa, bere testu guztiak identifikatzea ahalbidetzen diguna, hain zuzen. Ageriago batzuetan, lausoago bestetan, baina oinarrian daude beti, Alberdiren sorkuntza osoa besarkatuz, hitz egokiena aukeratzeko gaitasun naturala, testu oro kutsu lirikoaz aberasteko dohaina, erreallitatea islatzeko gustu estetiko, sentsibiltate eta xarma berezia, hizkuntza eta irudiekin jolasteko trebetasuna, dotorezia diskurtsiboa eta gertaera xumeen handitasuna erakusteko kezka, besteak beste. Ezaugarri horien guztien gainean eusten dio autoreak bere estilo literario propioari.

Zalantza barik, Uxue Alberdi XXI. mendeko euskal idazle gazteen artean sorkuntza sendoenetakoa dugu narratibaren arloan, sendoena ez bada. Hurrengo urteetan idatziko dituen liburu berrien eta Alberdiren beraren bilakaera literarioaren inguruko ikuspegi osoago baten zain gauden bitartean, aipatutako arrazoiek zinez gomendagarria egiten dute *Aulki bat elurretan* eta *Aulki-jokoa* liburuen irakurketa.¶



ARTEA 95

Kapitalismoaren kultura
Kapitalismoaren historia eraikia
Kapitalismoaren arkitektura

HAIZEA BARCENILLA

TEKNOZIENTZIA 101

Amorrua
Droneak
Udako sugeak

INAKI IRAZABALBEITIA

LITERATURA 106

Liburutegi pribatuak I
Liburutegi pribatuak II
Liburutegi pribatuak III
Liburutegi pribatuak IV

GOIZALDE LANDABASO

SOZIOLINGUISTIKA 112

Jarrerekin bueltaka: *framing* marko kontzeptuala
Framing eta jarrerak

Portaera, jarrera eta errealitatearen aldaketa
Jarreraren inguruko eztabaida berriak

LIONEL JOLY

GLOKALIA 118

Alemania iraultzailea
Bizikletak maite dituzte
Izua ikusi Oletan

JOSU LARRINAGA

Kapitalismoaren kultura

Kategoria berri bat asmatu dut Art Dubaiko zenbait stand ikusten: xeke-arteak. Ez nuke esango mugimendu bat denik, postmodernismoak ez dituelako horrelakoak sortzen. Gainera, xeke-arteak gauzatzen dutenek ez dute kolaboratzen, ez dira pabiloi zaharretan edo taberna dekadenteetan artearen zergatiaz edo bizitzaren gehiegikeriaz hitz egitera elkartzen. Bakoitza bere estudioan ixten da eta ahalik eta material preziatuenekin garestien salduko dituen piezak egiten ditu: diamantez estalitako buru-hezurra, urrez gaineztatutako mihi-sea, zilar puruan galdatutako karakola.

Xeke-artearen ezaugarriak sinple eta zuzenak dira: distiratsua, kontzepturik gabekoa, dekoratiboa, demasekoa eta, batez ere, garestia eta garesti itxurakoa. Garesti itxurako horrek garrantzia du, arte berriarekin merkatuko balioa zein den atzematea zaila suerta daitekeelako. Moneten koadro eza-gun batek ez du ez handia ez hanpatua izan beharrik: denok dakigu garestia dela. Baina zer gertatzen da, esaterako, Wolfgang Tillmans bezalako artista baten lanarekin, argazki sinple eta undergroundak, paretan txintxetekin zintzilatuak? Zeinek daki lan hori garestia izan daitekeenik? Xeke-arteak ezin du ikuslearen arte merkatuari buruzko jakintzan konfiantzarik izan: garesti itxura nahitaezkoa da.

Xeke-artearen zokoa, noski, Art Dubain dago, Dubaiko arte azokan. Eta Dubai bera da xeke-artearen mentalitatearen ispilu urbanistikoa. Hala ere, ez dezagun pentsa xeke-arteak xekeen kontua denik soilik: definizioa prototipoan oinarritzen bada ere, anitzak dira xeke-artearen erosleak mundu osoan. Batzuk, xekeak bezala, azkar aberastu eta horren berri eman behar dutenak. Beste batzuk, aldiz, aberastuta jai

eta euren pribilegio horren berri eman behar dutenak. Xeke-arteak, edozein kasutan, aberatsa izateaz gain aberats izatearen irudi bat eraiki behar duenak maite du.

Irudi horren beste osagarri guztiak Dubain bertan aurki daitezke: munduko eraikuntzarik handiena (Burj Khalifa, 4.000 milioi dolar, 828 metroko altuera, desertuko arearen gainean eraikia), itsasoan bost kilometro barneratzen den palmera itxurako penintsula artifiziala (pertsiar golkoaren mareak aldatu eta urte gutxitan hiriaren kostaldea suntsi dezakeena), munduko saltoki-gunerik handiena, edota barnean eskiatzeko instalazioak (-1 eta -6 graduren artean mantentzen direnak 40 graduko basamortuan, 20 pinguinoko talde bati aterpea eman eta beloz estalitako emakumeei, anoraka gainean, 400 metroko eski pista bat eskaintzen dietenak).

Hau guztia 30 kilometroko luzera duen hiri batean elkar-tzen da; metroko bi linea besterik ez ditu, eta espaloi hitzak ez du ezer definitzen bertan. Dubai kotxe pribatuaren paradisia da (luxuzkoa bada hobe), petrolioak baita jainkoa, eta kotxeak neurtzen du pertsonaren lekua munduan. Hurkoarekiko mespretxua gorensten duen hiria da Dubai, argi uzten baitu asko duenak asko balio duela, eta ezer ez duenak... you know what I mean? Hierarkiak adreiluz eta urrez eraikitzen ditu, ekologian, oinarritzko beharretan, errekurtsio natural eta giza errespetuan inoiz pentsatu gabe; edo, are gehiago, horiei barre eginez. Kapitalismoaren hiriburua, Meka eta Vaticano da Dubai, xeke-artearen munduko museoa.

Eta eguzki hiltzailearen azpian gurutzatzen duenak pentsatzen du: nolakoa izango da etorkizunik ez balego bezala garatzen den hiri hau hirurehun urte barru? Jango al du desertuak, edo bisitan etorriko zaizkio 2313ko turistak, beste garai bateko gizakiak eraikitako monumentuak mirestera?

Kapitalismoaren historia eraikia

Bi urtean behin, udako arte-gertakizuna den bienalak Veneziako lorategiak hartzen ditu; arrain itxurako hiriaren isa-

tsean kokatzen dira lorategi horiek, eta arte garaikidearekiko interesa ez duten gehienek ez dituzte ezagutzen, ez baitute inoiz San Marco eta Rialto bitartean luzatzen den arteria gorabeheratsua utzi. Edo, hobe esanda, arteria hori beste batekin, benetakoarekin, konbinatzen dute: hiriaren odol urdina daraman Kanal Handia beti dago ontziz gainezka, eta, gau partean, kameren flashek egunaren argia imitatzen dute.

Venezia bisitatzen duen edonork galdera bera darabil buruan: nori otu zitzaion ur gainean hiri bat eraikitzea? Ez al zegoen beste sistema errazagorik? Zaharra da hiria gainera: badirudi lehen biztanleak K.o. V. mendean iritsi zirela, eta VIII. menderako hiri aipagarria zen jada. Lehen etxeak irlen gainean bazeuden ere, hiriaren antolakuntza gutxika zehaztuz joan zen, elkartu ziren herrixkak, eraiki ziren zubiak, bideratu ziren kanalak. Gaur egun ikusten duguna, Kanal Handiaren inguruko palazioak, Dogoarena, San Marco basilika, Veneziako loratzearekin batera sortu ziren, 1000. urtetik aurrera eta ia XVII. mendera arte. Erdi Aroaren bukaerara, Venezia Europako hiririk aberatsena izan zen, eta aberastasun horrek, dotoreziak, eraikuntza teknika zail eta garestiek, material preziatuek, gaur egun oraindik liluratzten gaituzte.

Zerk ekarri zuen Veneziaren aberastasun neurrigabe hori? Merkataritzak. Bada, Veneziak Mediterraneoko trukea kontrolatzen zuen bere ontzi flota apartarekin. Beraiek domeinatzen zuten ekialdearekin komertzioa, eta euren bitartez iritsi ziren gaur egun Italian guztiz barneratuak dauden merkantziak, esaterako, pasta. Produktuak ekarri eta euren salneurriekin jolasten zuten. Saltzaile eta erosleak ziren veneziarrak, espekulatzailleak, protokapitalistak.

Gaur egun, Veneziak historiarekin amodio eta gorroto kontu bat du. Kolonien aurkikuntzak bere boterea gutxitu zuen; industrializazioak eta mekanizazioak kuriositatetzat sailkatu zuten hiri gisa. Bere historiak, bere beste garai bateko izaerak ematen diote ospea; horrek erakartzen ditu turistak, horrek mantentzen du. Baina hori bera da gaur

egungo dinamiketarik aldentzen duena, eta nahiz eta kultura garaikidearen gidari izan nahi (bienala, mostra), gertakizun horiek acqua alta bezala datozen mareak baino ez dira, San Marco busti baina gutxietsi ezin dutenak.

Beste garai batean aberatsa izan zen hiria da Venezia, eta hori antzematen zaio. Ez da aberastasuna erakartzen zaituena, horren arrastoak baizik, horrek utzitako urrezko lohiak. Eta kultura guztietan bezala, aberastasun hori modu berezian erakusten zen: paktatutako neurri batekin. Kanal Handira ematen duten palazioek fatxada zirrarragarriak dituzte: leiho konplexuak, marmolak, eskulturak. Alboko paretak, aldiz, adreiluzkoak dira, leihoak altuera desberdinetan dituzte, desantolatuak, irregularrak, argia behar den lekuetan sartzeko. Eta bigarren mailako paretak xume horiek, beste begi batzuentzako eginak diruditenak, kanaletik ikusten dira orobat. Argi geratzen zen noraino egiten ziren itxurak, non bukatzen zen espektakulua.

Idazle eta artista asko mintzatu dira Veneziari buruz, askok maite izan dute, askok miretsi, zenbaitek gorroto, zenbaitek sufritu. Ez naiz Veneziako literaturan aditua, baina gustatuko litzaidake XVI. mendeko bidaiari batek behintzat hiriaren etorkizunaz gogoeta egin zuela jakitea. Norbaitek, orduan, ni naizen bisitari garaikidearengan pentsatu zuela, eta nik hiri dekadente, harro eta arranditsu horretan plazer-a aurki ote nezakeen zalantzan jarri zuela.

Kapitalismoaren arkitektura

Martxoan agertu zen notizia prentsan: Ciudad Juarez-en «komunitaterako megazentro» berri bat eraikiko dute Herzog eta de Meuron arkitektoek. Pekineko estadio olinpikoa sortu zuten berberak, edo Tate Modern museorako eraikina berregin zuten horiek. Lehen mailako arkitektoak dira, izenarekin leku bat markatzen dutenak, à la Gehry's Bilbao, eta hala erakusten du *El Diario México* egunkariak berriari ematen dion tituluarekin: «Lehen munduko proiektu bat Juarez-en».

tzako». Egunkariak disimulurik gabe lausengatzen du proiektua: udalak zorua emanen du eta fundazio batek ordainduko ditu kostatuko dituen 40 milioi dolarrak. Espazioak izaera komunala izango du, jendea «gauzak egitera elkartzeko», dio Herzogek. Bere aburuz, oso proiektu berezia da, eta alderdi kulturalaz gain, eliza bat ere izango du. Herzogen beste aipamen bat: «gizarte-proiektuak espektakularra izan behar du arkitektura aldetik, baina soila aldi berean».

Erraza da horrelako arkitektura makroproiektuekin egunkariaren hitz ofizialak sinestea. Are errazago, bestelako iritziak Interneten bertan bilatzea. Horietako batzuek beharrezkoak diren galderak egiten dituzte: zein da eraikuntzaren atzean dagoen fundazioa? Zeinek jartzen du dirua? Zein eduki izango ditu zentroak, kontuan izanda Ciudad Juarezeko autoritateek urtero 0,30 euro (50 peso) dedikatzen dizkietela biztanle bakoitzeko kulturari? Ez da hiriko beste ekintzak hipotekatzen dituen eraikuntza proiektu erraldoi bat izango, behin bukatuta hutsa geratuko dena, hirian dauden beste eraikin anitz bezala? Zer aukera daude horrelako eraikuntza batek Juarezera turismoa erakartzeko (hori baita, argi dago, proiektuaren helburuetako bat)?

Ciudad Juarezek bere arazo guztien oinarrietan bi ardatz ditu: bata narkotrafikoa da, eta bestea bertan *maquila* deritzotena, hots, materialak jatorrizko lurraldean saltzen badira, muga-zergak ordaindu gabe inportatzen dituen sektorea. Hau da, Estatu Batuetako materialak Mexikora ekartzen dira, erregimen laboral mingarrietan lantzen dira pabiloietan, eta muga-zergak ordaindu gabe itzultzen dira iparraldera produktu bihurtuta. Bi arazoak kapitalismoarekin lotuta daude, beste pertsonen truke aberastearen printzipioarekin. Biek dute Juarezeko autoritateekin lotura zuzena: beraiek dira askotan *maquila* horien jabeak, edo, bestela, *maquilari* edo narkoei lurra saldu, utzi edo alokatzen dizkieten jauntxoak; beraiek dira bi sektore handi horiek behar dituzten azpiegiturak diru publikoarekin eraikitzen dituztenak, bestelako zerbitzuak zabartuz. Sektore bat legala da, bestea ile-

gala, baina horretaz gain ez daude bata bestetik horren urrun.

Ciudad Juarezkoa ez da testuinguru erraza, baina dituen arazo guztietatik, Herzog eta de Meuronen megazentroak ez dio ezta bati ere erantzunik emango. Europak bere adreiluzko zorakeriak eraikitzeko dirua galdu duenean, arkitekto veneziar-dubaitar horiek beste lekuetara egin dute ospa, dirua nondik datorren eta nora doan galdetu gabe, kanalera soilik ematen duten fatxadak eraikiz, mareak aldatzen dituzten arezko palmerak sortuz. Kontakizunak dio piramideak esklaboek eraiki zituztela, baina jakina da langile ordainduak zirela. Dubain eta Ciudad Juarez en ere langileek kobratzen dute, baina horrek ez ditu bestelako esklabotzak ekiditen.¶

Amorrua

Amorruarekin edo errabiarekin harremanetan milaka urtetan bizi izan da gizateria. Ospe oso txarreko gaitza izan da; ongi merezitakoa gainera. Amorrua %100 hilgarria dela esan daiteke, nahiz eta literatura medikuan kasuren bat edo beste ezagutzen den amorrua gainditu duen pertsonaren batena. Louis Pasteurrek 1885ean txertoa garatzean egoera aldatu zen. Amorruari aurre egiteko tresna bazegoen engoitik!

Horrek eraman gaitu, bereziki mendebaldeko mundu garatu honetako biztanleoi, amorruaz ahaztera. Pasteurren balentriarekin liluratzen gara eta horrekin arazoa bukatu egin zela iruditzen zaigu.

Tamalez, errealitatea latzagoa da. Errabiak 55.000 lagun hiltzen ditu munduan urtean, bereziki hirugarren munduko nekazaritza-lurraldeetan. HIESak edo gripeak hildakoak baino askoz ere gutxiago dira, jakina. Alabaina, gehiegizko saria nik uste, bereziki konponbidea duenean.

Estatuan zakurrak txertatuz egiten zaio aurre amorruari, horiek direlako gaixotasunaren bektore nagusiak. Ia estatu osoan ezinbestekoa da zakurrak amorruaren kontra txertatzea. Hortaz, zakur amorraturik ez da gurean egoten. Dena dela, lantzean behin, inportatutako kasuren bat gertatzen da. Azkenekoa ekainean, Marokotik etorritako zakur batena. Aurreko kasua 1978koa izan zen!

Beraz, lehen munduko estatuetan artean oso ohiz kanpoak izaten dira errabia kasuak gizakion artean. Oso bakan batzuk gertatzen dira. Animalia basati batek kutsatutakoa izaten da normalean, zauria egoki tratatu ez denean. Alegia, hozkada jasandako pertsonari ez zaiolako txertoa jarri. European azeriak eta saguzarrak dira amorru basatiaren bil-

tegi. Espainian 1970eko hamarkadatik ez da amorratutako azeri kasurik ezagutzen. Frantzian egoera bestelakoa izan da. Izan ere, azerien artean amorrua desagertu bazen ere, Ekialdeko Europatik etorritako amorrua estatu horren iparraldeko azerien artean agertu zen 1960ko hamarkadaren bueltan. Profilaxi-lan latz baten ondoren, errabiatik libre da Frantzia egun.

Europar saguzarrek kutsatutako amorrua oso-oso harri-garria da, eta ezagutzen diren kasu gehienak saguzarrek lanean ari diren pertsonen artean gertatutakoak dira. Bestelako egoera gertatzen da saguzar odolzaleak dauden herrialde tropikaletan, non kutsatzeak ohizkoagoak diren.

Gorago adierazi dugunez, amorruek 55.000 lagun hiltzen ditu urtero munduan. Hildako horien parte handi bat hirugarren munduko nekazaritza-lurraldeetan gertatzen dira, umeen artean bereziki. Izan ere, animalia-erazketa izan eta gero txertoa eskuratzeko arazoak izaten dira osasun-sarearen ahuldadeagatik.

Adituek esaten dutenez, herrialde horietan ere amorruari aurre egiteko modurik eraginkorrena zakurrengan eragitea izango litzateke. Hotzean begiratuta eta, are gehiago, ikuspegi ekonomiko bat eranstean badiogu, zakurrak masiboki txertatzeak zentzua du. Batetik, zakurrak txertatzeko injektzioak pertsonak txertatzekoak baino merkeagoak dira, eta, bestetik, amorruek kutsatutakoen tratamendu medikoak kostua era badu. Eraginkorrena da halaber, bektoreari eragiten baitaio.

Alabaina, ikuspegi etiko edo politiko batetik aztertuta, zailak agertzen dira. Pertsonen osasun-arazo larriak dituzten eta osasun-azpiegitura eskasak dauden eta pobrezian murgilduta dauden lurraldeetan, egokia al da zakurren osasunari atentzioa jartzea? Nola justifika daiteke balizko politika hori egoera larri horretan dauden pertsonen aurrean?

Nik dudak baditut, baina aukera egin behar izango banu, arazoaren erroari ekin eta zakurrak txertatzeko erabakia hartuko nuke. Zuek?

Droneak

Drone terminoa berriki barneratu dugu gure ohizko hiztegian. Teknologiaren beste urrats bat. Gerrarekin lortzen dugu. Gerra gupidagabea bada, are gupidagabeago bihurtzen duen urrats teknologikoa.

Alabaina, piloturik gabeko hegazkin horien jarduera-eremua ez zaio etsaia suntsitzeari soilik lotzen, bestelako asko aurreikus daitezke. Urte gutxiren buruan milaka dronek hegaldatuko dute zerua. Droneak oso baliagarriak izan daitezke eremu askotan: pertsonen erreskate-operazioetan, nekazaritza-lurak zaintzeko, suteen bilakaera jarraitzeko edo trafikoa kudeatzeko. Adibidez, Deutsche Bahn Alemaniako tren-konpainiak iragarri berri du kamera infragorriak dituzten droneak erabiliko dituela trenak bandalismotik babesteko, grafiti-egileez zehazki. Helburu egokiak dirudite horiek, baina instant batean horren egokiak ez diren beste makina bat otutzen zaizkigu.

Pentsa egoera: aireko ibilgailu automatiko merkeek, bideo-kamerez hornituta daudenak, zenbat erraz ditzaketen zaintza-lanak. Lehen erabiltzaileak administrazio publikoaren adarrak izango dira. Asko merkatuko eta erraztuko zaizkie kontrol-lanak. Adibidez, zergatik ez planteatu autoen abiadura kontrolatzeko drone txikiak erabiltzea, gidariak nekez detektatuko dituen? Horrela, abiadura arau-hausteak errazago detektatuko lirateke. Lehen begi-kolpean gauza ona dirudi, baina aldi berean autoan zeinekin zoazen jakin ahal bada, ez da orduan horren itxura onekoa.

Antzeko beste makina bat egoera irudika daiteke, non agintarien gizartearen kontrol-ahalmena areagotu eta erraztu egin daitekeen. Zer esanik ez, bestelako asmorik izan dezaketen paparazzi edo detektibe pribatuei buruz! Laburtuz, dronea ordaindu ahal duen edozeinek izan lezake aukera bere 'begia' gure etxeko sukaldean sartzeko.

Edonola ere, pertsonon pribatutasuna arriskuan dago, nik uste. Piloturik gabeko airekoak eragile pribatuek baliatzea

ez dago araututa Europako herrialde gehienetan. Eragile publikoek baliatzea baimendu egiten da. Espainian, esaterako, ez dago ibilgailu horiek zein espezifikazio bete behar dituzten zehazten duen arau legalik. Beraz, legalki ezin dute hegan egin.

Hutsune legal handia dago, agi denez. Hortaz, herritarron pribatutasuna babestuko duen lege-esparrua garatzea halabarrezkotzat jotzen dut. Bestetik, ez litzateke harritzekoa izango lege-esparru hori ahalik eta lausoena eta makalena izan dadin presio egitea droneen fabrikatzaileek, beraien merkatua ahalik eta zabalena izan dadin. Hortaz, herritar legez botoa nori eman erabakitzeke unean, kezkarako beste motibo bat badugu. Ene!

Udako sugeak

Garai batean orain baino gehiago, uda notizia gutxiko urtaroa izaten zen. Berri sendoen mentsean, egunkarietako orrialdeetan edo telebista-irratietako informatiboetan ez ziren falta notizia xebreak han edo hemen gertatutakoak. Orrialdeak edo minutuak osatu beharra, jakina! Udako suge esaten zitzairen, Ness lakuko sugetzarra urliak edo sendiak ikusi izana ohizkoetako bat izaten zelako apika. Horietako batzuk gainera ia urtero errepikatzen ziren.

Joera horrek behera egin duela atzen urteotan esango nuke, nahiz eta Raxoiren gobernu abuztuko bero zapan Gibraltarrekoa berpizten ibili den negutik datorren Bárcenasen sugetzarra ostendu asmotan.

Komunikabideetan agertu-desagertu joko horretan dantzan ibiltzen den berrietako bat mamuten klonazioarena izaten da. Ez da, ezinbestean, udako berria izaten, baina aurrean uda-sasoiarekin bat egin du.

Udaren hastapenean Siberian aurkitutako mamut izoztu baten DNA animaliatzarra klonatzeko nahikoa kalitatezkoa izan zitekeela irakurri ahal izan genuen. Berri horren karrera, kontserbazionista baten iritzi-artikulua leitzeko aukera

izan nuen, non aditu horrek egur galanta ematen zion desagertutako animalien klonazioari horiek berreskuratzeko asmoekin. Bi argudio nagusi baliatzen zituen. Batetik, klonazioaren beraren bideragarritasuna auzitan jartzen zuen. Bestetik, mamutak eta antzekoak berpizteko baliatzen ari diren funtsak erabilpen egokiagoa izango zuketela egun arriskuan dauden espezieak babesteko usatuko balira; are gehiago krisi ekonomikoaren erdi-erdian.

Jakina, posizionamendu horrek arrapostua izan du. Mamuta klonatzea oso praktika ekologiko egokia izan daitekeela plazaratu du ekologo batek *Scientific American* aldizkariaren irailiko alean. Alegia, mamuta birsortzearen defentsa ez da planteatzen bitxikeria baten moduan; teknologiaren indarra frogatzeko eta ondorioz zoologikoetan edo antzekoetan erakutsiko diren ikuskizun moduan. Neronek behintzat horrela irudikatzen nuen auziaren emaitza. Ba, Siberiako tundraren etorkizuneko oreka ekologikoa bermatzeko eta berotegi-efektuari aurre egiteko erreminta moduan irudikatzen dute batzuek tundran mamut-aldra libre bizitzea.

Nola? Aldaketa klimatikoaren ondorioz Siberiako tenperaturak gora egingo du eta horrek bertako landarediaren produktibitatea asko emendatuko du, bereziki belarrena. Belar hori bildu edo jan ezean metatuz joango da eta usteltzean metano-iturri handia izan daiteke. Mamutek, duela milaka urte egin zuten bezala, tundrako belarra alhatuko lukete bertan libre ibiliko balira. Hortaz, belarraren hazkundera kontrolatuko litzateke eta metano isurtzea saihestuko.

Hortxe hordagoa! Farol itxura hartzen diot nik, zer nahi duzue esatea.¶

Liburutegi pribatuak I

Etxea hankaz gora. Nori otutzen zaio konponketen infernura jauzi egitea? Ba niri neuri. Lehenengo urratsa hastea da. Ez ohi da samurra izaten. Gero, berriz, konponketaren osteko antolaketa dator. Okerragoa dena. Zorabiatu ninduen lehenengo gauza liburuz gainezka zegoen gela hura izan zen. Liburuek mendikateak egiten zituzten. Kopuru bat eman niezazuke... zertarako, baina? Kopurua ematea ez da nolabaiteko harrokeriaren adierazle? Ez da liburutegiaren handitasuna erakusteko nahia? Ba al gara irakurleok etxean pilatutako liburuetatik at ezer? Tira, emango dizut kopuru bat: 12.493. Horiexek dira ditudan liburuak. Edo agian zero bat gehitu diezaiokezu amaieran. Edota puntua koma bihurtu. Kontua da hitzez beteriko gela hura antolatu beharra zegoela. Mila, milioi bat edota munduko liburu oro izanik ere, antolakuntza behar zuen. Nik baino milaka liburu batzuk gehiago dituen lagun batek liburutegia antolatzeko zenbait gako eman zizkidan. «Alfabetikoki duzu onena», esan zidan. Bera, ordea, pertsona antolatua da, sistematikoa, ordena maite duena. Ni, berriz, kaosa naiz. Desantolamendua. Anabasa. Baina nolabaiteko ordenamendua ematen diot beti denari, bizitzari barne. Ahots gehiegi zituen itsasontzi hark lemazaina behar zuen. *Harea naiz harea pila honetan / harez beterik ditut ametsak eta bihotza*, kantatzen hasi da beste ahots bat. Baliteke itsasontzia barik hondartza-zati besterik ez izatea, baliteke aurrez aurre ditudan liburuok basamortu mingarria baino ez osotzea.

Nondik hasi ez dago, sarri. Hastapena ez da beti hasieran dagoena. Ortozik hasi naiz liburu arteko kalekak zeharkatzen. Liburu zaharrak eta berriak nahasirik daude. Hizkun-

tza ezberdinekoak. Batzuk hautsak hartuta bizi dira. Beldurak eta lotsak uxatu eta piloetako baten buru den liburua hartu dut. Pio Barojaren *El árbol de la ciencia*. Azalak zimurrak ditu, urteen joanagatik edo, orriak hosto dira honezkerro. Ez dakit liburua gozatu ote nuen, baina akorduan dut sasoi: eskola garaia. Agian gozatu nuen. Orri beilegituak ditu Giuseppe Ungarettiren *Poza* lanak. Mende berriarekin irakurri nuen eta, antza, gustuko izan nituen zenbait poema. Azpimarrak eman dit pista. «Neure isiltasun honetan / hitz bat aurkitzen dudanean / zulakatua da neure bizian / leize baten eran». Edizio elebiduna da. Italieraz eta euskaraz. Ungarettirekin denbora joan zait, ez dakit zenbat, baina mende bat joan zaidala sentitu dut.

Bere azpian berriagoa den liburua. «Mis noches terminaron con una mañana. El día estaba feo. Llovía y la lluvia golpeaba tristemente en mis cristales» (Nire gauak goiz batekin amaitu ziren. Eguna petral zegoen. Euria ari zuen, eta euriak goibel jotzen zuen nire kristaletan). Lagun-min batek oparitu zidan F. Dostoievskiren *Noches blancas - El pequeño héroe - Un episodio vergonzoso* (Gau zuriak - Heroi txikia - Jazoe-ra lotsagarria). Oraindik iltzatuta ditut lagunaren hitzak, «izugarri ederra da». Aspaldi bizitzatik alde egin zuen mutil baten izena eta ustez bere sakelakoaren telefonoa azaltzen dira bigarren orrialdean. Bizirik ote? Ahotsak kantari dirau. *Ezetz esaten dugu, ez dakigulako esaten bai / nahi dugun horren atzetik baino / nola heldu naiz honaino / nahi ez dugunaren ihesi ematen egunak / zorientasunaren morroi ahulak / zerbaitengatik borrokatu orde / beti zerbaiten kontra.*

Liburu artean naufrago, telefonoa hartu eta aspaldi galdutako lagunari deitu diot.

Liburutegi pribatuak II

Gregor Samsa labezomorro bihurtu zeneko istorioa gustatzen zait. Horregatik izango ote dut eleberri grafiko eta narrazio modura? Batek daki. Agian kakarraldo bilakatzen ha-

sia nintzen batean eskuratutako liburua da. Literaturak gu-re aldartea berresteko ere balio duelako. Beste inon aurkitzen ez ditugun parekotasunak/sentimenduak/jazoerak/minak/pozak agertzen zaizkigu, maiz, ezezagun batek aspaldi edo geroago idatzitako kontakizunetan. Baita musikan ere. *Baina bidea jakin arren, galdu egingo naiz berriz, itsaso berdinean ito, / eguzki berdinetan erre, behin eta berriz.*

2001eko martxoan irakurri nuen Luis Sepúlvedaren *Un viejo que leía novelas de amor* (Maitasun eleberriak irakurtzen zituen agure bat). Beste misterio bat: «Ez nazazu ahaztu. Mx». Eskaintza bat da. Raymond Carverrek idatzitako *¿Quieres hacer el favor de callarte, por favor?* (Isilduko zara, mesedez?) liburuko eskaintza da, hain zuzen ere. Boligrafoz idatzia. Ahaztu dut nork egina. Fernando Pessoa-ren poema bilduma bat hartu dut esku artean. Txakur belarriz beterik da liburua. «No siempre soy igual en lo que digo y escribo» (Esaten eta idazten ditudanetan ez naiz beti bera). Alberto Caeirok idatzia. 1998ko data markatua du liburua, hori ere boligrafoz. Espainieraz idatzitako poesiaren apalera eraman dut. Bai, ez da idazle espainiarra, baina behin-behineko antolakuntzarekin ari naiz momentuz: euskaraz eta espainieraz argitaraturik ditudan liburua. Pentsatu dut laguna batorkit ikaratuko dela nire antolamendu zentzugabearekin. Eta agian, errieta egingo dit; baina tira.

Eskaintza duen beste liburu bat. «Erotasun azpian zerua dagoela postura eginen nuke». Arkatzez idatzi zidan norbaitek Leopoldo María Paneroren liburu honetan. *Teoría del miedo* (Beldurraren teoria) izena du poema liburua. Arkatzez azpimarratutako esaldi asko ageri dira. «El poema desafia la vida, que es sólo un monstruo acechando en lo oscuro» (Iluntasunean zelatan dagoen munstroa den bizitzari erronka egiten dio poemak).

Iraganera egindako bidaia batean murgilduta nago. Denbora gelditu da datozkidan eta doazkidan liburu artean. Filosofia irakaslearekin gogoratu naiz. Gizon zorrotza zen eta iruditzen zait ez zekiela nola gu liluratu eta zaletu filosofia-

ra. Filosofo asko ikasi genituen, baina bakarra ei dago mendikate honetan: *Apología de Sócrates* (Sokratesen Defentsa). Platonek idatzia. Zergatik gordeko ote nuen liburu hori? Osterantzeko azpimarrak ditu horrek. Ikastea eta irakurtzea ez dira gauza bera. Irakurtzea plazerak gidatzen du (gero plazer zapuztua bada ere); ikastea, berriz, derrigortasunak. Liburu ariketak eginak ditut. Desagertu den koadernoren batean egongo dira eginda, hemen ez baitaude. Shakespeare azaldu zait ondoren; «Julio César» antzerki lana. Seguru nago antzezle lanetan ez nintzela ibili. Seguru. Khalil Gibran asko aurkitu dut. Tarte batez irakurtzen gelditu naiz. Hori gustatzen zitzaidan? Garai batean bai, antza. Esan diezaiozun «sasoi mistikoa» ordukoari. Irakurtzen jarraitu dut, ea nonbaiten aurkitzen dudan neure burua. Adinarekin maitasuna ezberdin sentitzen dugu, edo ulertzen dugu, ez nago seguru. Azukretuegi iruditzen zait orain Gibran.

Agian gaurkoz uzteko unea heldu da.

Liburutegi pribatuak III

Gabriel García Márquez maite (ere) dut. Dena, ez. Asko, bai. Cubako San Antonio de los Bañosen bada Zinema eta Telebista eskola garrantzitsua. Bertan, sasoi batean, gidoi-gintza eskolak ematen zituen García Márquezek. Oso lan interesgarria egiten zuten. Lan horren zipriztindu batzuk azaldu ziren liburu batzuetan. *La bendita manía de contar* (Kontatzeko amaigabeko beharra). Ideia batek nola hartzen duen gidoi itxura ikusteko/ikasteko bikainak dira liburuok. Bi gutxienez erosi nituen. Bakarra aurkitu dut. García Márquezen liburu horrek ideia bat piztu dit: «Idazleak» izeneko azpi saila sortuko dut liburutegian. Noiz sartuko dut idazle bat apal horretan? Hiru liburutik gorako idazleekin egingo dut. Gabriel García Márquez, Joseba Sarrionandia, Harkaitz Cano, Jose Luis Otamendi, Roberto Bolaño, Bernardo Atxaga. Apal gehiago beharko ditu, bai. *Etiopian* geratu naiz. Izugarri estimatzen dut liburu hori. Aspaldi-aspaldikoa. Li-

burua gorrotatzen zuten lagun batzuek oparitu zidaten. Eskolan gehiegi «sakondu» omen zuten liburua. Irakasleak etengabeko galdera egiten zien: «Zein da *Etiopiako* gaia?». Lagunek ez zekiten, eta ez zioten *Etiopiari* ezer ikusi. Oparitu zidaten. Gustatu zitzaidala esan nienean ez zuten sinisten: «Kontra egitearren gustatu zaizu». Musika lagundu beharrean sentitu naiz. Barrura bidaiatzeko atea zabaltzen dituen kantua jarri dut. *Lurra orain ere / infinitoak ditun haur oina tipientzat / baina non dira heroeak, imajina ezina dun beste Lope Agirre bat / gau zomorroen gisa akabatzen gaitun...* Ruper Ordorikaren ahotsean *Etiopiak* urruneko zaporea dauka. Beste bizitza batekoa. Beste ni batekoa.

Paul Eluard euskaratua, Ameriketako indiarren gaineko saiakera luze eta zabala, Van Goghi buruzko liburu sorta eta baita Klimten gainekoak. 800 pezeta ordaindu nituen Patziku Perurenaren *Isileko kantak* liburuagatik. «Irrist egin du tristurak / hilargiaren odol istilean». Denborak ilargiari H hizkia lapurtu dio harrezkero. Erabat zirriborrotuta dago Gotzon Garateren *Elizondoko eskutitzak*. Ikastola sasotik salbatu den naufragoa hori ere. 1986an 3B klasean nengoe-la dio liburuak. Halako batean argia egin zait! Ryszard Kapuscinskiren *Desde África* (Afrikatik) argazki liburua Robert Doisneuren beste baten alboan ikusi dut. Ze ezberdinak dira bien argazkiak. Begirada ezberdinak.

Gauak hartu gaitu altzoan. Loa etorri da. Oheratzeko tenorea da.

Liburutegi pribatuak IV

Sukaldaritza estimuan izan dudana zaletasuna da. Apal oso bat utzi behar izan diet sukaldaritzaren gaineko liburuei. Entsaladak, euskal sukaldaritza, txokolata edota italieraz idatzitako pasta liburua. Argazki ederrak ditu italierazko liburuak. Ez dut uste liburu honekin pasta-plater askorik prestatutakoa naizenik (batez ere italiara ez dudalako menperatzen). Hain da, baina, ederra liburua.

Badira liburu batzuk iltzatuta gelditzen zaizkizunak. *Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan* horietako bat da. Edorta Jimenezek idatzi zuen. 2003ko liburua da. Berriz irakurri beharko nuke. Tira, berriz irakurri beharko nituzkeen liburuekin beste apal bat atonduko dut.

John Steinbecken *Perla* lanaren itzultzailea Ruper Ordorika izan zen! Hara! Irakurri nuenean ez nintzen horrekin geratu. Azkeneko orrian poema ahalegin bat dago. Nire letra dela esango nuke. Elkarren aspaldiko liburu diseinua ageri da. Mmm... ez dakit zein apaletan kokatu liburu hori.

Egunak joan badoaz, eta etorri badatoz. Hasierako ezinegona baretu zait. Berdin zait ozeano-liburuan galdurik egoitea. Beste liburu bat hartu dut, ingelesez idatzitakoa da. Zabalzerakoan jabetu naiz beti ez dudala letra berbera izan. Berbak azpimarratuta eta bere esangurarekin datoz. Behearen gainean jarri naiz, eta uste baino lehenago engantxatu naiz liburura.

Argi dago uste baino denbora gehiago beharko dudala hau dena bere onera ekartzeko.¶



Jarrerekin bueltaka: *framing* marko kontzeptuala

Jakinen aurreko zenbakian, soziolinguistikan gertatzen diren berrikuntza zientifikoak aipatu genituen. Eredu matematikoak aipatu ondoren, bereziki *Bat* aldizkari soziolinguistikoaren 2013ko aurreneko zenbakiari egin genion erreferentzia. Zenbaki osoa *framing* delakoari eskainita dago eta oso interesgarria da. Are gehiago kontuan hartzen badugu hizkuntzekiko jarrerei dagokienez aldaketa garai batean gaudela. Gogora dezagun *framing* horrek ondoko definizioa duela Iñaki Martínez de Lunarentzat: «Errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatzen dituzten egitura kognitiboak». Kontzeptuari buruz informazio gehiago izateko hobereena artikulua bera irakurtzea da, edota Martínez de Lunaren artikuluari buruz beste autore batzuek (Patxi Baztarririkak, Xabier Erizek, Maria-Jose Azurmendik eta Paul Bilbaok) idatzi dutena. Paul Bilbaok Lakoff-i jarraituz adierazten duena, adibidez, argigarria da; berarentzat,

badira hitz edo kontzeptu jakin batzuek mundua ikusteko eta munduan egoteko era jakin bat iradokitzen dutenak eta hori ez da kasualitatea, hori *frame* edo errealitatea interpretatzeko eskemengatik da (*Bat* 86: 143).

Interpretazio eskema horiek ezinbestekoak ditugu, errealitatearen konplexutasuna sinplifikatzeko eta errealitatea atzemateko balio digute. Bilbaok dioen bezala:

Norbanakook etengabe, uneoro, erabiltzen ditugu interpretazio-eskema horiek mundua ulertzeko, munduari zentzua emateko eta honela gure jarduna sinplifikatu eta errazteko (ibidem).

Errealitate fisikoa konplexuegia da bere osotasunean barnera dezagun. Fisikariek frogatu duten moduan, adibidez, gu-

re burmuinak ez ditu momentu jakin batean entzuten diren soinuz guztiak prozesatzen; ez ditugu denak entzuten, baizik eta guretzat momentu horretan zentzurik dutenak baino ez. Oso interesgarria da aldizkari berezi osoa irakurtzea, eta jarreari buruz hausnarketa berria egiteko balio digu.

Framing eta jarrerak

Framing kontzeptuaren erabilera berria da soziolinguistikaren esparruan, baina jarrerak aspaldiko aztergaia ditu soziolinguistikak. Berez zientzia horren hiru ikerlerro nagusietako bat da, hizkuntzaren gaitasunarekin eta erabilerarekin batera. Beste bi ikerlerroak baino ilunagoa da. Hizkuntzaren gaitasuna badakigu zer den, nahiko zehazki definituta dago: hizkuntza bat jakin badakigu edo ez dakigu, gure ama hizkuntza edo lehen hizkuntza da edo ez. Modu berdinean, hizkuntzaren erabilera nahiko kontzeptu argia da ere: hizkuntza jakin bat erabiltzen dugu edo ez, euskaraz mintzo gara edo ez... Hori bai, hainbat ñabardura gehi daiteke kasu batean zein bestean. Gaitasunean, adibidez, maila asko dautu, eta maila ezberdin horiek continuum bat osatzen dute. Erabileraren kasuan ere xehetasunak gehi daitezke. Erabileraren ikertzea hizkuntza jakin bat ea erabiltzen den bai/ez dikotomiari erantzutea baino finagoa da: beti eta jende guztiarekin ez dugu berdina eta hizkuntza berarekin hitz egiten; euskañol bezalako kasuen tratamendua ez da erraza, gainera. Baina, orokorrean, nahiko kontzeptu zehatzak dira. Hori bai, ikerketa bat egiten denean, ikerketaren helburuen arabera ondo hautatu behar da erabiliko den metodologia. Aztertu nahi dugun gaia ondo zehaztuta eta mugatuta bada, gogor baina erabiltzen dugun metodologia desegokia bada, jasotako datuak ez dira esanguratsuak izango.

Jarreraren ikerlerro soziolinguistikoa ez da hain argia. Bi tradizio nahiko ezberdinak egon dira jarreraren ikerketetan. Alde batetik, pertsonen uste eta iritziekin lotuta dagoen ikuspuntua dugu, eta, bestetik, ikuspegi konduktista dugu.

Aurreneko kasuan, ikertzaileek iritziak, usteak, sinesmenak eta aurreiritziak ikertzen dituzte. Euskararekiko dugun jarrerara, kasu honetan, euskarari buruz pentsatzen duguna da: polita den, familian hitz egiteko egokia iruditzen zaigun edo ez... Bigarren kasuan, jarrerara ekintzekin lotzen da; gizarte baten hizkuntza batekiko jarrerak gizarte horren portaerak aztertu ondoren eratorpenak eginez aztertzen da. Muturreko adibide bat ematearren, euskaraz erdaraz baino gaitasun hobea duten bi pertsona elkartzean ikertzaileak erdaraz aritzen direla ikusten badu, euskararekiko jarrerara ezkorra dutela erator/ondoriozta dezake. Bistan denez, bi auziak oso lotuta egon badaitezke ere, aski ezberdinak dira; baina soziolinguistikaren literaturan biak topatzen dira.

Bi ikuspuntu horiez gain, beste nahasmen iturri bat dugu. Jarrerak, berezko ikerketa-gai izan ez ezik, zeharkako lerroa ere badira ikerketa soziolinguistikoetan. Konstruktibistek aipatzen duten moduan, errealitate fisikorik egon badago, baina gizakiak atzeman dezakeen errealitate bakarra barneratutakoa da, eta, beraz, errealitate fisikoari buruz barneratu dugun pertzepzioa da. Barneratutako pertzepzio horrek ez du ezinbestean errealitate fisikoarekin bat etorri behar. Horrela ikusita, jarrerak nonahi topatzen dira: pertsona bat euskararen aldekoa bada eta bere pertzepzioan euskaraz beti aritzen dela iruditzen bazaio, nahiz eta hala ez izan, galde-tegi bati erantzutean pertsona horrek euskaraz beti egiten duela erantzungo du. Hori muturreko adibidea da, baina erabilerari buruzko galdera bati erantzutean jarrerak eta pertzepzioak zein eragin izan dezaketean ikusteko balio du. Beste adibide argi bat topa dezakegu irlandararen kasuan. Ó hÍfearnáin-ek aipatzen duen moduan, erroldean ez da ama hizkuntzari buruzko galderarik egiten; baina galderarik egingo balitz ere, ez dago argi galdetegi batean jasotako emaitzak adierazgarriak izango liratekeen, hizkuntza-ideologia indartsu bat dagoelako Irlandan eta ideologia horren arabera irlandera delako irlandar guztien ama-hizkuntza, nahiz eta benetan hala ez izan (Ó hÍfearnáin, Tadhg: «Fa-

mily language policy, first language Irish speaker attitudes and community-based response to language shift», *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 34/4, 2013, 348-365, 351. or.). Jarrerak, beraz, ikerketa soziolinguistiko guztietan kontuan hartzeko moduak dira, ikerketen azken xedeek jarrerekin zerikusia ez badute ere.

Portaera, jarrera eta errealitatearen aldaketa

Aipatu dugunez, soziolinguistikaren ikerketetan jarrerak usteekin, sinesmenekin, aurreiritziekin, irudikapenekin, ideologiekin etab. lotzen dira alde batetik, eta, bestetik, ekin-tzekin. Eztabaidak garrantzi handiegirik ez duela dirudi, epistemologian gertatzen den eztabaida, hitz bati bi definizio ematen zaizkiolarik. Mikel Zalbidek argi frogatu zuen moduan, diglosia kontzeptuaren kasuan gauza bera gertatzen da. Baina diglosiaren kasuan bezala, banaketaren atzean eztabaida aski pisuzkoagoa egon badago. Jarrerak ikertzen direnean, bereziki soziolinguistikaren kasuan, askotan errealitatean eragiteko egiten da. Adibidez, hizkuntza-plangintza bat egiten bada egoera bat aldatu nahi delako (edo dagoenak irautea nahi delako...) da. Ikuspuntuaren arabera, eragiteko erabili behar den bitartekoa ezberdina izan daiteke. Materialismo historikoaren ikuspuntua jarraitzen duten ikertzaileentzat, egoera da ikuspuntua edo jarrera moldatzen duena. Beraz, jarrera aldatzeko egoera aldatu behar da. Euskararekiko jarrerak hobetzeko, euskara gehiago erabili behar da. Beste muturreko ikuspuntuaren arabera, iritziek moldatzen dute errealitatea; beraz, errealitatean eragiteko, jarrerak dira aldatu behar direnak. Bigarren ikuspuntu horren arabera, euskararen erabileraren tasak handitzeko, euskararen aldeko jarrera baikorrak bultzatu behar dira. Irakaskuntzan eta filosofia klasikoan eztabaida berdina izan dira. Epiktetorentzat, adibidez, filosofo ona ez da hainbeste diskurtso onak egiten dituen bere etika irakasteko, baizik eta bere etikaren arabera bizi den filosofoa, adibidea-

ren bidez irakatsiz (Epikteto, *Gidaliburua*). Soziolinguistikaren kasuan eta hizkuntzen kudeaketan, bi ikuspuntuak seguruenik osagarriak dira; halaxe agertzen da, behintzat, azken aspaldi honetan egiten diren ikerketetan. Argi dago jarreraren mundua aski konplexua dela eta jarrera, iritzi, aurreiritzi, ideologia eta abarren taxonomia findu beharko litzatekeela. Autore batzuek, adibidez, jarreraren aldaketa norbanakoaren beharren arabera gertatzen dela azpimarratzen dute. Gainera, esperientziak frogatu du erabateko kontraesanak guztiz normalak direla benetako errealitate soziolinguistikoa: hizkuntza minorizatu bat desagertzeaz dagoenean, hizkuntzaren aldeko jarrerak asko igotzea baina hizkuntzaren erabilera behera egitea eta sinbolikoa bihurtzea oso ohikoa da, adibidez.

Framing moduko kontzeptualizazioek bi ikuspuntuak lotzeko balio digute. Gurpil bat osatzen da jarrera eta ekintzaren artean, zeinean batak bestean eragina duen. *Framing* horren osieran, komunikabideen eta agenda politikoaren eragina handia da. *Framing*aren osiera, funtzionamendua eta *framing*aren aldaketa argi azaltzen ditu Martinez de Lunak (*Bat* 86: 22). Martinez de Lunaren arabera, azken 30 urteetan Euskal Herrian izan diren *frame* (estruktura) nagusiak krisian daude eta aldaketarako unea iritsi da; Erize ere iritzi berekoa da eta zergatia azaltzen du bere artikuluan (*Bat* 86: 103). Hainbat ikerketa ikusita, badirudi aldaketa garai batean sartuta gaudela. Euskaltzaleon helburua, gure ustez, *framing* berri eraginkor bat lortzea litzateke: erabilera bultzatzen duena, hiztunaren ongizatea hizkuntzaren erabileran bultzatzen duena, bereziki.

Jarreraren inguruko eztabaida berriak

Konplexua izanik, oso aberatsa da jarreraren inguruan gertatzen den eztabaida; berrikuntzak etengabe suertatzen dira aztergai honetan, eta Euskal Herriko aldaketa garai honetan, *frame* berria osatzen ari delarik, kontuan hartzeko moduko

argitalpenak ari dira egiten nazioartean. *Journal of Multilingual and Multicultural Development* aldizkariaren 2013ko uztailko zenbakia, adibidez, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen inguruko jarrerari eskainita dago. Zenbakia oso argigarria da gure gaiari dagokionez. Ez da tokia hemen aldizkari horren artikulua guztien erreseina egiteko; dena den, artikulua bat bereziki interesgarria zaigu. Martinez de Lunak *framing* berriarentzat proposatzen duen oinarrietako bat hizkuntzaren ekologian du bere jatorria; hain zuzen, gai horri buruzkoa da James Costaren artikulua. Desagertzeko arriskuan dagoen hizkuntza (*endangerment*) eta hizkuntzaren berreskurapena (*revitalization*) kontzeptuak aztertzen ditu Costak. Bere ustez, jatorri ezberdineko kontzeptuok hizkuntzaren ekologian sartu dira eta orain batera datoz. Costaren iritziz, kontzeptu horien erabilera hizkuntzetan zentratuta dago eta ez prozesu sozialetan. Bizitasunari lotuta dauden metaforak aski abstraktuak dira. «Gizakiaren ondare kulturalaren aniztasuna zaindu behar da» edo antzekoak aipatzen direnean, hizkuntzari modu abstraktuan egiten zaio erreferentzia. Eztabaida manikeo eta sinplista batean sartzen gara, zeinean «onak» (aniztasunaren alde daudenak) eta «txarrak» (besteak) dauden. Costaren ustez, ekologiatik datozen diskurtso horiek pertsonak (hiztunak) desagerrarazten dituzte, eta garrantzia hartzen duena «hizkuntza» da. Modu horretan, hizkuntzen erabileren atzean dauden beste gatazka sozial batzuk desagerrarazten dira. Costaren ikuspuntua oso ondo adierazita dago, eta horren inguruko hausnarketa egitea merezi du: bere ustez, hiztunengan eta prozesu sozialetan zentratu behar gara, eta ez hainbeste hizkuntzetan modu abstraktuan. Nazioarteko azken argitalpenek, *Journal of Multilingual and Multicultural Development* aldizkariaren azken zenbaki horren kasuan bezala, Euskal Herriko egoera aztertzeko bide berriak eskaintzen dituzte. Orain gure lana argitalpen horiek ondo irenstea da, eta, tresna berriak erabiliz, ahalik eta modu egokienean Euskal Herriko egoera aztertzea. Ea guztion artean lortzen dugun...¶

Alemania iraultzailea

Orain gure deabru gustukoenak dira alemaniar agintariak, eta, normalean besteongana metonimizatzen oso zaleak garenez, teutoiak dira kabroi alenak, murrizketak, austeritatea eta bizitza ozpintzen digun oro martxan jarri dutenak, eurak gure estuaren kontura bapo bizi direnak. Beno, ez daukat nik ezer Merkelen alde, baina argi dago aberatsen klubean egotea ez dela, ez, merke. Baina hemen jadanik ez da gelditzen marxista-*groutxistarik* —gu bezalako bazkide-rik nahi duen klubekoak izateak ezin duela ona izan pentsatzen duenik, alegia—, ezta ere euskaldun peto kalbinistarik —estu eta larri, umil eta apal, bizitza horrek geroko oparoa emango digula predikatzen duenik, alegia—, beste uda parrandero eta beroa eman dugu Euskal Herrian, krisian estu, gure betiko kontuetan entreteniturik. Baina oraingoan ez dugu Europar Batasunaz hitz egingo, ezta, momentuz, gure kontuei buruz ere. Gaur Alemanian gertatutako iraultzaz mintzatuko gara, hirugarren sexuaz, alegia.

Binaristak ei gara, espezie moduan, apustu egingo nuke nik, baina ezin horrenbeste ziurtasunez esan. Levi Straussek, pentsamendu basatia ezaugarritzerakoan, klasifikazio zaleak garaela diosku, hori Bata eta Bestea, Gu eta Bestea oposaketa binarioa unibertsala izan daitekeela esateko pausoa... hortxe dago arriskua. Eurasiako erdigunean sorturiko kultura gehienek Manes filosofoaren eraginetik —Ona eta Txarra, absolutuak— edan dute, baina ekialde urrunean yin eta yang direlakoak —dialektikoagoak, hori bai— maneiatzen dituzte.

Baina argiago ikusten da espeziearen eboluzio natural-kulturalaren trantsizio edo, hobe esanda, iraultza-gune esanguratsuenean —gure arbasoek gure ugalketaren eta, bide

batez, animalia eta landareenaren sekretuak azaltzerakoan, hau da, auskalo noiz hasi eta neolitikoarekin burutzen den prozesuan— emeak eta arrak banaketan oinarrituriko binarismoa sortzea nahiko *naturala* dela; izan, *kulturala* bada, edo ere bada, baina esan nahi dugu *ondorio logikoa* ematen duela gure espeziearen —eta guregandik, anatomikoki, fisikoki, hurbil dauden animalia gehienen— ugalketa emeen eta arren sexu-topaketaren bidez gertatzen dela jakiteak eramaten gaituela binarismora. Baina binarismoa heterofaxista bilakatu daiteke.

Gure espeziearen eboluzio natural-kulturalean sexu olgeta eta ugalketa oso estu loturik agertu zaizkigu, azken mende erdian zientziak eraikitako zenbait ezagupidek —antisorgailuen aniztasuna, erraztasuna eta eraginkortasuna; ugalketa laguntzeko metodoak: *in vitro* ernalketarekin hasi eta *alokairuzko amekin* bukatu— bi jarduera horiek kontzeptualki banatzen lagundu duten arte. Marvin Harris antropologoak esaten duen moduan, jaiotzen bultzatzaile edo natalista izan diren kulturek tolerantzia gutxiago izan dute ugalketara begira ez dauden olgeta sexuarekin —jarduera homosexualak, *onanismoa* deiturikoa...—, eta askotan zigortu eta baztertu dituzte halakoak; horren natalista ez diren kulturetan tolerantzia handiagoa egon daiteke horietarako eta, bide batez, diferentea den beste kontu baterako: horregatik ere, literaturan antropologikoan badago kasu bakan batzuetan hirugarren sexua onartu duten kulturen berri.

Izan ere, dela natura ez delako sinbolikoki hura azaltzeko eraikitzen ditugun diskurtsoak bezain perfektua, edo, aldrebes, dela aniztasun handiagokoa delako, kontua da sexua erabat definiturik ez daukaten pertsonak jaiotzen direla eguneroko munduan. Ikuspegi kliniko batetik dimorfismo sexuala deitzen zaio berez oso tipologia diferentea eduki dezakeen esparruari; orain intersexualitatea ere deitzen zaio, ikuspegi politikoki zuzenetik edo. Medikuntza modernoak problema konpondu (edo) egin ohi izan du kirurgiaren bidez —gurasoei erabakitzeke marroia lagata, noski—, eta ziurrenik kasu

askotan asmatu egin izan dute. Baina, zenbait kasutan, pertsona haztean, barneko biokimikak gauza bat esaten du eta kanpoko itxurak eta kirurgikoki eraikitako organoek kontrakoa: emea izan, sentitu eta arren antza eduki, edo aldrebes. Orduan, transexualitatearen arazoa sortzen da. Ez dakigu ziur sentipen hori biokimikak agindua den edo beste mekanismo psikologikoen eragindakoa. Azken urteotan, *queer theory* delakoak eta horren eragina jaso duten homosexualen eskubideen aldeko mugimenduak eta genero feminismoak bere egin dute *trans* sentsibilitatearen aldarria, eta hortik definitu da ere binarismoa heterofaxista dela, nolabait patriarkatuarekin lotuz. Lotura dagoela argi dago; binarismoaren erroak, ordea, ez dakigu are sakonagoak ez ote diren.

Alemaniak kontu hori epe luzera iraul dezakeen erabakia hartu du: oraindik aurrera, umea jaiotzean, emea edo arra atala ez da berez bete beharko agiri ofizialetan. Horrela, medikuntzak edo gurasoen —kasu gehienetan medikuntzak estu lagunduta— ez dute momentuan erabaki beharko eta intersexuala den pertsonak sexu ofizialik gabe hazi ahal izango du, bere kabuz erabaki ahal izateko. Noski, kulturalki, gizartean, plazan, arazo larriak biziko dituzte pertsona horiek eta horien bizitzaren lehenengo urteetan gurasoen, zer esanik ez. Baina iraultza kontzeptuala itzela da. Dena den, orain arte binarismo heterofaxista salatu dutenek agian ez —badaude hormona sintetikoen bidez euren biokimikarekin jolastea maite duten aktibistak—, baina euren burua transexualtzat duten guztiek binarismoaren alde batetik bestera pasatu nahi dute, ez indefinizioan geratu. Baina, gerta al liteke halako identitateak, hau da, betiko trans horretan geratu nahi izango duten transexualak ere agertzea, queer aktibista horien jolasei segituz? Geroak esango!

Bizikletak maite dituzte

«Tengo un problema / tengo un problema sexual / un serio problema / problema sexual /... soy una bicicleta» kantatzen

zuten orain urte batzuk Ilegales asturiarrek, arazo sexuala dut, bizikleta bat naiz. Agian txantxa merkeegia da baina probestuko dugu gaiaz aldatzeko, Alemaniatik alde egin gabe. Orain bertako hauteskundeak hurbiltzen dira eta horregatik errazago da horko bizimoduari buruzko albisteak eta erreportajeak irakurtzea. Eta halako batean irakurtzen dugu 80,5 milioi biztanle izanik 73 milioi txirringa dauzkatela, gazteek, batez ere hirietan bizi direnek, pixkana-pixkana uzten diotela euren identitatea definitzeari autoa erosiz; gehiago kontsideratzen dutela automobila «objektu praktiko» eta, noski, azkenean konturatzen direla ez dela horren praktikoa, hirian bizi izanez gero, askotan nahiago dutela autoa alokatu behar dutenean —zerbitzua ere merkea eta erraza omen da— eta txirringa ondo koipeztuta mantendu, egu-nero horren bidez azkar eta seguru mugitzeko.

Nork bere autoa edukitzea *demodé* bilakatzen ari da *herriarentzako gurdia* —badakizu V eta W duen marka ezagun hori— asmatu zuen herrian, gurdia ordaindu, aseguru ordaindu, gasolina ordaindu, tailerra ordaindu, ezin aparkatu eta aparkalekua ordaindu, ezin edan edo isuna —edo zer edo zer askoz okerrago— ordaindu, identitate motorizatua oso garesti ateratzen da, eta petrolioaren prezioen eboluzioan ezin espero beherakaldirik, gero eta garestiago bilakatuko da eta automobilen publizitate telebisiboa gero eta kaxkarragoa da. Eredu aldaketaren seinaleak?

Gurean kostako da aldaketa ikustea; autoritate nagusiek oraindik Abiadura Handiko Trenaren aldeko erronka eroari eutsi nahian, eta, agian, ezinean, segitzen dute —kosta ahala kosta, istripuak istripu, gastua gora eta gora—, eta alternatiba omen direnek ere bizikleta ez omen dute maite, Tourrean ikurrina astintzeko ez bada. Begira Donostian, bigodegorri kilometro gehien duen euskal hiria, kaleetatik txirringa gehien, alde handiz, ikusten dena. Jende askok esaten du aurreko alkate sozialista Odon Elorzaren konpromiso pertsonalak bultzatu zuela bertan txirringaren aldeko politika sendoa. Egia bide da. Bilduk alkatetza lortu eta gero,

orain urtebete txirringak alokatzeko udal zerbitzua bertan behera utzi —hobetzeko esan zuten: txirringa guztiek motor elektriko osagarria edukiko zutela, to eta no!— eta gaur arte; uda pasatu da udal txirringarik gabe, eta auskalo. Alkate berriak auto ofizialari muzin egingo ziola eta lanera motorrez etorriko zela jakin zenean, lagun ekologista batek seinale ona zela esan zidan; nik arrapostu, ostera ere, Igeldon bizi bada, tira, baina, bestela, txirringa hartzea zuela. Ea desanexioa lortzen duten igeldoarrek, katalanekin batera baltiz, hobe. Baina txirringena ez lukete ahaztu beharko agintari donostiarrek. Kultura berriaren hiriburua izan dadila Kantauriko perla.

Izua ikusi Oletan

Katalanen bidea miretsiz euskaldun askori gogoa piztu eta zama puxtu zai(o/gu)n bitartean, Urrestillako organista anarkista (ohi) bakarrak euskal herritar zintzo eta abertzale askoren (barne) suari gasolina bota zion gutxi gorabehera «500 urteko kolonizazioa» definitzean, «Euskal Herria atzerriarrez bete izan dela, XVI. mendetik Nafarroa Garaian eta XIX. mendetik aurrera baskongadetan» zioen prentsa-artikulu txit irakurrian (sustatu zituen erantzunen uholdea ikusita). Nire gusturako, Edu Apodakak finkatu zuen hobekien, jadanik ia udazkenean, organista ohiak merezi duen arrapostuetako bat: behar gorrienean gurera etorri zen horrenbeste jende zintzoren leinukoek, euskal jatorriko eta abizen nahikodun askorekin batera, euskara eta euskal kultura, behar beltzean zeudenean, etxetik kanpo, edo etxean topatutako azken arrastoekin, hartu, onartu, maitatu eta jasotzeko egin ditugula azken mende erdian, gutxitan posible den aldaketa iraultzailea taxutuz.

Agian, anarkista ohiaren aita ponteko ideologiko berriek prozesu horretan jokatu duten paper inportantea ez zaie oraindik behar bezala onartu, ezta Urrestillakoari ere, eta egin beharreko kontuak dira, nori bere tarta zatia ematea,

alegia. Baina, Apodakak dioenez, «akaso ezabatuko ditugu besteen, gure diferentziak? Zein eta nola?». Kolonizazioaren azpiko mende horietan, gure lurraldean bake forala bizi izan zen, elite euskaldun baten gozagarri eta hemen bizi zen jende gehienaren lasaigarri. Tentsioak zeudenean, beti zegoen urduri jartzen ziren Urtsuatar eta Agirretar guztiak Ameriketara bidaltzea, han garaiko inperialismo bortitzenaren sikario edo sekretario izateko eta, agian, indigenismo anticolonizatzailea predikatzeke; orain gori-gori dago han, eta euskaldun dezente dabil prozesu horietan laguntzen. Dena ez zen inperioaren esku izua ereitea izango!

Baina izua, benetako izua, uda honetan Oletan, Lea Artibain, ikusi nuen nik zenbait neskatxa eta mutiko euskaldunen begietan. Guardia Zibilaren kontrol batean zeuden harrapaturik, eta benetan ikara sortzeko modukoak ziren guda-txakurren plantak eta arma erakustaldiak. Garraio publikoan bidaiatzeak —ez fida!, noizean behin autobusa gelditu eta sartzen dira— eta jadanik susmagarri izateko *zahrrunegia* izateak ematen duten lasaitasunetik ikusita ere, espektakulua beldurgarria bezain iraingarria zen. Horiekin bai ez dagoela zalantzarik. Alde egin behar dute, bidali beharko ditugu, antimilitarismotik egin beharko da, pertsona orok behar duen begiruneaz, inperialista orok merezi duen tinkotasunaz, aio Pelaio.¶